



Gerra Zibileko
desobiratzeak
Euskadin

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILADEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

aranzadi
zientzia elkarteak

Gerra Zibileko **desobiratzeak** Euskadin

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

 **aranzadi**
zientzia elkartea

Aurkibidea

Sarrera	5
1. Hobien Mapa	7
Laburpen-Koadroa	8
2. Desobiratzeak	13
Desobiratzeen mapa	13
Araba	14
Bizkaia	26
Gipuzkoa.....	70
Laburpen koadroak.....	101
3. Euskaditik kanpo hobitik ateratako euskaldunak	107
Nafarroa.....	108
Beste kokaleku batzuk	118
4. Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa	129

AZALEKO ETA BARRUALDEKO ARGAZKIAK:

- Aranzadi Zientzia Elkartea
- Mauro Saravia
- Gogora
- Irekia
- Familien ekarpenak

Sarrera

Nazio Batuetan giza eskubideak babesteko dauden mekanismoak bat datoz gogoraraztean derrigorreko desagertzea jasan duten pertsonen bilaketa, eta haien zoria argitzea, administrazio publikoen betebeharrak direla, salaketa formalik aurkeztu ez bada ere. Familiek beraien desagertutako senitartekoei zer gertatu zitzaien jakiteko eskubide guztia dute.

Horixe izan da Eusko Jaurlaritzak 2003. urteaz geroztik Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinatutako lankidetzaz-hitzarmenaren esparruan egin dituen jarduketaren zentzua, Euskadin Gerra Zibilean desagertutako pertsonen gorpuzkiak aurkitzea, berreskuratzea eta identifikatzen saiatzea.

2001¹. urteaz geroztik helburu horrekin egindako jarduera guztiak jasotzen ditu txosten honetik: *“Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko hobien ikerketa eta kokapenerako 2015-20rako Euskal Planaren”* emaitzen berri ematen du, eta hobien mapa eguneratzen du, zeintzuk izan diren bideragarriak eta zeintzuk ez deskribatuz.

Halaber, urte hauetan Euskadin egin diren desobiratze guztien deskribapen zehatza jasotzen du: 46 desobiratze burutu dira eta 110 pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu dira. Horietatik, 27 identifikatuta daude eta euren familiei eman zaizkie. Gainerakoak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan, edo eta hobiak aurkitu diren udalerrietako hilerrietan berhobiratu dira.

Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioa Olaso hilerriaren inguruan dago, eta Gerra Zibilean desagertu eta identifikatu ez diren pertsonen gorpuzkiak daude bertan; baita ere identifikatutako pertsonen gorpuzkiak, senitartekoek bertan atseden hartzea nahi izan dutenen kasuan

Duintasunaren Kolunbarioa Iñigo Urkullu Lehendakariak inauguratu zuen, 2017ko urtarriaren 30ean, senideak, elkarte memorialistak eta Euskadiko ordezkari publikoak bertan zirela.

Hil eta ahanzturaren estalkipean lurperatu zituzten pertsona guztiei dagokien duintasuna itzultzea da espazio honen helburua; gure oroimenean merezi duten lekua ematea. Lehendakariaren hitzetan, *“Duintasunaren kolunbarioak ahanzturatik memoriara, iluntasunetik argitasunera igarotzea sinbolizatzen du”*.

Inauguratu zenetik, 58 pertsonaren gorpuzkiak berhobiratu dira bertan, horietatik 9 identifikatuak.

¹ Eusko Jaurlaritzaren eta Aranzadiren arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatu aurretik egin ziren hiru hobi jaso dira; izan ere, gerora egindako berreskuratutako gorpuzkien kudeaketa hitzarmen horren esparruan egin da.





1. Euskadiko hobien mapa

Euskadin, Eusko Jaurlaritzaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmenaren esparruan, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatzeko programen barruan, **128 kokapen** ezberdinetan ehorzketak ikertu eta prospektatu dira. 128 kasu horietatik **46k emaitza positiboa** eman dute, hots, gorpuzkiak aurkitu dira. 7 kasutan, gorpuzkiak aurretik hobitik aterata zeudela egiaztatu da. Beste **73 kasutan**¹, prospeksioek **emaitza negatiboa** izan dute edo hobitik ateratzea ez da **bi-deragarria** izan².

1 Beste bi kasutan, informazioak greago aipatuko diren hobiei egiten dute erreferentzia.

2 Beste bi kasutan, Otxandio eta Araia, prospeksio berriak egingo dira 2021.

1.1. Laburpen-Koadroa **Hobien Mapa**

Kokapena	Lurraldea	Emaizta
Untza (Ukabuztaiz)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Kuartango (Arborikano)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
La Tejera (Erriberagoitia)	Araba	Desobiratze positiboa
Amurrio (Hilerria)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Salinas de Añana	Araba	La Tejerari egiten dio erreferentzia
Maeztu (Arraia-Maeztu)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Azazeta	Araba	Aurrerago hobitik aterata
Etxaguen (Zigoitia)	Araba	Desobiratze positiboa
Etxaguen-Murua (Zigoitia)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Laguardia (Hilerria)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Legutiano (Hilerria)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Zestafe (Zigoitia)	Araba	Desobiratze positiboa
Luko	Araba	Aurrerago hobitik aterata
Lantaron (Sobron Hobia)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Araia (Hilerria)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Aprikano (Hilerria)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Txabolapeako Pinuadia I (Legutio)	Araba	Desobiratze positiboa
Alto de la Horca. Boveda (Gaubea)	Araba	Desobiratze positiboa
Txabolapeako Pinudia II (Legutio)	Araba	Desobiratze positiboa
Armiñon	Araba	Aurrerago hobitik aterata
Gopegi. Los Roturos	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Zambrana (Hilerria)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Artziniega	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Aramaio (Kurutzeta I y II)	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Elgea	Araba	Negatiboa/Bideraezina
Arboricano	Araba	Negatiboa/Bideraezina
San Pedro Mendia (Amurrio)	Araba	Desobiratze positiboa
Muxika (Hilerria)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Galdakao	Bizkaia	Kokapen ezberdinak daude aurrerago jasoak.
Amorebieta (Hilerria)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina

Arrieta (Libao)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Burgueño	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Otxandio (Hilerria)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Sabigain Mendia (Mañaria)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Morga (Hilerria)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Trucios-Turtzioz(Hilerria)	Bizkaia	Aurrerago hobitik aterata
Elorrio (Santa Luzia Mendia)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Gernika (Hilerria)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Ganzabal (Amorebieta-Etxano)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Sopuerta (B° Alcedo)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Lemoatx Pardomendi (Lemoa)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Urduñako Hilerria (Urduña)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Lemona II Luminabaso (Lemoa)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Ganzabal II (Amorebieta-Etxano)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Bilbo (Abril eta Ganguren Mendiak, Artxanda)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Zamudio	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Galdames (Galdames)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Galdakao (B° Altamira)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Amorebieta (B° Euba)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Kortezubi	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Kortezubi (B° Barrutia)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Galdames (B° Montellano)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Galdakao (B° Ergoien)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Lemoatx 2014 (Lemoa)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Galdakao (B° Agirre-Aperribai)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Mendata (Lemoa)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Lemoa (Lemoatx Kripta)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
T 100 Leizea (Trucios-Turtzioz)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Markina	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Urkulu 1 (Larrabetzu)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Urkulu 2 (Larrabetzu)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Bolunburu (Larrabetzu)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Legina (Larrabetzu)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Zelaietaburu (Etxebarria)	Bizkaia	Desobiratze positiboa

San Antolin (Lemoa)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
San Roque, Artxanda (Bilbo)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Artaun (Dima)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Baltzola (Etxebarria)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Galdakao (Bº Arteta- Ordañe)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Galdakao (Padrola)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Gamiz-Fika (Uspetxa)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Lezama (Urrusti)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Munitibar (Bengola)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Muskiz (Gurugú Memerea)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Zubieta (Muxika)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Sestao (Rebonza eskolak)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Sondika (San Roke Behekoa)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Gamiz-Fika (Elortatxu)	Bizkaia	Negatiboa/Bideraezina
Urkulu 3 (Larrabetzu)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Lemoatx III (2017) (Lemoa)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Altun Mendia (Zeanuri)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Izartza (Lemoa)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Elortatxu (Gamiz-Fika)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Bizkargi (Amorebieta-Etxano)	Bizkaia	Desobiratze positiboa
Matazal (Zaldibia)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Kurtzetxiki (Arrasate)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Hernani (Hilerria)	Gipuzkoa	Aurrerago hobitik aterata
Elgoibar (Ziaramendi y San Miguel)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Ziaramendi (Elgoibar)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Aretxabaleta	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Antzuola (Deskarga)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Donostia (Ametzagaina)	Gipuzkoa	Aurrerago hobitik aterata
Usurbil (Hirubide)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Donostia (Ulia)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Asu Baserria (Andoain)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Tolosa (Izaskun Beseliza)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Idiazabal (Etxegarate)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Zumarraga (Beloki Mendia)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina

Madarixa (Azkoitia)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Intxorta (Elgeta)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Antzuategi 1 (Elgeta)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Antzuategi 2 (Elgeta)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Zabale Baserria (Mutriku)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Oiartzun (Pikoketa)	Gipuzkoa	Aurrerago hobitik aterata
Tolosa (B° Aldaba Txiki)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Tolosa (Montezkue)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Tolosa (Olamuño)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Ermita Izaskun (Ibarra)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Urrestilla (Azpeitia)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Behobia (Zinkoene Baserria)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Mutriku (B° Saturraran)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Ataun (Aia Hilerria)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Deba (Arronamendi Baserria)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Deba (N-634)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Iragorri (Oiartzun)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Burdinazko Zubia 1 (Donostia)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Burdinazko Zubia 2 (Donostia)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Antzuola (Deskarga Alde II)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Asteasu (Hilerria)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Antzuola (Aristi Baserria)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Elgoibar (Belartondo Baserria)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Eibar (Arrate)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Amasa Hilerria (Amasa)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Elgeta II	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Getaria (Hilerria)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina
Txaldatxur I (Donostia)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Txaldatxur II (Donostia)	Gipuzkoa	Desobiratze positiboa
Hondarribia (Guadalupe)	Gipuzkoa	Negatiboa/Bideraezina





2. Desobiratzeak

2001. urteaz geroztik, emaitza positiboa izan duten **46 desobiratze** egin dira Euskadin: 24 Bizkaian, 15 Gipuzkoan eta 7 Araban. Guztira, **110 biktimen** gorpuzkiak berreskuratu dira, 108 gizon eta bi emakume, eta horietako **27 identifikatu ahal izan dira**, bat emakumea, Monica Barron del Val.

Hobietatik ateratako gehienak gudulariak ziren, 70, baina judizioz kanpo exekutatutako 26 biktima eta preso zeudela hildako beste 14 pertsonaren gorpuzkiak ere berreskuratu dituzte.

Ondorengo orrialdeetan desobiratze guztiak jasotzen dira, lurraldez lurralde sailkatuak eta ordena kronologikoari jarraituz.

ARABA

Zestafe hobia

Kokapena: Zestafe, Zigoitia, (Araba)

Biktimak: 1

Data: 2005



Aurrekariak

Ustekabeen aurkitutako gorpuzkiak dira. Zestafeko (Araba) landa-bide batean aurkitu zituzten, Saimendi eta Arkanetu inguruan dagoen aparteko leku batean. Arabako Arkeologia Museoko teknikariek atera zituzten gorpuzkiak lurpetik. Museo bera Aranzadi Zientzia Elkartearekin harremanetan jarri zen berreskuratutako gorpuzkiak entregatzeko.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hezurdura ez zegoen osorik, ezkerreko tibia eta peronerik ez baitzuen, ezta bi oinak eta hainbat saihets. Hezurren ondoan, nakarrezko zazpi botoi, metalezko hiru botoi eta prentsatutako kartoizko bi botoi aurkitu zituzten, baita eskuineko lepauztaia-
ren gainean zegoen jertse-kremailera bat ere.

Gorpuzkiak Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen Medikuntza Fakultateko Antropologia Forntseko laborategira eraman zituzten, eta han aztertu. 20 urte inguruko gizonezko bat zen. Hala ere, ezinezkoa izan zen heriotzaren arrazoia zehaztea, ez baitzen zantzurik edo lesiorik ikusi gorpuzkietan.

Identifikazio-prozesua

Gizabanakoa ezin izan da identifikatu, ez dago daturik identifikazio-lanak orientatu ahal izateko.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2017ko urtarrilaren 30ean, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela egindako inaugurazio ekitaldian.

La Tejera hobia

Kokapena: La Tejera, Erriberagoitia (Araba)

Biktimak: 3

Identifikatutako pertsona-kopurua: 3

Data: 2010eko ekainaren 19a eta 20a



Primitivo Fernandez de Labastida



Primitivo Fernandez de Labastida (1901 Santa Gadea del Cid, Burgos- 1936 Erriberagoitia, Araba) Santa Gadea del Ciden (Burgos) bizi zen. Nekazaria zen eta 35 urte zituen hil zutenean.

Monica Barron del Val (1890 Villanueva-Soportilla, Burgos – 1936 Erriberagoitia, Araba) eta **Florentino Garcia Valencia** (1889 Villanueva-Soportilla, Burgos – 1936 Erriberagoitia, Araba) senar-emazteak, Villanueva-Soportilla-ko bizilagunak, Primitivo Fernandezekin batera atxilotu zituzten, Tejera gainera eraman, bertan hil eta geroago bizilagunek hobi batean lurperatu zituzten. Gerora, inguruko bizilagun batek kontatutakoari esker aurkitu ahal izan zuten hobia, eta 2010eko ekainean berreskuratu zituzten haien gorpuzkiak.

Aurrekariak

Inguruko bizilagunen testigantzari esker aurkitu ahal izan zuten hobia, eta 2010eko ekainean berreskuratu zituzten gorpuzkiak.

Lortutako informaziotik abiatuta, dokumentatu ahal izan zen 1936ko irailaren 3an zenbait erreketek Primitivo Fernandez de Labastida eta Florentino Garcia Valencia eta Monica Barron del Val Villanueva-Soportilla (Burgos) senar-emazteak atxilotu zituztela Santa Gadean (Burgos). Tejerako mendatera eraman zituzten, eta bertan hil zituzten. Gorpuak bertan abandonatu geratu ziren, eta inguruko herrietako zenbait bizilagunek leku berean lurperatu zituzten, bat-bateko hobi estu batean.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Gorpuzkiak 2010eko ekainaren 19an eta 20an ateratu ziren hobitik. Aranzadiko teknikariek ez ezik, "Ahaztuak 1936-1977" taldeko kideek ere parte hartu zuten eragiketa hartan. Primitivo Fernandez de Labastidaren senideak bertan egon ziren prozesuan zehar. Han egon ziren, era berean, Ines Ibañez de Maeztu andrea, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendaria, eta Javier Fernandez Borgegarai jauna, Arabako Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuko.

Hobia oso txikia zen: 2 metro luze bider 40 zentimetro zabal. Gorpuzkien posizioa hobiaren formara egokituta zegoen. Horrenbestez, lehen gorpua (3. gizabanakoa) hobiaren sakonean guztiz bermatuta geratu zen, gorpua albo batera; baina beste biak hobiaren ertzetara egokitu ziren, eta, beraz, zutik geratu ziren, 53 zentimetroko aldearekin kotan. 2. gizabanakoa ahoz gorako etzanera jarri zen, eta 1. gizabanakoa, bestalde, ahoz beheko etzanera.

1. gizabanakoa emakume heldu nagusia zen, eta bere objektuen artean zeluloidezko apain-orratzi bat aurkitu zen, karei imitazioa, buruaren goiko aldean. Arropetan, krisket batzuk aurkitu ziren mahuken eskumuturretako itxituren, eta beste krisket bat ezkerreko eskapularen ondoan, jantziaren lepoko itxiturakoa. Zentimo bateko zazpi txanpon eta bost zentimoko bi txanpon aurkitu ziren, guztira, ezke-

rreko koxalaren ondoan, bata edo jantziko poltsikoaren aldean. Buruan jasotako bi tirok eta eskuineko eskapulan jasotako tiro batek hil zuten.

2. gizabanakoa gizonezko heldu bat zen, 30 urtetik gorakoa. Oinetakoetako kautxuzko zolak, gerriko beltz eta pratetako heldulekuak berreskuratu ziren. Gorpuak lesioak zituen besaurrean eta eskuineko eskuan, ziur aski defentsarako besoa altxatu eta bertan jaso zuen tiroaren ondorioz. Garezurrean tiro bikoitza jaso izanaren zantzuak ere bazituen.

3. gizabanakoa hobiaren sakonean zegoen, alboz, hankak tolestuta eta altxatuta, hobiaren albo bateko ertzean. Gizonezko heldu baten gorpua da, nagusia. Koxalen ondoan, metxa-txiskero bat eta hainbat txanpon aurkitu ziren. Jantzian, gerrikoaren zati bat eta pratetako botoi metaliko batzuk berreskuratu ziren. Kasu honetan ere, lesioak antzeman ziren eskuineko eskuko hezurretan, su-arma baten jaurtigaia pasa zelako bertatik. Biktimak bere burua babesteko besoa altxatu eta buruan tiro bat jaso zuenean jasango zituen lesio horiek. Hezur okzipitalean eta ezkerreko hezur parietalean bi sarrera-zulo antzeman ziren.

Identifikazio-prozesua

Identifikazio-proposamen bat egin zen, azterketa antropologikoan oinarrituta, eta horren arabera ondorioztatu zen 1. gizabanakoa Monica Barron del Val zela, 2. gizabanakoa Primitivo Fernandez de Labastida eta 3. gizabanakoa Florentino Garcia.

Azterketa genetikoak egin ziren BIOMICs laborategian, eta, halaxe berretsi zen 2. gizabanakoa Primitivo Fernandez de Labastida zela, eta, beraz, beste bi identifikazioak ere onartutzat jo ziren.

Berriz ehorzteko prozesua

Idoia Mendiak, Barne Saila, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan ofizialki entregatu zizkien senideei berreskuratutako gorpuzkiak.

Etxaguen hobia

Kokapena: Etxaguen, Zigoitia, (Araba)

Biktimak: 12

Identifikatutako pertsona-kopurua: 3

Data: 2013ko apirilaren 2tik 5era



Eugenio Erostarbe Fernandez



Pedro Echegaray Goyenechea



Eugenio Erostarbe Fernandez (1910 Retana, Araba – 1936 Zigoitia, Araba) sei anaia-arrebetatik zaharrena zen, trenbideko makinista gisa lan egin zuen, izan ere, familia osoak Vasco-Navarro trenbidearen linean lan egiten zuen, eta trenbideko geltokietan bizi ziren, tarteka bizitokia aldatuz. Altxamendu militarren unean, familia Legution bizi zen, eta bi anaiak, Eugenio eta Zirilo, UGTko kideak, altxamendu militarren aurka borrokatzeko mobilizatu ziren. Eugenio Meabe-4 «*Unión de Hermanos Proletarios*» izeneko 5. batailoian aritu zen eta 1936ko abenduaren 13an hil zen, Zigoitian. Bere anaia Zirilo Dragones batailoian aritu zen borrokan; eta Intxorta inguruan (Elgeta) hil zela ezagutzen bada ere, ezin izan dira bere gorpuzkiak berreskuratu.

Pedro Echegaray Goyenechea (1909 Gamiz-Fika, Bizkaia – 1936 Zigoitia, Araba) Basauriko (Bizkaia) bizilaguna zen, eta Felipa Larrabide Gorostia garekin ezkondu zegoen. Lanbidez, UGTko kide izan zen. Meabe-4 «*Unión de Hermanos Proletarios*» izeneko 5. batailoian izena eman zuen eta 1936ko abenduaren 13an hil zen Elosuko frontean (Araba).

Andres Mendez Oroquieta (1913 Sestao, Bizkaia – 1936 Zigoitia, Araba) Sestaoko bizilaguna izan zen, Gerra Zibilean 5 Meabe-4 «*Unión de Hermanos Proletarios*» Batailoiko kide izan zen eta 1936ko abenduaren 13an hil zen Elosuko frontean (Araba).

Aurrekariak

Etxagueneko kontzejuko abadea, Felix Placer jauna, udalerriko bizilagun batek, Ramon Ochoak, emandako informaziotik abiatuta, Aranzadi Zientzia elkartearekin harremanetan jarri zen. Informazio honen arabera, herrian frontean hildako soldaduak

gordetzen zuen hobi bat omen zegoen, eta hau ikertzeko eskatu zuen.

Legutioko guduan, 1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra bitartean, hildako ugari izan ziren Nafarraten, Elosun, Zestafen, Acosta/Okoiztan eta Muruan, besteak beste.

Egun haietan, frankistek miliziano konpainia bat Oikoiztako baserri batean egonkortuta zegoela jakin zuten, eta morteroz eraso zuten milizianoen posizioa, 14 miliziano hil eta 6 zauritu zituztelarik. Gertaera horri buruzko ikerketa-prozesuan, zenbait bizilagunen lekukotzak jaso ziren. Hauen arabera, 1936ko abenduan, Oikoiztatik hainbat gorpu eraman zituzten gurdi batean, Etxagueneko Gorostizako San Pedro ermitaren atzealdera, eta han, zanga batean lurperatu zituzten.

Bizilagunek esandakoari eta beste dokumentu batzuei esker, baieztatua zirudien 1936ko abenduaren 13an, 14 miliziano hil zituztela Oikoiztako baserri bateko sukaldean zeudela, bonba frankista batek jota (tximiniatik sartu zen). "Union de Hermanos Proletarios" batailoaren 4. konpainiako milizianoak ziren, eta gorpuak idi gurdi batean eraman zituzten Gorostizako San Pedro ermitaren atzealdera, Etxaguenen (Zigoitia, Araba).

Adierazitako lekuan hobia bilatzeko prospekzioa 2013ko martxoaren 21ean eta 22an egin zen. Hobia iturriek adierazitako lekuan zegoen, ermitaren ipar-ekialdeko angelutik 4 metrora.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hobia bide zaharraren perpendikularrean zegoen, harengandik oso hurbil. A3608 errepidea handitzean (zabalera eta altuera handitu ziren), hobiaren zati bat estali egin zen, jatorrian lehenagoko arekan zegoena. Horrenbestez, egungo errepidearen ezpondak haren zati bat estaltzen du. Horren ondorioz, ezin izan da hobia guztiz hustu. Izan ere, ertz bat ezpondaren eta egungo errepidearen azpian geratu zen.

Agerian utzitako hobiak 2,5 metro luze eta 1,80 metro zabal ditu. Gorpuek bertan duten zeharkako posizioa egokituta dago hobia.

Hamar pertsona zeuden ahoz behera etzanda, txandaka. Nahita egin zela uste da, izan ere, hilotzak ez ziren kanposantura eraman, nahiz eta gertu egon, 300 metrora; horren ordeztu, hobia zabalduta eta gorpuek bertan buruz behera jartzea erabaki zen. 11. gizabanakoa ere buruz behera zegoen, perpendikularrean. Ezin da 12. gizabanakoaren kokapena zehaztu.

Ateratako 12 gorpuzkinetatik, bederatzia daude ondo ordezkaturak. Gainerako hiruretatik hondar gutxi batzuk baino ezin izan dira berreskuratu. Guztiak dira gizonezkoak, 18 eta 30 urte bitartekoak, bat izan ezik: 40 urtetik gora izango litzuke azken horrek.

Horietako bostek, gutxienez, lesioak dituzte garezurrean. Hezur-hutsune txikiak dira, kanpotik barrura energia handiz zetozen objektu batzuen inpaktuak sortuak. Objektu horiek leherketa batek sortutako

metraila-zatiak izan daitezke. Gainera, pertsonetatik bik jaurtigai baten edo atal zirkularra duen antzeko objektu baten sarrera-zuloak zituzten.

Beraz, lekukoak eta auzokiek esan bezala, 1936ko abenduan hainbat hilotz lekualdatu ziren gurdi batean Gorostizako San Pedro ermitaren atzeko aldeira, Etxaguenen. Bertan, hilotzak irauli eta ezpondan ehortzi ziren, ermitaren atzean dagoen lursailera sartzeko maldan.

Lekukoek dioten lekuan dagoen hobian gutxienez hamabi gizonezko daudenez ehortzita eta pertsona horiek gazteak direnez, pentsatzekoa da 1937ko abenduaren 13an Union de Hermanos Proletarios batailoiko 14 milizianoen heriotzari buruzko kontakizun historikoarekin bat datozela. Heriotza hori, zehazki, milizianoak zeuden baserrian egondako mortero-leherketa batek eragin zuen.

Identifikazio-prozesua

Hondarrak hobitik atera arren, ezin izan ziren hondar guztiak berreskuratu, hobia partzialki estalita geratu baitzen, duela gutxi errepidea handitu eta berritzeko egindako lanetan.

Hildako milizianoen senide izan daitezkeenak bilatzea eginkizun zaila izaten ari da. Baina, zailtasunak zailtasun, hiru pertsona identifikatu eta izenez eza-gutzea lortu da. Ondorioz, 1. gizabanakoa **Eugenio Erostarbe Fernandez** izango litzateke.

4. gizabanakoa **Pedro Echegaray Goyenechea**, izango litzateke, 27 urterekin hila. Eta 9. gizabanakoa **Andres Mendez Oroquieta** izango litzateke.

Berreskuratu ezin izan den eskeletoetako bat, ziur aski, Juan Ocerin Jauregui Iturriagarena da. Hura ere hil zen leherketa hartan. Bere anai Nicasio honako hau kontatu zuen: *"Juan Legutianoko frontean erail zuten, 15-16 gudarirekin batera, baserri baten sukaldean zeudela mortero bat jaurti zutenean tximiniatik (1936ko abenduaren 13a, Santa Luzia). Bezperan, Bilbon egon ziren, baimenarekin, eta bertan bildutakoarekin bazkari bat egitekotan ziren. Egurra falta zitzaenez, gazteenak bidali zituzten egurretan. Horien artean zegoen Aramburu izeneko bat (1916an jaioa). Nicasio berarekin egon zen diziplina-bataloi batean. Bi gazteak korridorean zeudenean, morteroak eztanda egin zuen. Bizirik irten ziren bakarrak izan ziren."*

Berriz ehorzteko prozesua

Eugenio Erostarbe Fernandez, Pedro Echegaray Goyenechea, Andres Mendez Oroquieta eta identifikatu gabeko gainerako pertsonen gorpuzkiak Etxagueneko hilerrian lurperatu zituzten, 2014ko urriaren 3an.

Txabolapeako pinudia 1 hobia

Kokapena: Txabolapeako pinudia, Legutio (Araba)

Biktimak: 1

Data: 2013ko uztailaren 14a



Aurrekariak

1936ko azaroaren 30ean Euzkadiko Gudarostearen eraso hasi zen Gasteiz hiria hartzeko asmoarekin, Legutioko bataila deitu zen hartan. Borroka abenduaren 25era arte iraun zuen, baja ugari izan zirelarik.

Aurkikuntza bi gaztek egin zuten, Barbara Arevalok eta Iban Barriok, 2013ko apirilaren 19an, Txabolapeko pinudian paseatzen ari zirela. Legutioko Udaleri, Euskal Prospekzio Taldeari eta Aranzadi Zientzia Elkarteari eman zieten aurkikuntzaren berri.

ri zen posizioan zegoela, agian granada baten eztandaren ondorioz.

Hezurdura gizon heldu bati dagokio. Harekin batera berreskuratu ziren, tatxelazko boten zolak, arkatzen baten hondarrak eta bi pezetako txanpon bat, itsatsitako oihal zati batekin batera..

Identifikazio-prozesua

Oraingoz, ezin izan da lurpetik ateratako gizabakoaren nortasuna zehaztu.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hobitik ateratzeko lanak 2013ko uztailaren 14an egin ziren. Esku-hartze arkeologikoari esker, pertsona baten hezurdura ia osoa azaleratu zen. Gorpua eskuinteko saihestaldeen gainean etzanda zegoen, eta gorpua kokapenak berak adierazten du, hilda ero-

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren 2017ko urtarrilaren 30ean, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldi instituzional batean, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Alto de la Horca hobia

Kokapena: Alto de la Horca, Boveda, Gaubea (Araba)

Biktimak: 2

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2014ko irailaren 29a



Angel Antuñano Salazar



Angel Antuñano Salazar (1900 Castriciones, Burgos – 1936 Gaubea, Araba) Kubara emigratu zuen, eta han bizi ohi zen. 1936ko irailaren 7an, bere jaioterrian bisitaldian zegoela, atxilotu eta hil zuten. Bere gorpuzkiak Alto de la Horcako hobi batean, Bovedan, lurperatu zituzten.

Aurrekariak

Patxi Dominguez elorriarrak adierazita jakin ahal izan zen Bovedan (Araba), Alto de la Horcan, bi pertsonen gorpuzkiak gordetzen zituen hobi bat egon zitekeela. Informazio hori, Orencio Gonzalezek eman zion, Bovedako herritarra bera. Patxik berak datu gehiago bildu zituen, eta halaxe jakin zuen *“1936ko irailean beren etxeetatik aterarazi zituztela, indarrez: batetik, Angel Antuñano Salazar, 36 urtekoa, Castriciones herrikoa (Lausa Harana, Burgos), eta, bestetik, Perex herriko (Lausa Harana) beste auzokide bat, zeinaren izena gaur egun ezezaguna baita. Biak (ez daki-gu beraiekin batera jende gehiago ote zihoan) eraman ziren egungo A-2622 errepidetik, Lausako San Pantaleónetik (Burgos) “Alto de La Horca” mendikatera, Bo-*

vedan (Araba). Bertan erail zituzten. Gorpuzkiak Boveda herrian, errepidetik 50 metro ingurura, ehortzi ziren».

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

Informatzaileek adierazitako lekuan prospekzioak egin ondoren, hobia 2014ko irailaren 23an aurkitu zuten. Beraz, Horca gainean, A-2622 errepidetik 50 bat metrora, pinuz betetako baso batean zegoen hobia, eta lursailak eta bide zaharraren trazadura banatzen dituen harri lehorreko hormatik 2,5 metrora. Luzetarako zanga bat zen, 6,25 metro luze eta 75 cm zabal. Hildako bi pertsonen gorpuzkiak zangaren muturretan lurperatu zituzten, eta tarte bat hutsik geratu zen.

Patxi Dominguezek lortutako dokumentazioari esker, jakin ahal izan zen eraildako pertsonetako bat Angel Antuñano Salazar izan zitekeela, Castriciones de Losako (Burgos) bizilaguna.

1. gizabanakoa ahoz gorako etzanera zegoen, ezkerreko besoa gorputz-enborrean zehar luzatuta, eta eskuineko besoa tolestuta, eskua burutik oso gertu. Eskuineko hanka luzatuta zuen, eta ezkerrekoa eskuinekoaren gainetik tolestuta.

Gizonezko heldu gazte baten gorpua dirudi, 30 urtetik gorakoa. Bertan dauden objektuen aniztasuna eta kalitatea kontuan hartuta, maila sozio-ekonomiko ona zuela ondorioztatu daiteke. Larruzko gerrikoa zuen, laukizuzen formako zilarrezko plaka eta guzti, albo batean «Silver Front» zioela. Lorez apaindutako koadro batek apaintzen zuen, eta «A» hizki larria ikus zitekeen goiko aldean. Eskuineko eskumuturraren parean, urrezko mahuka-biki oktogonal bat aurkitu zen, eremu zuri bat nakarrez apainduta. Era berean, toraxean kate metaliko bat aurkitu zen, alde batean zirindola bat zuena. Poltsikoko erloju baten katea izan liteke (beharbada, berak eduki eta ostu egin ziotena). Labana metaliko bat ere berreskuratu zen.

Bestalde, nabarmentzekoak dira hortz-tratamenduak: urrezko zorro trokelatuak hainbat hortzetan, bai beheko masailezurrean, bai goikoan.

Su-arma baten tiroak hil zuen. Jaurtigaia hezur okzipitalaren ezkerreko erdian sartu zen. Bertan, izan ere, 9 mm-ko diametroa daukan sarrera-zulo bat antzeman daiteke.

2. gizabanakoa alboko etzanera zegoen, eskuineko aldearen gainean, hobiaren albo bateko hormaren kontra bermatuta. Besoak buruaren aurretik erdi tolestuta zituen, eta beheko gorputz-adarrak zertxobait tolestuta paraleloan.

Gizonezko heldu gazte baten gorpua dirudi, 30 urtetik gorakoa. Berari lotutako objektuen artean gerriko ba-

ten belarria eta itxitura-giltza bat berreskuratu ziren.

Tiro bat jaso zuen kopeta-hezuraren ezkerreko partean, alde horretako begi-orbitaren gainean, eta jaurtigaia hezur okzipitalaren ezkerreko aldetik atera zen.

Identifikazio-prozesua

Hezur-laginak hartu ziren, genetikoki aztertzeko. Lagin horiek Gasteizko BIOMICs laborategira bidali ziren, Angel Antuñanoren senideei hartutako laginekin batera.

Hala, 1. gizabanakoa Angel Antuñano Salazar zela identifikatu ahal izan zen, Castricionesen jaioa (Burgos), 1900eko urriaren 2an. Kubara emigratu zuen, eta, bertan bizi izan zen. Hala ere, 1936ko udan bere jaioterrira itzuli zen. Dirudienez, bere egoera sozio-ekonomikoa ona zen, bere gorpuzkiekin batera berreskuratu diren objektu batzuetan ikus daitekeenez. Horren lekuko dira urrezko mahuka-bikiak edo zilarrezko gerriko pertsonalizatua, bai eta hortzetako konponketak eta zaintzak ere. Kuban bizi eta oparotasuna izan zuenez, eta, ziur aski, ideologia zabalagoa zuenez, altxamenduaren aldekoekin desadostasunak izan zituen.

Gerrikoaren belarrian grabatutako «A» hizkia bat dator bere jabearen izenaren lehen hizkiarekin.

Momentuz, ez dago elementu garbirik hobian ehortzitako beste pertsonaren nortasuna orientatu ahal izateko, baina Perex herriko (Burgos) bizilaguna zela baieztatu da.

Berriz ehortzeko prozesua

Angel Antuñano Salazarren hezur-hondarrak familiarri entregatu zitzaizkien.

Identifikatu gabeko pertsonaren gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2017ko urtarrilaren 30ean, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru izan zuen inaugurazio ekitaldian.




Txabolapeako pinudia 2 hobia

Kokapena: Txabolapeako pinudia, Legutio (Araba)

Biktimak: 1

Data: 2017ko martxoaren 25a



Aurrekariak

1936ko azaroaren 30ean Euzkadiko Gudarostearen eraso hasi zen Gasteiz hiria hartzeko asmoarekin, Legutioko bataila deitu zen hartan. Borrokak abenduaren 25era arte iraun zuen, baja ugari izan zirelarik. Egun horretatik aurrera, frontea egonkortu egin zen.

Xabier Argotek eta Jon Etxezarragak (azken hori Euskal Prospekzio Taldeko kide eta Aranzadiko kolaboratzailea) kartutxo-zorroaren material-hondarrak eta larru-zatiak aurkitu zituzten giza hezurren hondarrekin lotuta, Albertia mendirako igoeran, bidearen ertz batean. Lekua 630 metroko altueran zegoen. Aranzadiko teknikariek egiaztatu zuten aurkikuntza hura, 2016ko apirilean.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hezur-hondarrak 2017ko martxoaren 25ean atera zituzten. Esan bezala, hobia Albertia mendira igotzeko bidearen eskuinaldean zegoen, landaretzak estaltzen zuen pinudi batean. Distantzia gutxira zegoen pinu baten sustraien hazkunderak hezur-hondarrak lekuz mugitu zituen. Ondorioz, eskeletoaren zati batzuk falta ziren, beste batzuk aldatuta zeuden, edo hondatuta (artikulazioetako bat bera ere ez zegoen osorik). Hala ere, bertan

zeuden goiko eta beheko gorputz-adarretako hezurrak, koxalak, eskuineko oineko hezurak eta garezurraren hezur okzipitala. Bestalde, orno-arkuak eta saihetsen zati batzuk baino ez ziren kontserbatu.

Hezurren hondarrekin lotuta, tatxet-oinetakoen zolak eta hainbat munizio-kartutxo berreskuratu ziren.

Desobiratzea burutu zen egunean bertan egon ziren Legutioko alkatea, Nekane Garaigordobil, eta hainbat zinegotzi; Julen Arzuaga legebiltzarkidea, eta Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuko zuzendaria, bai eta Legutioko zenbait auzokide ere.

Identifikazio-prozesua

Albertia mendiko batailan hildako ugari egon ziren, eta ideologia ezberdineko batailloiak parte hartu zuten. Gainera, ez da identifikazio-lana orientatu ahal izateko elementurik aurkitu. Hau dela eta, ezin izan da gorpua identifikatu.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren 2018ko otsailaren 9an, Gogora Institutuak antolatutako ekitaldi instituzional batean.

San Pedro mendia hobia

Kokapena: San Pedro mendia, Amurrio (Araba)

Biktimak: 1

Data: 2018



Aurrekariak

2018an, EHUKo ikerketa taldeak, San Pedro mendian indusketa arkeologikoa egiten ari zela, giza garezur baten zati bat aurkitu zuen. Aurkitutako gorpuzkia Aranzadiko Antropologia Sailari helarazi zitzaion 2019an aztertua izan zedin.

Eremu honetan, 1937ko maiatzean matxinatutako armadaren erasoaren ondorioz, liskar handiak izan ziren.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Aurkikuntza isolatua da, San Pedro ermitaren (Amurrio) mendebaldean aurki daitezkeen lubakien industen testuinguruan topatu zena. Giza garezuraren

ezkerraldeko aurrealdeko bi garezur-kalota zati dira, heldu gazte bati dagozkionak.

Honekin batera, munizio-kutxa, balak eta zorroak aurkitu ziren.

Identifikazio-prozesua

Oraingoz, ez dago hezur-hondarrak identifikatu ahal izateko elementurik.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Aranzadi Zientzia Elkartearen laborategian daude.

BIZKAIA

T-100 leizeko hobia

Kokapena: T-100 leizea, Turtzioz (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2001eko abuztuaren 18a



Aurrekariak

Barakaldoko Esparta espeleologia-taldeko kide diren Andres Neila eta Jaime Ortizek 2001eko abuztuaren 18an giza eskeleto bat aurkitu zuten, osorik, Jorrios mendiguneko T-100 leizearen barruan, Turtzioz udalerrian. Talde horrek inguru horretan ikerketa espeleologikoak egiten zituen, duela urte askotatik.

2016ko apirilaren 1ean, hezur-hondarrak, eta hauei lotutako ebidentziak, Aranzadi Zientzia Elkartera eremanak izan ziren bertan aztertuak izan zitezen, bai eta aurkikuntzarekin lotutako beste dokumentu batzuk ere, zuloaren planoaren barne.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

T-100 leizea kontrabandisten bidean dago, La Cailleko kanala zeharkatzen duen bidea hartuta, eta Jorrioseko tontorra eskuinean utzita, larre-gunea lapiaz-gunetik bereizten duen alanbre-hesira iritsi arte. Alanbre-hesia pasatutakoan, bidea bat-batean igotzen hasten da, eta T-100 leizearen ondotik pasatzen da.

Putzuak diaklasa forma dauka. 2 bider 5 metroko ahoa eta 18 metroko sakonera dauka. Lurra higakinez beteta dago. Hezur-hondarrak leizearen sakonenean zeuden. Horien ondoan, larruzko bota batzuk zeuden, metalezko tatxet eta guzti. Milizianoen oinetako bereizgarriak ziren.

Eskeletoa ondo kontserbatuta zegoen. Gizonezko heldu baten gorpua dela ondorioztatzen da. Garezurrean, su-arma baten jaurtigaiaren sarrera-zuloaren mozketa ikus daiteke, ezkerreko aldeko ezkata tenporalaren eta hezur parietalaren artean. Ez da irteera-zuloa aurkitu.

Identifikazio-prozesua

Momentuz ez dago gorpuzkien identifikazioa bideratu dezakeen elementurik.

Berriz ehorzteko prozesua

Turtziozko T-100 leizetik ateratako gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Institutuak antolatutako ekitaldi instituzional batean.

Sabigain mendia

Kokapena: Sabigain mendia, Mañaria (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2003



Aurrekariak

Hilabete batzuk etenda egon ondoren, 1937. urteko apiril hasieran matxinatutako armadak erasoari berriro ekin zion Sabigain mendian, hilabete osoan zehar borroka gogorrak biziko zirelarik. Jose de Artechek bere *El abrazo de los muertos* liburuan, 95-97. orrialdeetan, deskribatzen du nola borrokan hildakoen gorpuetako asko ezin izan ziren jaso.

2003. urtean, Alfredo Irusta, Muskizko bizilaguna, Aranzadira joan zen Sabigain mendian ustekabeen aurkitutako hezurdura-arrasto batzuk entregatzera.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hezurren hondarrak partzialki lurperatuta zeuden, ondorio meteorologikoen eraginpean. Pertsona bakar batenak ziren, baina eskeletoa ez zegoen osorik. Eskuineko eta ezkerreko femurra, sakroa, ezkerreko kalkaneoa, eskuineko tibia eta diafisi-ezpalak aurkitu

ziren. Gizonezko heldu gazte baten gorpua zela ondorioztatu zen.

Hezurrekin batera, oinetako baten hondarrak berreskuratu ziren, metalezko tatxetez osatutako zola zutenak, soldaduen botetan ohikoa zena.

Ezkerreko femurrean haustura zehar bat zegoen, diafisiaren erdialdean, su-arma baten jaurtigaiaren inpaktuak sortutakoa, atzeko eta kanpoko aldean.

Identifikazio-prozesua

Momentuz ezin izan da zehaztu gorpuzkiak norenak diren.

Berriz ehorzteko prozesua

Hezur-hondarrak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan gorde ziren, 2017ko urtarrilaren 30ean Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela egindako ekitaldian.

Gantzabal mendia 1 hobia

Kokapena: Gantzabal mendia, Amorebieta-Etxano (Bizkaia)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2008ko uztailaren 26a



Eloy Bengoechea Lecuona (1907 Hondarribia, Gipuzkoa – 1937 Amorebieta-Etxano, Bizkaia) trenbi-deetako langilea, gudan hil zen 1937ko maiatzaren 9an. 2008ko uztailaren 26an bere gorpuzkiak lurpetik atera eta bere familiari eman zitzaizkion.

Aurrekariak

Alfredo Irustak, Muskizko bizilagunak, Aranzadi Zientzia Elkarteari jakinarazi zion bi miliziano zeudela lurperatuta Gantzabal mendian, “kota 333” izenez ezagutzen zen kokapeneko lubakitik hurbil. Aranzadiko hainbat kide joan ziren bertara, 2008ko apirilaren 30ean. Une hartan, hezur-hondarrak eta identifikazio-txapa bat aurkitu zituzten, azken hori 71.228 zenbakikoa. Zenbaki horri esker identifikatu ahal izan zen biktima, dokumentazioa-

ren bidez. Hala, bere senideak aurkitu eta haiekin harremanetan jarri ahal izan zen.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Gorpuzkiak 2008ko uztailaren 26 goizean zehar atera ziren hobitik, eta bertan izan ziren Juan Carlos eta Esther Bengoetxea, Eloy Bengoechea Lecuonaren bilobak.

Lursailak banatzen zituen harrizko hormatik (lubiaren parapetoa osatzen zuen hartatik) 150 zentimetrora, zentimetro gutxiko sakoneran zeuden hondarrak. Gorpuzkien kontserbazio-egoera eskasa zen, eta, ondorioz, azterketa antropologikoa mugatuta egon zen.

Hondarrekin lotuta, identifikazio-plakaz gain, hainbat objektu berreskuratu ziren beren jantzietatik: gerriko bat edo botoiak, esaterako. Halaber, janiarekin lotutako elementuak ere aurkitu ziren, lata-irekigailua edo koilara kasu, bai eta beste muni-zio-elementu batzuk ere.

Identifikazio-prozesua

Identifikazio-txapari esker, biktima identifikatu ahal izan zuten, eta haren senideak aurkitu.

Berriz ehorzteko prozesua

Eloy Bengoechearen gorpuzkiak bere senideei eman zizkieten ekitaldi pribatu batean.

Gantzabal mendia 2 hobia

Kokapena: Gantzabal mendia, Amorebieta-Etxano (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2011ko ekainaren 4n



Aurrekariak

Gernika bonbardatu eta tropak Agoitzen aurrera egin ondoren, frontea Autzagane eta Muniketa artean egonkortu zen. Gantzabal mendian 333. koto Arrindatik eraso zuten eta frankistek hartu zuten. Gaueko erasoetan, Euzkadiko Gudarostea maila berreskuratzen saiatu zen. Baja ugari gertatu ziren bi armadetan.

Gantzabal mendiaren hegalean egindako azaleko prospekzio batean, Euskal Prospekzio Taldeko Jon Etxezarragak munizioa eta giza hondakinak aurkitu zituen. Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Sailari eman zion aurkikuntzaren berri.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

2011ko ekainaren 4an, lehenengo aurkikuntzan le-pauztaia agertu zen leku bera ikuskatu zen eta gaz-

tainondo baten oinarrian loturarik gabeko hezur-hondarrak aurkitu ziren, azaleko sakoneran lurperatuta.

Era berean, ikusgai zegoen lubaki lerroa zulatu zen, baina ez zen giza hondakin gehiago aurkitu. Muniziozko orrazi bat eta Lebel motako bala bat aurkitu zituzten.

Identifikazio-prozesua

Oraingoz ez dago daturik gorpuzkiak identifikatzeko.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko (Gipuzkoa) Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren.

Lemoatx Pardomendi hobia

Kokapena: Lemoatx. Pardomendi Lemoa (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2011ko ekainaren 11



Aurrekariak

Lemoatxeko maldetan, 1937ko maiatzeko azken egunetan eta ekaineko lehen egunetan, borroka gogorak bizi izan ziren. Artilleria eta abiazio frankistaren etengabeko bonbardaketek baja ugari eragin zituzten. Zifra zehatzik egon ez arren, mila bat gudari eta miliziano hil zirela uste da. Mendi hau, Bilbo defendatzen zuen Burdin Hezia hurbil zegoenez, leku estrategiko bihurtu zen matxinatuentzat, baita Euzkadiko Gudarostearentzat ere.

Matxinatuen aldetik Nafarroa II Brigadak hartu zuen parte gudako pasarte honetan.

Euzkadiko Gudarosteari dagokionez, Simon Bolibar, Dragones, Rosa Luxemburgo, UGT 13. *"Rebelión de la Sal"*, Amuategui, osaturiko VI. Brigadak hartu zuten parte, baita Asturiaseko 225 eta 230 batailoia ere. Ekainaren 2an, IV. Brigadak ordezkatu zuen VI. Brigada, eta honek ere eraso gogorra jasan zuen. Ehunka hegazkinek erasotu zituzten hauen posizioak.

Lemoatx mendebaldeko hegalean detektagailuekin egindako prospekzio bati esker fusileria-munizioa eta uhal militarren hondarrak aurkitu ziren, giza-kien hondarrekin batera, oso azalean.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Zentimetro gutxiko sakoneran giza eskeleto bat zegoen mendiaren hegalean, lursail naturaleko harri batzuek inguratuta. 2011ko ekainaren 11n atera ziren gorpuzkiak hobitik.

Beraz, azaleko lurperatze bat zen. Hori dela eta, hondarrak kontserbazio-egoera txarrean zeuden. Izan ere, euri-uraren azidotasunaren eta landare-tza-estalkiaren sustraien eragina jasan zuten. Ondorioz, hezur guztiak azaletik selektiboki narriatuta zeuden, eta hezurren zatirik hauskorrenak falta ziren, besteak beste epifisia. Era berean, azpimarraztekoa da ornoak eta saihsak falta zirela. Hondar horiek guztiek kolore beltzakka zuten, ekintza tafonomikoaren ondorioz.

Beraz, gorpua ahoz gorako atzera ehortzi zela interpretatu zen, hankak gurutzatuta, ikus zitezkeen hezur-hondar urriak konexio anatomikoan bait zeuden, nahastuta egon barik.

Objektu pertsonalen artean larruzko gerrikoaren zati bat berreskuratu zen, 35 mm-ko zabalera zuena, belarri barik. Halaber, elementu balistiko ugari aurkitu ziren handik hurbil. Aurretik, uhalak, bi kar-tutxo-kaxa eta Euzkadiko Gudarosteko gerrikoko plaka bat berreskuratu ziren.

Identifikazio-prozesua

Ezin izan da pertsona identifikatu. Gorpuzkien DNaren analisia egin da, baina ez dago alderatzeko orientaziorik.

Berriz ehorzteko prozesua

Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioan lurperatu zituzten gorpuzkiak, 2017ko urtarrilaren 30ean, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldi instituzionalan, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Galdames hobia

Kokapena: Sallortun auzoa, Galdames, (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2013ko urriaren 25a



Aurrekariak

Altzatutako armadak Bilbo hartu ostean, 1937ko ekainaren 19an, Euzkadiko Gudarostearen indarrek, Asturiasko eta Kantabriako hainbat brigadarekin batera, mendebalderantz jo zuten, Santander noranzkoan. Armada kolpistaren presioaren ondorioz, eta aireko estaldura sendoa tartean, egun gutxitan Bizkaiko lurraldea frankisten esku geratu zen. Barbadún ibaia, Galdames eta Muskiztik pasatzean, fronte-lerro bilakatu zen 1937ko ekaineko azken egunetan. Tropa frankistek, aireko babesarekin, lerro hori hautsi zuten. Mendebalderantz igo ziren Montellano auzotik (Galdames), eta Asturiasko miliziano-talde bat hartu zuten La Beriguera erreka-ertetik hurbil. Bertan lurperatu zituzten, bi hobi komunetan, 13 miliziano inguru. Ez dakigu horiek borrokan ondorioz hil ziren, edo hartu ondoren fusilatu zituzten. Lekua Sallortun-El Avellanal auzotik hurbil dago (Galdames), udalerrri hori Muskizekin lotzen zuen bide zaharraren ondoan.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hobia malda handiko baso-lursail batean kokatzen zen, haran txikiaren sakonetik hurbil, 30 zentimetroko sakoneran. Humus ugari zuen lursail buztintsu batean landaretzaz bete-beteta zegoen lekua.

Gorpua ahoz gorako etzanera zegoen, burua eskuinerantz eta hankak bereizita. Ezkerreko besoak prospekzioan egindako zundaketen eragina jasan zuen, partzialki. Beso hori gorpua-eraren paraleloan zegoen. Hondarren kontserbazio-egoera eskasa zen, hezuraren disgregazio-prozesu tafonomikoaren ondorioz. Izan ere, lursaila azidoa da, eta euriaren urak eta errepede aldeko isurketak eragina izan zuten.

Gizonezko heldu gazte baten gorpua dirudi, 30 urte ingurukoa. Patologiaren ikuspegitik, ezkerreko humeroan zati anitzeko haustura diafisarioa da nabarmenena, bertan metraila baten zati metaliko bat aurkitu baitzen. Era berean, heriotzarekin lotutako hausturak zituen eskuineko bederatzigarren eta hamargarren saihetsetan. Ondorioz, pentsatzekoa

da trauma eta zauriak jasan zituela aireko bonba edo mortero baten leherketaren kariz, eta, beraz, horiek borrokalari horren heriotza eragin zutela.

Lotutako objektuen artean katilu metaliko bat berreskuratu zen, zulo bat zuena, seguru asko su-arma baten edo metraila baten jaurtigaia egindakoa.

2016an, Euskal Prospekzio Taldeak prospekzio bat egin zuen, hautemate elektromagnetikoko ekipamenduen bidez, Montellano auzotik gertu beste lurperatze baten kokapena aurkitzeko. Auzokide batek azaldu zien Asturiasko sanitario militar baten gorpua ehortzi zela baso-bidetik paralelo zihoan lubakian, bonbardaketa baten ondorioz hil zenean. Beraz, auzokidearen informazioari jarraikiz ailegatu ziren kokapenera. Apirilaren 26an egindako prospekzioetan ez zuten arrakastarik izan, eta ezin izan zuten lurpe-

ratzea aurkitu. Hala ere, Lebel munizioa eta espole-tak berreskuratu ahal izan zituzten inguruan.

Identifikazio-prozesua

Ez dago identifikazio-orientazioa ahalbidetzen duen daturik.

Berriz ehortzeko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren 2017ko urtarrilaren 30ean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, Gogorak, antolatutako ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.




Lemoatx II Luminabaso hobia

Kokapena: Lemoatx, Luminabaso, Lemoa (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2013ko uztailaren 11



Aurrekariak

Galdakao Gogora elkarteak emandako informazioari esker (Lemoako Gotzon Linazari jasotako testigantza bidez jaso zuten informazio hori), jakin genuen hobi batean bi borrokalari lurperatuta egon zitezkeela.

Hala, aztarna guztien arabera, baso-pista handitze-ko lanek inguru hori guztia eraldatu zuten, eta, ziur aski, hobia hondatu zuten.

Hala ere, aurkikuntza urri horiek (bala eta humeroa) agerian uzten dute inguru hartan hobi bat egon zela, informazioa eman zuenak aipatu zuen bezala.

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

2013ko uztailaren 11n, Aranzadi Elkarteko kide den Jimi Jimenezen zuzendaritza pean, bilaketa-lanak egin ziren hobi hartan. Luminabaso parajearen zegoen, FCC enpresaren lursailetan, Lemoa udalerrian (Bizkaia). Lekua Linaza familiaren antzinako jabetza batean zegoen, Hilan lekua izendatu zutena.

Leku horretako ezpona inguruan hasi ziren bilaketak, bitarteko mekanikoak baliatuta. 14 metro luze-ko eta 3 metro zabaleko zundaketa egin zen. Fusil baten bala (7,92 mm-ko kalibrea) eta humeroaren diafisi bat (bi zatitan banatuta, eta lekuz kanpo) baino ez ziren aurkitu.

Identifikazio-prozesua

Ezin izan da zehaztu hobotik ateratako gorpuzkiak norenak diren.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2017ko urtarrilaren 30ean, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Urduñako hilerria

Kokapena: Urduñako hilerria, Urduña (Bizkaia)

Biktimak: 14

Data: 2014ko abuztuaren 30a eta 31a



Aurrekariak

Armada frankistaren eskutik, Urduñako Jesuiten Ikastetxea (Bizkaia) milaka borrokalari errepublikazalaren kontzentrazio-esparru bilakatu zen, bereziki 1937ko ekainetik aurrera. 1939ko urrian, kontzentrazio-esparru hau espetxe nagusi bihurtu zen, 1941eko udan behin betiko itxi zen arte. Urte hauek estatuko beste kartzela eta kontzentrazio-esparru batzuetako preso ugari ekarri zituzten Urduñara, batik bat Castueratik (Badajoz).

Higiene, elikadura eta osasungarritasuneko baldintzak txarrak ziren espetxean, eta, ondorioz, presoen artean heriotza-tasa altuak egon ziren. 1939an eta 1941ean, berrehun pertsona inguru hil ziren espetxe hartan, eta herriko kanposantuan lurperatu ziren. Hildakoen ehuneko altu bat Extremaduratik zetoarren (zehazki, Badajozetik), baita Ciudad Real eta Malagatik ere.

Urduñako Udalak eskatuta, kanposantuko gunek batean gorpuzkiak ateratzeko lanak egin ziren, hildako presoen ehorzketarik ba ote zegoen berresteko.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Sarbidearen eskuineko aldeko korridorean zeuden hobiak, bi nitxo-lerroren artean: bat kanpoko horman eta bestea barruan. Hobiak lerrokatuta zeuden, bi lerro paralelotan, 14,60 metro luzetan. Zazpi hilobi deskubritu ziren lerroetako bakoitzean, eta, beraz, guztira hamalau hobitik atera ziren gorpuzkiak.

Hilobiak banakakoak ziren. Denak zeuden pinu-egurrezko hilkutxatan ehortzita, barrualdean, ahoz gorako etzanera, besoak toraxaren eta abdominaletakoz zuloaren gainean tolestuta. Beheko gorpuzki-adarrak paraleloan luzatuta, kasu batean izan ezik (3. pertsona): azken horrek gorpuzki-adarrak tolestuta zituen, ziur aski zuzen egoteko lekurik ez zegoelako.

Denak ziren gizonezko helduak: hiru heldu gazte, lau heldu nagusi, eta zehaztasun handirik gabeko zazpi heldu.

Lotutako objektuen aniztasuna eta kopurua oso mugatua izan zen. Arropako elementuak ziren, besteak

gerrikoen belarriak eta gerrikoak, alkandora edo praketako botoiak eta arkatz-minak. Aparteko aurikuntzak ere egin ziren: urrezko erantzun bat, aliantza itxurakoa, 12. gizabanakoaren eskuineko esku-ko laugarren atzamarrean; zeramikazko joko baten fitxa, 3. pertsonaren eskuineko koxalaren ondoan; edo desagertu zen dokumentu edo argazki baten plastikozko zorroak, 6. gizabanakoaren ondoan.

Identifikazio-prozesua

Gorpuen nortasuna identifikatzeko aukerak murriztak dira. Izan ere, ez da aurkitu dokumentazio edo erregistrorik, heriotzak lurperatze-lekuarekin lotu ahal izateko.

Berriz ehortzeko prozesua

Hondarrak Urduñan eraikiko den kolunbarioan ehortziko dira.

Lemoatx 2014 hobia

Kokapena: Lemoatx, Lemoa (Bizkaia)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2014ko urriaren 26a



Hilario Blanco Reguero



Hilario Blanco Reguero (1919 Bilbo, Bizkaia -1937 Lemoa, Bizkaia) Gallartako bizilaguna. Gerra Zibilean 28 UGT-13 «Barakaldo/Martinez Aragon» Batailoiko kide zen eta 1937ko ekainaren 3tik 5era Lemoatxen hil zela uste da. Haren gorpuzkiak ustekabean aurkitu zituzten Pardomendin edo Gantzabalen (Lemoa, Bizkaia), 2014ko urriaren 25ean, eta egun bat geroago hobotik atera zituzten.

Aurrekariak

Euskal Prospekzio Taldeko kide batek 2011n han inguruan induskatu zen hobotik gertu objektu metaliko bat aurkitu zuen, Euzkadiko Gudarosteko gerriko baten belarria zena, bai eta bi kartutxo-kaxa ere, giza hezurren hondarren ondoan.

Lemoatxen, 1937ko maiatzaren amaieran, Nafarroako 2. Brigadak eraso hasi zuen hura defendatzen zuen IV. Euskal Brigadaren aurka. Leizea berreskuratzeko kontraerasoak ekainaren 1ean izan ziren. Hurrengo egunetan, VI. Brigada, Jaime Urkijoren agindu pean, leizea hartzen saiatu zen, Rosa Luxemburgo batailoia, Amuategui batailoia,

Rebelión de la Sal batailoia, Dragones batailoia eta Barakaldo batailoia lagun. Nahiz eta 3. egunean Lemoatx hartu zuten, hurrengo egunetan abiazio eta artilleria frankistaren eraso etengabeek ez zieten utzi posizio horri eusten.

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

2014ko urriaren 26an, hobotik gorpuzkiak atera ziren. Hobia oso azalean zegoen, pinu baten oinean, elkarren gainean jarritako hainbat harrik mugatzen zuten eta terrazak eratzen zituen gunen batean. Inprobisatutako lurperatze bat zirudien.

Gorpua ahoz gorako etzanera zegoen, beheko gorputz-adarrak bere eskuinaldera tolestuta. Ezkerreko besoa gorantz tolestuta zuen, eta eskuineko besoa luzatuta, eskua koxalaren gainean. Burua albo baterantz biratuta zeukan, eskuineko erdiaren gainean. Kontserbazio-egoera nahiko ona zen, baina ezegonkorra. Izan ere, toraxaren ingurua oso narriatuta eta berreskuratzeko zail zegoen. Ikuspegi antropologikotik begiratuta, gizonezko heldu gazte bat zen.

Berreskuratutako objektuen kopurua eta aniztasuna nabarmenak izan dira eragiketa honetan. Jantziarekin lotutako elementuak aurkitu ziren, besteak beste Euzkadiko Gudarosteko plaka zeraman gerrikoa, uhalak, bi kartutxo-kaxa aurreko aldean, fusilariaren bereizgarri, granada bat eta oinetakoak. Gainera, abdominalen zuloan hainbat objektu zeuden, beharbada zorroan edo zakuan gordeta egongo zirenak: bizarra kentzeko bi makina, bizarra kentzeko xafla, bi alpargata-zola, luma estilografiko bat eta labana bat. Berreskuratutako objektuen artean nabarmentzekoa da, bere garrantziagatik,

ezkerreko eskuan zuen eskumuturrekoa, bertatik eskegita baitzuen 72865 zenbakia zeraman identifikazio-plaka.

1937ko ekainaren 3tik 5era bitartean hil ahal izan zen, Lemoatxen tropa frankisten kontraerasoa gertatu zenean.

Identifikazio-prozesua

Aranzadi taldeko kideek Bilbon dagoen Euskadiko Artxibo Historikoan egin zuten kontsulta, identifikazio-plakaren zenbakia aurkitu, eta, beraz, zein pertsonari zegokion jakiteko. Hala jakin zen 72865 zenbakia **Hilario Blanco Reguerorekin** lotuta zegoela. Barakaldon jaio zen bera, eta 28. Batailoi Sozialistako edo Bon Barakaldoko milizianoa zen.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkia familiari entregatu zitzaion.

Bolunburu

Kokapena: Bolunburu, Larrabetzu (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2014ko urria



Aurrekariak

2014ko urrian, Roberto Bertolek, Larrabetzuko bizilaguna eta Karraderan Elkarteko kidea, bertan urtero egiten den mendi lasterketarako aukeraturako ibilbidearen zati bat egokitzeko belar-sastrykak garbitzeko lanak egiten ari zela, Bilboko Burdin Hesian, 1936 eta 1937 artean, egindako meategi bateko galeria aurkitu zuen. Barruan, burezur baten arrasto bat aurkitu zuen.

bederatzi bat metrora. Burezurra aurkitu zen eremua ikuskatu zen, baina ez zen beste hezurrik edo elementurik aurkitu. Bere jatorrizko testuingurutik aldendutako burezur bat zela interpretatu zen, beharbada kanpoko beste toki batetik babeslekura eramana izan zena.

Aurkitutako burezurra gizonezko batena da.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Galeria-babeslekua Ametzua izeneko eremuan dago, maldan dago, eta gaur egun landaretza lodi batek estaltzen du. Babeslekuaren oinplanoak "E" forma du, eremu horretan dauden beste babesleku askoren antzera. Gaur egun, izan zituen hiru sarbideetako bi sedimentuz beteta daude, eta erdiko sarbidea baino ez dago erabiltzeko moduan. Hezur zatia barrualdean errekuiperatu zen, kanpoaldetik

Identifikazio-prozesua

Oraingoz ez dago gorpuzkiaren identifikazioa bideratzeko datu nahikorik.

Berriz ehorzteko prozesua

Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren gorpuzkiak, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.

Mendata hobia

Kokapena: Marmiz auzoa, Mendata (Bizkaia)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2015eko abuztuaren 26a eta 27a



Pedro Uriguen Perea



Pedro Uriguen Perea (1915 Amorebieta-Etxano, Bizkaia- 1937 Mendata, Bizkaia) "Otxandiano" 37. batailoiko gudaria zen. 1937ko apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren ondoren, bere batailoia erretiratzen ari zela, Marmizeko Goiti 22 baserrian babesa bilatu zuela uste da. Han, matxinatutako tropek atxilotu eta 1937ko apirilaren 27an hil zuten. Baserriaren jabeek bere gorpua bide ondoko zuhaitz baten ondoan lurperatu zuten.

Aurrekariak

1937ko apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren ondoren, Otxandiano batailoia nazionalistatik tropak erretiratzean, soldadu zauritu bat atzeman eta hil zuten soldadu frankistek Mendatan (Bizkaia).

Larrabetzuko (Bizkaia) Karradera taldeak egindako ikerketen bidez jakin zen Alaio auzoko bizilagun batek, Vicente Larruceak, ezagutzen zuela borrokalari hori non lurperatu zuten, Mendatako Marmiz baserritik gertu. Lurperatu zutenek nor zen jakin ahal izan zuten, eta bere familiari jakinarazi zioten auzo-

ko apaizaren bidez, eta dokumentazioa Amorebietan-Etxanoko komentu batera bidali zuten. Komentu horretan gudariaren bi anaia bizi ziren. Hildakoa Pedro Uriguen Perea gaztea zen, 22 urte zituela hil zena. Senitartekoek gurutze bat jarri zuten gaztearen irudiarekin, eta oroitzapenari eutsi zioten urtero egiten zituzten lore-eskaintzekin, haren heriotzaren urteurrenetik gertu.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Familiak eta Mendatako alkateak hala eskatuta, lurperatzea aurkitu zen, eta 2015eko abuztuan, hezurren hondarrak atera ziren. Bertan izan ziren hildakoaren senideak eta Aitor Esteban legebiltzarkidea.

Lekukotzetan jasotakoaren arabera, gorpua ezpondaren kontra zegoen, partzialki lurperatuta. Ondorioz, kontserbazio-egoera eskasa zuen.

Gorpua ahoz gorako etzanera zegoen, apur bat alboz, eta ezpondan bermatuta. Eskuineko besoa toraxaren gainean tolestuta eta beheko gorputz-adarrak paraleloan luzatuta zituen. Garezurra oso zatituta zegoen, eta deshidratazio-maila altua zuen. Horrek, era berean, esfoliazioa eragiten zuen.

Hezurren hondarren kontserbazioa ezegonkorra zen. Bi humeroen diafisia, kubituaren erdialdea eta eskuineko erradioak berreskuratu ziren. Halaber, bi femurren eta eskuineko tibia eta peronearen diafisiak berreskuratu ziren. Ondorioz, eskuineko saihetsetako hezurak egoera hobean kontserbatu dira.

Arropetan, jaka edo beroki bateko bakelita beltzezko hiru botoi berreskuratu ziren, bai eta jertse baten

artilezko ehuna ere. Torax inguruan eta eskuineko besaurrearen azpian, hainbat objektu aurkitu ziren, ziur aski zaku edo zorro baten barruan eramango zituenak; sardexka eta koilaraz osatutako sorta (artazi forman), alpakazkoa, 15 zentimetro luze eta 4,2 zentimetro zabalekoa; bi munizio-kargagailu oso, eta lau jaurtigai solte.

Identifikazio-prozesua

Senideen DNA laginak Euskal Herriko Unibertsitateko BIOMICS laborategira bidali ziren, hezurren DNA-rekin konparatzea egiteko. Emaitzak senideen eta hezurren arteko ahaidetasun-harremana ezartzen zuen. Beraz, hezurak Pedro Uriguen Perearenak ziren.

Hala, berretsi egin zen Vicente Larrucea Larrabetzuko Alaio auzoko bizilagunak emandako testigantzaaren kontakizuna, eta Goiti baserriko jabeek eta familiak ezagutzen zuten ehorzketaren kokapena egiaztatu zen. Batzuek zein besteek lekua gorde dute, gurutze batez seinaleztatua, eta urte hauetan guztietan haren heriotzaren eta ehorzketa-lekua- ren oroitzapenari eutsi diote.

Berriz ehorzteko prozesua

2016ko maiatzaren 8an, Mendatako Udalaren egoitzan, senideei hondarrak emateko ekitaldia egin zen, eta hildako gudariei omenaldia eta aitortza eman zitzairen. Bertan egon ziren Josu Erkoreka, Justiziako sailburua; Monica Hernando, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria; eta Joseba Maella, Mendatako alkatea.

Markina hobia

Kokapena: Markina (Bizkaia)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2015eko abenduaren 28a



Jose Sagarna Uriarte



Jose Sagarna Uriarte (1911 Zeanuri, Bizkaia – 1936 Markina, Bizkaia) Zeanurin (Bizkaia) jaio zen. 1935eko ekainean apaiztu zen eta Amalloa-Larruskaingo San Inazio elizako adjutore izendatu zuten. 1936ko urriaren 20an fusilatu zuten Amalloan.

Aurrekariak

Hainbat ikerlarik egin dituzte ikerketak Euskal Herrian 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarren ondorioz sortu ziren krimenei buruz. Ikerketa horien arabera, jakina da Jose Sagarna Uriarte apaiza, Zeanurikoa eta 24 urtekoa, Berriatuko lagunkidea, Amalloan fusilatu zutela, 1936ko urriaren 20an. Bere gorpuzkiak Markinako hilerrian hobiratu ziren.

Hainbat dira hau egiaztatzen duten ikerketa historikoak, batik bat, Euskal Herrian frankismoaren biktimen gainean egindako lehen zerrendak, Euzkadi *bajo el régimen de Franco* izenburua duena (III. Bolumena), *“La represión en Vizcaya”*, Sancho de Beurko 1939 artxiboa.

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

2015eko abenduaren 28an, Markinako Larruskaingo hilerriko hilobi batean lurperatutako gorpuzkiak hobotik atera zituzten. Prozesu horretan egon ziren Jose Sagarna apaizaren ilobak.

Kanposantuko ezkerreko lerroan zegoen hilobi batean egin zen esku-hartzea. Bertan, marmol beltzean, honako testua grabatuta daukan estela bat zegoen: “SAGARNA ETA URIARTE TAR JOSE. ABADEA. ZEANURIN JAIO ETA 1936 KO URRIAREN 20 AN 24 URTE BAZALA HIL EBEN LARRUSKAINEN AMULATEGIKO BASERRIAN”.

Berriz ehorzteko prozesua

Jose Sagarnaren gorpuzkia Zeanuri kanposantura eramán, eta bertan ehortzi ziren, 2015eko abenduaren 29an.

Urkulu 1 hobia

Kokapena: Urkulu mendia, Larrabetzu (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2016ko urtarrilaren 2a



Aurrekariak

Euskal Prospekzio Taldeko Alberto Sampedrok bilaketa- eta prospekzio-lanak egin zituen Urkulu mendia-aren hegalean, detektagailuak erabilita, mendian lehentxeago zuhaitzak moztu zituztela eta lurzorua mugituta zegoela aprobetxatuta. Hala deskubritu zituzten hainbat hezur-hondar, munizio-elementuekin batera, mendia-aren hegalean.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hondar urri batzuk aurkitu ziren Urkulu mendiko aldapa handiko inguru batean, hainbat harkaitzen artean. Zuten itxuragatik, hipotesi nagusia zera da: gorpua hegaletik behera erori zela eta harkaitzean geratu zela. Deskonposizioaren eta usteltzearen ondorioz, hilotzaren zatiak bereizita zeuden. Kontserbatu ziren hondarrak maldako laugune txiki batean geratu ziren: gorpuaren goiko herena, garezurra, gerri eskapularra, saihetsak eta goiko gorpuzki-adarrak. Garezurra albo baterantz zegoen, ezkerreko aldearen eta toraxaren gainean.

Antropologiaren ikuspegitik, hezur-hondarrak gizonezko heldu gazte batenak ziren, 18 eta 20 urte artekoak. Izan ere, hezur luzeen epifisia, gandor ilia-koa eta klabikulak soldatu gabe zeuden.

Ezkerreko eskuaren ondoan, kargagailua berreskuratu zen, eta ezkerreko besoaren ondoan, uhalak. Handik hurbil, bi munizio-kargagailu eta hainbat kartutxo aurkitu ziren, zirindola metaliko baten ondoan.

Arazadi Zientzia Elkarteko eta Euskal Prospekzio Taldeko kideez gain, elkarlanean aritu ziren, gorpuzkiak ateratzeko eta lurra bahetzeko lanetan, Larrabetzuko Karraderan elkarteko kideak ere.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko orduan bertan egon ziren: Monica Hernando, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria; eta Iñigo Gaztelu, Larrabetzuko alkatea.

Identifikazio-prozesua

Ez dago datu edo elementurik, pertsona horren nor-tasuna orientatu ahal izateko.

Berriz ehorzteko prozesua

Hezur-hondarrak Elgoibarreko Duintasunaren Kolanbarioan ehortzi ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.

Urkulu 2 hobia

Kokapena: Urkulu Mendia. Larrabetzu (Bizkaia)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2016ko urtarrilaren 16a



Ramon Portilla Acedo



Ramon Portilla Acedo (1918 Abanto Zierbena, Bizkaia - 1937 Larrabetzu, Bizkaia) Gerra garaian CNT-ko 30 Celta Batailoiairen Hirugarren Konpainiari atxikita zegoen. Haren gorpuzkiak 2016ko urtarrilean aurkitu zituzten, eta hiru egun geroago atera zituzten hobotik.

Aurrekariak

2016ko urtarrilaren 13an, Sergio Mondinak Urkulu mendian (Gamiz-Fika, Morga eta Larrabetzu udalerrien artean) prospekzio bat egin zuen, eta, bertan, hegoaldeko hegalean, giza hondar batzuk aurkitu zituen. Aurkikuntza horren berri eman zien Ertzaintzari eta Aranzadi Zientzia Elkarteari. Erakunde horretako teknikariak ingurua aztertzen ari ziren, eta, beraz, aurkikuntza berretsi ahal izan zuten. Hala-ber, horren berri eman zioten Ertzaintzako agenteei, Polizia Judizialaren lanak egiten bertaratu baitziren, eta bertan ziren bi auzitegi-medikuei.

Hondarrekin batera, hainbat objektu metaliko aurkitu ziren: txanponak zituen zorro bat, bizarra mozteko makinaren heldulekua, eta identifikazio-txapa bat, zeinak bere zenbakia baitzuen grabatuta (**64160**).

Hondarrak hobotik atera aurreko egunean, plakaren zenbakiarekin bat zetorren pertsonaren izena jakin ahal izan zen. **Ramon Portilla Acedo** zen, eta CNTko CELTA batailoiko (30. zenbakia) hirugarren konpainiara atxikita zegoen. Datu horiekin, bere senideekin harremanak jarri ziren, eta, hala, gorpuzkiak ateratzeko unean bertan egon ahal izan ziren.

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

Gernikako Instrukzioko 1. Epaitegiarekin eta Ertzain-etxearekin adostu zen bezala, urtarrilaren 16an atera ziren gorpuzkiak hobotik.

Eragiketa hartan parte hartu zuten Larrabetzuko Karraderan Elkarteko kideek, Euskal Prospekzio

Taldeko kideek eta Aranzadi Elkarteko Antropologia Saileko kideek. Bertan egon ziren, era berean, Ramon Portilla borrokalariaren senideak.

Hondarrak atera ziren egunean, bertan izan ziren, era berean, arduradun politikoak, besteak beste: Josu Erkoreka, Justiziako sailburua eta Eusko Jaur-laritzaren bozeramailea; Monica Hernando, Eusko Jaur-laritzako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaria; Iñigo Gaztelu, Larrabetzuko alkatea; Juan M^a Atutxa, Sabino Arana Fundazioko burua, eta CNTko hainbat afiliatu, Ramon Portillaren batailoia sindikatu horretakoa baitzen.

Hondarrak Urkulu mendiaren hegoaldeko hegalean zeuden, plataforma batean, mendiaren gailurretik 10 metro ingurura, harriz osatutako erlaitz batean. Harri horien artean harrapatuta geratu zen gorpua. Lurperatzea oso azalekoa zen, lurraren eta landaretzaren estalkia 25 zentimetro baino gutxiagokoa baitzen.

Ahoz gorako etzanera zegoen, beheko eskuineko gorputz-adarra tolestuta eta maldan igota, eta eskuineko basoa irekita. Hezur-hondarrak oso narriatuta zeuden, euri-uraren eta sustraiei ondoriozko fenomeno tafonomikoen kariz. Bestalde, eskeletoaren zati batzuk falta ziren, animali sarraskijaleen ekintzagatik, edo gorpua deskonposatu bitartean hainbat zati askatu egin zirelako, malda handiaren ondorioz.

Hainbat objektu berreskuratu ziren hondarrekin batera: Euzkadiko Gudarostearen plaka-belarria,

kautxuzko gerrikoa, belarria, larruzko uhalak, jaka bateko hiru botoi, 1937ko Euzkadiko Gobernuak 2 pezetako sei txanpon zituen zorroa, bizarra mozteko makinaren heldulekua, kartutxo-kaxa, biderkatzaileria, 8 mm-ko diametroa zuen zorroa, eta kontserba-lata baten zatia. Objekturik esanguratsuena, lehen ere adierazi den bezala, identifikazio-plaka izan zen.

Identifikazio-prozesua

Plaka metaliko zirkularraren modeloko identifikazio-txapa bat zen, zulo bikoitza zuena, eta larruzko uhal batera lotuta zihoana, eskumuturrean eramateko. Txapan zenbakia zegoen grabatuta: **64160**. Euskal Prospekzio Taldeko kideak kontsulta egin zuten gudularien nominen liburuetan, eta zenbaki hori 1937ko maiatzeko lehen hamabostaldiko nominen zerrendan zegoela aurkitu zuten. **Ramon Portilla Acedori** zegokion, CNTko 30 CELTA edo 6. zenbakiko batailoikoa bera.

Berriz ehorzteko prozesua

Ramon Portilla Acedoren gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak 2018ko otsailaren 9an antolatutako ekitaldi instituzional batean.

Legina hobia

Kokapena: Legina, Larrabetzu (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2016ko urtarrilaren 24a



Aurrekariak

Larrabetzuko Karraderan Elkarteko kideek Legina (Larrabetzu) baserri batean hobi bat egon zitekeela jakinarazi zuten, herritarrek hala jakinarazi baitzieten.

Joseba Etxebarriak jakinarazi zuenez, 1937an bere osaba zen Periko Etxebarriak borrokalari baten gorpua aurkitu zuen bide zaharrean, eta bidezidorreko ezpondaren ondoan bertan lurperatu zuten. Tokia urtero berritzen zuten gurutze batekin seinaleztatuta egon zen.

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

Hobia bidearen ondoan zegoen, ezpondaren oinarrian. Baserriko auzokideek jakinarazi zuten bezala, gorpua bidean bertan aurkitu zuten, eta handik hurbil ehorztea erabaki zuten, lursailaren ertzean.

Gorpuzkiak ateratzeko eragiketean, honako hauek egon ziren: Monica Hernando, Bakearen eta Bizikidetzaren zuzendaria; Aitor Esteban, legebiltzarkidea; eta Iñigo Gaztelu, Larrabetzuko alkatea. Era berean, Joseba Etxebarria eta Legina baserriaren jabea ere bertaratu ziren.

2 metro luze eta 0,60 milimetro zabal zituen luzetarako hobi indibidual bat zen, gorputzera egokitua. Eskeletoa ahoz beherako etzanera zegoen, beheko gorputz-adarrak paraleloan luzatuta. Hezurak berreskuratzea oso zaila izan zen. Izan ere, narriadura tafonomiko handia zuten, ingurua askotan egoten baita urez gainezka eta bideko isurketa-ura bertan metatzen baita. Garezurra, koxalak eta beheko gorputz-adarretako hezurak soilik ikusi eta berreskuratu ahal ziren, bai eta ezkerreko eta eskuineko humeroa ere. Toraxeko hezurak ezin ziren antzeman.

Jantziarekin lotutako objektuen artean beroki baten hiru botoi beltz aurkitu ziren, bai eta botoi metaliko bat ere praken bragetako inguru pelbikoan. Era berean, 8 bider 50 mm-ko Lebel kartutxo bat berreskuratu zen.

Gizonezko heldu batena zen, konstituzioz sendoa. Neurokrania eta goiko masaleizurreko bi zati (hainbat hortzekin) geratzen ziren. Goiko ezkerreko letaginak inpaktu bat zuen ahosabai-hezurrean, eta ez zuen erupziorik sortu.

Identifikazio-prozesua

Ez dago datu edo erreferentziarik identifikazioa orientatu ahal izateko.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.



Zelaietaburu hobia

Kokapena: Zelaietaburu, Etxebarria (Bizkaia)

Biktimak: 3

Data: 2016ko martxoaren 5a eta 17a



Aurrekariak

Zelaietaburuko baserrietako (Etxebarria, Bizkaia) hainbat auzokidek emandako informazioaren arabera jakin ahal izan zen ondoko mendiaren goiko aldean hainbat soldatu omen zeudela lurperatuta. Markinako *Ahaztuen Oroimena* eta Elgoibarko *Elgoibar 1936* taldeko kideek azterketa-lanak egin zituzten bertan.

Inguru hartan, izan ere Euzkadiko Gudarosteko soldaduek posizioak defendatu zituzten, 1937ko apirilean, hilabetez geldik egon ondoren, tropa frankistak aurrera egiten hasi zirenean. Tropa matxinatuak Elgoibarren, San Miguel ermita eta Ziar-damendi ingurua hartu ondoren, Zelaietaburuko zaintza-postu hori bilakatu zen Euzkadiko Gudarosteko hurrengo defentsa-posizioa.

Ondorioz, informazioa eman zutenek aipatzen zuten lubakia aurkitu nahi zen, prospekzio zehatz baten bidez. Horretarako, pinudian sasiak garbitu beharko ziren, eta jaurtigaia eta elementu metalikoak aurkitu, lubakia non zegoen jakin ahal izateko. Lubakia mendiaren goiko aldean zegoen, haranean ikusgarritasun handiena zuen tokian. Bertatik, erasoan zegoen armada frankistaren mugimenduak kontrolatzen ziren. Lubakia garbitzeko prozesuan, giza hezurren hondarrak aurkitu ziren.

Ondorioz, aurkikuntza horren berri eman zitzaion Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Sailari, gorpuzkiak hobitik ateratzeko.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Esku-hartze arkeologikoa 2016ko martxoaren 5ean eta 17an egin zen, eta, bertan, Ahaztuen Oroimena, Elgoibar 1936 eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek parte hartu zuten. Eusko Jaurlaritzako agintariak eta hainbat alderdi politikotako ordezkariak ere egon ziren, besteak beste: Josu Erkoreka, Justiziako sailburua eta Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea; Monica Hernando, Bakearen eta Bizikidetzaren Saileko Memoria Historikoaren eta Giza Eskubideen zuzendaria; Jesus Iriondo, Etxebarriko alkatea; eta Julen Arzuaga, EH Bilduko legebiltzarkidea. Bertan egon ziren, era berean, Luis Ortiz Alfau, Euzkadiko Gudarosteko milizianoa, eta Arnaldo Otegi, ordezkari politikoa.

Hobiak 24 metro luzeko lubaki batean zeuden, Zelaietaburuko goiko aldean. Lubakiaren muturretako batetik 10 metroko distantzian, giza hezurren hondarrak aurkitu ziren. 1. gizabanako gisa identifikatutako gorpuari egotziko litzaieke.

1. gizabanakoa: Ahoz gorako etzanera zegoen, beheko gorputz-adarrak paraleloan luzatuta. Ezkerreko besoa apur bat tolestuta eta eskua abdominaletako zuloan, eskuineko eskua toraxean zehar luzatuta. Burua albo baterantz zuen, ezkerreko erdiaren gainean bermatuta. Bere kontserbazio-maila ez zen oso ona, agente tafonomikoen ondorioz. Hondarrak oso narriatuta eta aldatuta zeuden.

Ziur aski, heldu nagusi baten gorpua zen, 40 urtetik gorakoa, goiko arkuan hortzak galduta baititu. Goiko masailezurretik goiko protesi partzial bat (mugigarria) berreskuratu da.

2. gizabanakoa: Ahoz gorako etzanera jarrita. Ura-
ren, sustrairen eta lurzorua-
ren azidotasunaren ondorio handiak zituen. Hezur-
rak oso partzialki kontserbatzen ziren, hezur-
bilbea galduta. Eskeletoko hezur batzuk baino ez ziren berreskuratu. Gizonez-
ko heldu baten gorpua dela ondorioztatzen da.

Hezurren hondar horiekin lotuta, eskuineko aldean honako hauek berreskuratu ziren:

- Zeluloidezko hortzetako eskuila hori eta gardena, jaspeztatuta, gune batzuk marroi koloreko jarrita. Heldulekuaren atzealdean, "Sanitas" marka irakur daiteke.

- Zeluloidezko hortzetako eskuila horia. Atzean, fabrikazio-lekua eta kalitatea aipatzen dira: "Made in England. Pure Brush". Drogeria-denda baten oparia da, bertan iragartzen den bezala: "*Drogueria Olaizola*".

Gainera, Mauser munizio-orrabi bat eta hainbat zorro eta kartutxo berreskuratu ziren borrokalari horren inguruan.

3. gizabanakoa: Ahoz gorako etzanera jarrita. Bere kontserbazio-egoera are eskasagoa zen. Bi femurren eta bi tibien diafisiak berreskuratu ziren soilik, bai eta ezkerreko erradioa ere.

Hala, Zelaietaburuan (Etxebarria, Bizkaia) hiru borrokalariaren hondarrak atera ziren lubaki baten barrualdetik. Bertatik, zehazki, Ziardamendi eta San Miguel (Elgoibar) ingurua zaintzen ziren, haranaren beste aldean. Zazpi hilabetez, 1936ko irailaren amaieratik hurrengo urteko apirilaren erdira, gerrako frontea inguru hartan egonkortu zen. 1937ko bigarren hamabostaldian, altxatutako tropek eraso hasi zuten, eta Urkaregi mendia eta Zelaietaburu ingurua konkistatu zituzten. Orduan hil ziren, hain zuzen ere, miliziano hauek.

Lubakiaren zanga aprobetxatu zuten gorpuak lurperatzeko. Eskeletoen kokapena eta lerrokadura ikusita, pentsatzekoa da apropos jarri zirela horrela. Ondorioz, inguruko baserrietako auzokideek lurperatu zituztela berretsi daiteke. Gorpuzkiak ateratzeko prozesuan, ez zen identifikazio-txaparik berreskuratu. Horrek nabarmen mugatzen ditu hiru borrokalariaren nortasuna orientatu ahal izateko aukerak.

Identifikazio-prozesua

Ahaztuen Oroimena elkartek garatutako ikerketan zehar jasotako lekukotzen arabera, Zelaietaburuan lurperatu ziren gudarietako batzuk Goierri-
tik (Gipuzkoa) zetozen, baina, gaur gaurkoz, ezin izan da planteatu horien nortasunari buruzko hipotesirik.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.

San Antolin hobia

Kokapena: San Antolin, Lemoa (Bizkaia)

Biktimak: 3

Data: 2016ko maiatzaren 21a eta 22a



Aurrekariak

1937ko maiatzean Lemoatx posizioan borrokak izan ziren, Bilbo babesten zuen Burdin Hezia aurreko fronte-lerroaren defentsan puntu estrategiko bihurtu zena.

Eremu horretan, Alberto J. Sampedro eta Eduardo Sardon Eusko Prospekzio Taldeko kideek Mauser muniziozko kartutxo-ontzi bat aurkitu zuten, Eusko Gudarostearen gerrikoko hebilla-plaka baten ondoan, uhalaria baten zatiak eta esku-falange batzuk inguru horretan prospekzio bat egiten ari zirela.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

2016ko maiatzean, San Antolin hobia zabaldu zuten, Lemoatx 363 kotaren hegoaldeko hegalean dagoen izen bereko ermitaren gainetik 100 metro-ra. Esku-hartzearen data finkatu zen, Saioa Elejabarrieta Lemoako Udaleko alkatearekin, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzako Sailarekin, eta Monica Hernando Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarekin hitzartu ondoren. Hala, hobitik atera zuten 2016ko maiatzaren 21ean.

Hobiak, angeluzuzen forma zuen, 1,5 metroko zabalera eta 2 metroko luzera zuena, 50 zentimetroko sakonerarekin, gorputzak, krater edo deprimitutako gune bat harri-ohetuei batean aprobeztatuz jarrita

zeuden. Gorpuak, lursailean utzi eta sakonunearen ezaugarrietara egokitu ziren, ondoren, lurrez eta harriz estali zena.

San Antolingo hobian hiru pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu dira, jarraian deskribatutakoak:

1. gizabanakoa: hobiaren erdian lurperatuta, beste bien kontrako noranzkoan, ahoz gora etzanda, eta besoak tolestuta eta buruaren alboetan irekita. Gizonezko gazte bati zegokion, ziurrenik 27 urtetik beherakoa. Lotutako objektuei dagokienez, honako hauek berreskuratu ziren: katebegi txikiak zilarrezko katea eta zilarrezko gurutzea; «Garay» kautxuzko kartutxo-ontzi osoa; Euzko Gudarostearen gerrikoko plakarekin; garaiko Euzko Jaurlaritzaren txanponak; jaka handi baten orezko kolore beltzeko bost botoi, eta botazko oinetakoen zolak.

2. gizabanakoa: Ahoz gora etzanda, besoak tolestuta eta zabalik enborraren bi aldeetan. Gizonezko gazte bat zen, 20 urtetik beherakoa. Toraxaren gainean 30 cm-ko kremaileira itxi bat aurkitu dute, aurreko kremaile radun artilezko jertse jaka baten hondarrak. Halaber, 9 mm-ko jaurtigai osatugabe baten zorro bat aurkitu zuten.

3. gizabanakoa: Ahoz gora etzanda zegoen, 1. Gizabanakoaren alderantzizko noranzkoan jarria. Gizonezko gaztea zen, 20 urtetik beherakoa. Ez zuen hezurdura amaituta. Heriotzaren kausari dagokionez, burezurra- ren atzeko aldean metraila-zulo irregular bat ikusi zen.

Heriotza horiek 1937ko maiatzaren 26tik ekainaren 3ra bitartean gertatu zirela uste da. Hildakoen gorpuk, ziurrenik, inguruko bizilagunek lurperatu zituzten, obus baten kolpeak lurrean utzitako zuloaz baliatuta.

Identifikazio-prozesua

Lortutako datuetatik abiatuta, lurpetik ateratako gorpuzkietako bat, Euzkadiko Gudarosteko gudulari batena zela ondoriozta daiteke. Beste bietakoren

bat Asturiasko batailoietakoa izan daitekeela uste da. Hala ere, oraingoz ezin izan da hilobitik ateratako pertsonen nortasuna zehaztu.

Berriz ehorzteko prozesua

Hiru pertsonen gorpuzkiak Elgoibarko duintasunaren kolunbarioan berhobiratu ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.

San Roke Artxanda mendia hobia

Kokapena: San Roke. Artxanda mendia, Bilbo (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2016ko irailaren 10a



Aurrekariak

Tropa frankistak Bilbon sartu aurreko egunetan (1937ko ekainaren 19an sartu ziren), Abril eta Ganguren mendien artean zabaltzen den mendilerroan borroka ugari egon ziren. Etengabeko bonbardaketek eta borrokek ehun hildako baino gehiago utzi zituzten, eta hilotzetako asko lurperatuta geratu ziren, inprobisatutako hobietan. Horietako batzuk inguruko baserrien jabeek ehortzi zituzten, jasotako lekukotzen arabera.

Artxanda mendiaren iparraldeko hegalean zuhaitzak moztu eta basoa berritzeko lanetan, San Roke basilikatik hurbil, gizakien hainbat hezur-hondar agertu ziren, zuhaitz baten ipurdiaren azpian. Gogora Institutuari eta Aranzadi Zientzia Elkarteari eman zitzaizen horren berri, gorpuzkiak ateratzeko.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Esku-hartzea 2016ko irailaren 10ean egin zedila adostu zen. Hezur-hondarrak moztu zen zuhaitz baten enborraren sustraien artean deskubritu ziren. Hezur-hondar gutxi batzuk baino ez ziren geratzen. Izan ere, sustraien hazkunderak eta garapenak hasierako hobia eraldatu zuten, bai eta hura narriatu, degradatu eta are hezurren hondarrak desagerrarazi ere.

Eskuineko humero osoa, besaurreko diafisiaren zatiak, eta eskuineko eskapularen zati bat baino ez ziren berreskuratu, azken hori humeroarekin anatomikoki lotuta.

Haren inguruan, Mauser kartutxoaren kargagailu bat, hainbat kartutxo solte, uhalen bi belarri, gerriko-zati bat eta txanpon bat berreskuratu ziren.

Egun hartan, bertan izan ziren, besteak beste, Bilboko alkatea, Juan Maria Aburto; EAEko fiskal nagusia, Juan Calparsoro; Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Monica Hernando; Gogora Institutuko zuzendaria, Aintzane Ezenarro; bai eta zinegotziak eta beste ordezkari batzuk ere.

Identifikazio-prozesua

Ez dago elementurik edo dokumentazio nahikorik gorpuaren identifikazioa bideratu ahal izateko.

Berriz ehorzteko prozesua

Hezur-hondarrak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan gorde ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogorak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.

Urkulu 3. Atxamendi hobia

Kokapena: Atxa Mendi, Larrabetzu (Bizkaia)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2017ko otsailaren 4a



Nicolas Obregon Abad (XXX -1937- Larrabetzu, Bizkaia) CNTko "Sacco y Vanzetti" 4. Bataloiko 2. Konpainiako gudularia zen eta 1937ko ekainean borrokan hil zen.

Aurrekariak

Urkulu mendia Bilboko Burdin Heziko Gaztelumendi sektorean zegoen. 1937ko ekainaren hasieran, Prieto batailoiak (UGT 2) defendatzen zuen sektore hau. Ekainaren 11 goizean, tropa matxinatuen parte zen Nafarroako I. Brigadako Amerika batailoia- ren (8. zenbakia) eraso hasi zen. Bestalde, Montejurra Tertioko eta Falangearen 2. Banderako erasotzaileek Urkulu mendiaren eskuineko hegala hartu zuten, abiazio matxinatuak Gaztelumendi ingurua bonbardatzen zuen bitartean. Ekainaren 12 gauean, indar errepublikazaleek kontraerasoa egin zuten, XII. Euskal Brigada protagonista izan zelarik. XII. Euskal Brigada honako batailoia hauek osatzen zuten: Abellaneda (EAJ-PNV), Celta (CNT) eta Sacco eta Vanzetti (CNT). Asturiasko II. Brigadak ere parte hartu zuen. Kontraeraso honi esker inguruko gailurretara iristea lortu zuten errepublikazaleek, baina ezin izan zituzten posizioak mantendu. Pasarte honen ondorioz, biktima asko egon ziren Urkulu inguruan, baita Aretxabalgane gainaren eta Gaztelumendiren arteko espazioan.

Larrabetzuko Karraderan taldeko Iskander Barrenak auzokide baten lekukotza jaso zuen. Lekuko hark gogoratzen zuenez, Urkulun gudari baten gorpua ikusi zuen, zuhaitz baten kontra bermatuta, pistola batekin. Leku horri garezurren mendia deitzen zitzaion, ohikoa baitzen bertan giza hondarrak aurkitzea, bereziki baso-lanak egiten zirenean. Urkulu mendian, gaur gaurkoz, hiru lurperatze aurkitu dira, hirurak azalekoak.

Errutinazko prospekzio batean, Alberto J. Sampedro Euzkadiko Behin-behineko Gobernuko gerrikoko belarri bat aurkitu zuen, Mauser fusilaren kartutxo batzuen ondoan, giza hondar batzuekin lotuta. Aurkikuntza horren berri eman zitzaion Gogora Institutuari eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Sailari.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Gorpuzkiak Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Euskal Prospekzio Taldeko kideek atera zituzten, 2017ko otsailaren 4an.

Gerrikoaren plaka Urkulu mendiko hegaleko malda harritsu baten buruan zegoen. Sasiak eta orbelak kendu ziren hegal guztian, hobiaren gainean, azaleko lurra agerian utzi arte. Sakonera gutxira, gerriko-ko uhalak eta kartutxo-kaxa baten zatiak berreskuratu ziren, lehen aurkikuntza egin zen lekutik hurbil.

Maldako harkaitzezko horman, giza hondar batzuk aurkitu ziren, erlaitz txiki batean. Eskuineko humeroa, ezkerreko eskapularen akromia ingurua, eskuineko femurreko bi zati eta tibiaren diafisia ziren, bai eta lurperatzea aurkitu zen unean berreskuratu zen masailazurraren ezkerreko erdia ere. Horiekin batera, identifikazio-plaka obalatu bat aurkitu zen, 28616 zenbakia zeramana grabatuta.

Hildako borrokalariaireen gorpua deskonposizio-prozesuan zehar maldan behera eroriko zela, eta zati batzuk harkaitzen artean harrapatuta geratuko zirela ondorioztatu zen. Bestalde, beste zati batzuk laban egin edo erori egin ahal izan ziren, harri-hormaren azpian zegoen plataformaraino.

Identifikazio-prozesua

Latoizko identifikazio-plaka obalatuak (ardatz nagusiak 335 mm dauzka eta ardatz txikiak 200 mm)

bi zulo dauzka errematxeentzat, bi muturretan, eskumuturrera lotu ahal izateko, errematxatutako larruzko tira baten bidez. Grabatutako zenbakia 28616 da. Euskal Prospekzio Taldeko kideek zenbaki hori bilatu zuten 1936ko urriko eta azaroko nominen zerrendan, zein borrokalariri zegokion jakiteko. Hala deskubritu zuten **Nicolas Obregon Abad** ka-boarena zela, **CNTko 4. batailoiko** edo Sacco eta Vanzettiko 2. konpainiakoa, zeina 12. Euskal Brigadan baitzegoen sartuta, Carmelo Domenech buru, Euzkadiko Gudarosteko 1. Dibisiora atxikita.

Nicolas Obregonen senideak aurkitzeko saiakerek ez dute emaitzarik izan. Ondorioz, ezinezkoa izan da hondarren nortasuna genetikoki berrestea.

Berriz ehorzteko prozesua

Hezur-hondarrak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan gorde ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogorak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubi-deen Institutuak antolatutako ekitaldian.

Lemoatx III. 2017 hobia

Kokapena: Lemoatx, Lemoa (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2017ko ekainaren 4a



Aurrekariak

Lemoatxeko maldetan, 1937ko maiatzeko azken egunetan eta ekaineko lehen egunetan, borroka gogorrak bizi izan ziren. Artilleria eta abiazio frantziarren etengabeko bonbardaketek baja ugari eragin zituzten. Zifra zehatzik egon ez arren, mila bat gudari eta miliziano hil zirela uste da. Mendi hau, Bilbo defendatzen zuen Burdin Hezia hurbil zegoenez, leku estrategiko bihurtu zen matxinatuentzat, baita Euzkadiko Gudarostearentzat ere.

Lemoatx mendiaren hegoaldean prospekzio-lanetan ari zirela, Euskal Prospekzio Taldeko kideek 40 cm-ko sakoneran gorpuzkiak aurkitu zituzten, harrezkara estalita, lubaki batetik gertu.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Gorpua 2017ko ekainaren 4an atera zuten hobitik. Eskeletoa ahoz gora etzanda zegoen, beheko gor-

putz-adarrak zabaldua. Bere kontserbazio maila prekariora zen, garezurra, masailezurak, eskuineko hezuraren diafsia eta bi femeren eta bi epelen diafsia baino ezin izan ziren berreskuratu. 18 eta 20 urte bitarteko gizon gazte bat zela uste da eskeletoaren heltzearen arabera.

Lotutako objektuen artean, kartutxo-ontzi bat, metxaz bestelako bi metxero eta esmaltatutako kaxadun labana bat berreskuratu ziren, eskuineko koxalaren parean, alde horretako praktako poltsikoaren aldean. Bost zentimoko txanpon bat ere aurkitu zuten, gerrikoaren belarria eta bi trabilla. Bestalde, burezuraren ondoan baioneta bat eta munizioa aurkitu zituzten.

Bertan izan ziren Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramailea, Aintzane Ezenarro Gogora Institutuko zuzendaria eta Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea, udalerriko beste agintari batzuekin batera.

Identifikazio-prozesua

Momentuz, ez dago identifikazioa bideratuko deza-keen elementurik.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.

Altun mendia hobia

Kokapena: Altun mendia, Zeanuri (Bizkaia)

Biktimak: 5

Identifikatutako pertsona-kopurua: 5

Data: 2017ko azaroaren 18a eta 19a



Valentin Fernandez Soto



Isaias Rebollo Cardo



Jose Maria Alberdi Ruiz (1911 Abanto Zierbena, Bizkaia - 1937 Zeanuri, Bizkaia) ezkongabea zen, meatzaria lanbidez eta 10. «Perezagua» batailoiko 4. konpainiako kidea. Borrokan hil zen 1937ko apirilaren 7an Zeanuriko Altun mendian, Barazar inguruan. 26 urte zituen.

Valentin Fernandez Soto (1913 Barakaldo, Bizkaia -1937 Zeanuri, Bizkaia) ezkongabea eta 10. «Perezagua» batailoiko 4. konpainiako kidea. Borrokan hil zen 1937ko apirilaren 7an Zeanuriko Altun mendian, Barazar inguruan. 24 urte zituen.



Pedro García Gil (1918 Muskiz, Bizkaia - 1937 Zeanuri, Bizkaia) jernalari lanbidez, ezkongabea eta 10. «Perezagua» batailoiko 4. konpainiako kidea. Borrokan hil zen 1937ko apirilaren 7an Zeanuriko Altun mendian, Barazar inguruan. 22 urte zituen.

Isaias Rebollo Cardo (XXXX – 1937 Zeanuri, Bizkaia) Milizianoa, hasiera batean Arrigorriagako Meabe zutabearen izena eman zuena. 1936ko irailetik 1937ko 1. hamabostaldira arte Meabe-2 «Stalin» batailoiko kidea izan zen. Gerora zauritu eta osatu zenean, 10. «Perezagua» batailoiko 4. konpainian izena eman zuen, eta Zeanuriko Altun mendian hil zen borrokan, Barazar inguruan, 1937ko apirilaren 7an.

Pedro San Millan Beitia (1911Elantxobe, Bizkaia -1937 Zeanuri, Bizkaia) jernalari, ezkondua eta 10. «Perezagua» batailoiko 4. konpainiako kidea. Borrokan hil zen 1937ko apirilaren 7an Zeanuriko Altun mendian, Barazar inguruan. 26 urte zituen.

Aurrekariak

Euskal Prospekzio Taldeko zenbait kidek Gerra Zibilekin lotutako elementuak bilatzeko miaketa bat egin zuten Altun mendian, Barazar mendatetik gertu, Zeanuriko udalerrian (Bizkaia). Horrela, 21967 zenbakia zuen identifikazio-plaka bat aurkitu zuten. Talde horrek egindako dokumentazio-lanaren ondoren, zehaztu zuten **Pedro San Millan Beitia** milizianoari zegokiola, Facundo Perezagua 10. batailoiko 4. konpainiakoa. Ikerketa horretan, gudulari 1937ko apirilako lehen hamabostaldian hil zela jakin zuten.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Ondorioz, 2017ko azaroaren 18an eta 19an, aurretik deskubritutako hondar horiek atera ziren. Gogora Institutua arduratu zen lan horiek zaindu eta koordinatzeaz, gertaerak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza Nagusiari jakinarazi ondoren. Hondarrak ateratzeko lanetan zehar, bertan izan ziren Zeanuriko alkate Eusebio Larrazabal, Julen Arzuaga legebiltzarkidea, eta Gogora Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarro, senideekin eta auzokideekin batera.

Lokalizatua zegoen gorpuzkia sigi-saga forma zuen lubaki-lerro batean zegoen eta lurpetik ateratzeko

lanetan ari zirela ohartu ziren, berarekin batera beste lau gorpuzki zeudela. Lubakia garbitzean, guztira, beren tresnekin batera ehortzitako bost borrokalarien gorpuak aurkitu ziren. Hezurren hondarrek kontserbazio-egoera ezegonkorra zuten. Izan ere, zati batzuk narriatuta zeuden, euri-uraren eta landaretza-estalkiaren agente tafonomikoen ondorioz.

1. gizabanakoa ahoz gorako etzanera zegoen, eskuineko besoa enborraren gainean tolestuta eta ezkerreko besoa luzatuta. Eskuineko hanka luzatuta zuen, eta ezkerrekoa angeluan tolestuta, eta oina eskuineko beheko gorputz-adarraren azpian zeukan. Gizonezko heldu gazte baten gorpua zen. Botak kontserbatzen ziren, eta lotutako objektuen artean, gorpuaren gainean aurkitu ziren kasko bat eta aluminiozko plater bat, kantinplora eta guzti. Ezkerreko femurreko tertzio distalean espiral formako haustura bat zuen, zeina heriotzarekin lotuta baitzegoen. Metalezko identifikazio-plaka zirkular bat ere berreskuratu zen, 21967 zenbakia zeramana. Horri jarraikiz identifikatu ahal izan zen Pedro San Millan Beitia.

2. gizabanakoa ahoz beherako etzanera zegoen, besoak enborraren azpitik tolestuta. Beheko gorputz-adarrak luzatuta zituen, eta belaunak eta oinak elkartuta, lubakiaren formara egokituta. 23 urtetik beherakoa zela kalkulatu zen.

Hainbat objektu zituen: metalezko koilara bat, kirtena tolestuta, gerrikotik eskegi ahal izateko; kargagailu bat, bere zeluloidezko zorro eta guzti, kareia imitatzen; zeluloidezko zigarro-iragazki bat, hainbat koloretakoa, banda hori eta berdeekin; kasko bat, deformatua, buruan; gerrikoa eta belarria, eta ttxet-botak. Era berean, identifikazio-plaka bat zuen, 11709 zenbakikoa, Pedro Garcia Gil gudulariarena.

3. gizabanakoa alboko etzanera zegoen, eskuineko aldearen gainean, lubakiaren hormara begira. Eskuineko besoa buruaren gainetik igota zuen, eta ezkerreko besoa leporantz tolestuta. Ezkerreko beheko gorputz-adarra diagonalean zabaldua zuen, eta ezkerrekoa, tolestuta, ezkerrekoaren azpitik. Kalkulu antropologikoaren arabera, 27 urtetik beherakoa zen.

Lotutako elementuen artean gerrikoa, jaka marroi baten pastazko botoiak, kantinplora baten ahoa eta

zahagi baten ahoa berreskuratu ziren. Hari lotuta, identifikazio-plaka bat aurkitu zen, 12875 zenbakia zuena, Isaias Rebollo Cardorena.

4. gizabanakoa ahoz gorako etzanera zegoen, ezkerreko besoa buruaren gainetik tolestuta, eta eskuineko besoa ere tolestuta, abdominalen inguruaren gainetik. Hankak bilduta zituen, ezkerreantz tolestuta. Hankek perimortem hausturak zituzten, eta ezin ziren luzatu. Oinen ingurua 2. gizabanakoa buruaren azpitik zegoen. 25 urtetik beherako gizonezko baten gorpua zirudien. Beheko gorputz-adarretako hezur luzeek perimortem hausturak zituzten, eta horiek eragingo zuten gizonaren heriotza.

Berreskuratutako objektuen artean zeuden burdinazko koilara tolestu bat; larruzko gerriko bat; ispiluzati bat; txapel beltza; botak; kaskoa, oso ondo kontserbatua, eta hainbat txanpon: 2 pezetako bi eta pezeta 1eko bat, Euzkadiko Gobernuak igorriak 1937an, bai eta 5 zentimoko bi txanpon ere. Era berean, identifikazio-plaka bat zuen, 11455 zenbakiarekin, Valentin Fernandez Sotorena, 24 urtekoa bera.

5. gizabanakoa ahoz gorako etzanera zegoen, ezkerreko besoa buruaren gainetik tolestuta, eskuineko besoa ere tolestuta, abdominalen inguruaren gainetik. Hankak bilduta zeuden, ezkerreantz tolestuta. Ondoko zuhaitz baten sustraiek hezur-hondar horien kontserbazioan eragin zuten. Beheko gorputz-adarretako hezurak perimortem hautsi ziren.

Identifikazio-prozesua

Beraz, urkitu ziren lau plakei esker, hobitik atera ziren bost gizabanakoen nortasuna ezagutu genuen, bostak Facundo Perezagua 10. batailoiko 4. konpainiako kideak. Halaber, dokumentazio historikoari esker, 1937ko apirileko lehen hamabostaldian, Altun mendian (Zeanuri) izandako liskarretan, aipatutako batailoiko bost miliziano hil zirela baieztatu zen. Honi guztiari esker badakigu miliziano hauek **Pedro San Millan Beitia, Pedro Garcia Gil, Isaias Rebollo Cardo, Jose Maria Albeniz Ruiz** eta **Valentin Fernandez Soto** zirela eta 1937ko apirilaren 7an hil zirela.

Pertsona horien senideekin harremanetan jartzea lortu zen, alderaketa genetikoak egitea ahalbidetzen

zuten zalantzarik gabeko laginak lortu ahal izateko. BIOMICs laborategian egindako analisiak baieztatu egin dute horien guztien nortasuna.

Berriz ehorzteko prozesua

2019ko urtarrilaren 10ean, Gogora Institutuaren egoitzan egindako ekitaldian eman zitzaizkien gorpuzkiak senideei, Iñigo Urkullu Lehendakaria, Ba-

kartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Eusko Jaurlaritzako zenbait sailburu eta legebiltzarkide, Eusebio Larrazabal Zeanuriko alkatea eta beste agintari batzuk bertan zirela.

Valentin Fernandez Soto, Pedro Garcia Gil eta Pedro San Millan Beitiaren gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren. Jose Maria Alberdi Ruizen eta Isaias Rebollo Cardoren gorpuzkiak familiak jaso zituzten.



Izartza hobia

Kokapena: Izartza, Lemoa (Bizkaia)

Biktimak: 1

Data: 2018ko martxoaren 24a



Aurrekariak

Aramotzeko mendilerroaren muturrean dago Izartza. Inguru honetan, borrokak 1937ko maiatzaren amaieraren eta ekaineko lehen egunen artean gertatu ziren. Izartzan, zehazki, maiatzaren 22tik 24ra izan ziren liskarrak. Nafarroako 2. eta 4. brigadek esku hartu zuten, eta Euzkadiko Gudarostea atzera-egitera behartuz. Hilaren 23an, Euzkadiko Gudarosteko 3. dibizioak, Asturiasko beste brigada batzuen laguntzarekin, Arratia ibaiaren ezker aldean defentsa-lerroa ezarri zuen. Azken hauen gerra parteek, erretiratzea oso desordenatua izan zela jaso zuten, eta, ondorioz, zenbait borrokalari preso hartu zituzten eta hildako batzuen gorpuak jaso gabe geratu ziren.

Lemoako bizilaguna den Felipe Etxebarrietak emandako lekukotza eta informazioari esker jakin zen Asturiasko miliziano bat zegoela lurperatuta Elorriaga auzoan, Izartzan. Euskal Prospekzio Taldeko kideak Feliperekin batera joan ziren kokapen zehatza ezagutzera. Txekoslovakiako munizio-kartutxoak aurkitu zituzten, 1935ean egindakoak, giza hondarrekin batera.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hobia Izartzan zegoen, Aramotz mendiaren ipar-ekialdeko hegalean, mendiko pista baten hasieraren eta erreka baten artean.

Kontserbatutako hezur-hondarrak oso urriak ziren. Bi femurrak eta hainbat ezpal baino ezin izan ziren berreskuratu. Beren kokapenagatik, pentsatzekoa da gutxienez beheko gorputz-adarrak ahoz gorako etzanera egon zirela, eta ezkerreko hanka eskuinekoaren gainetik gurutzatuta.

Horiekin batera, larruzko zorro bat berreskuratu zen, guztira 16 txanpon zituen. Horietatik 6 ziren 10 zentimokoak ziren, 1870eko Behin-behineko Gobernuarenak; hiru txanpon bost zentimokoak, urte berekoak; lau txanpon 10 zentimokoak, Alfontso XII. arenak, eta bi txanpon 10 zentimokoak, Frantziako Errepublikakoak, 1908an eta 1916an eginak. Era berean, bi zorro eta lehen aipatutako kartutxo txekoslovakiarra aurkitu ziren.

Desobiratze egunean hainbat agintari hurreratu ziren Gerra Zibilean hil ziren pertsona guztiei omenaldia egitera: Josu Erkoreka, Justiziako sailburua eta

Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea; Julen Arzuaga eta Jon Hernandez legebiltzarkideak; Saioa Elejabarrieta, Lemoako alkatea, eta Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuko zuzendaria. Era berean, bertan egon zen Rafael Yuste, Ameriketako Estatu Batuetakoa, “Brain Mapping” proiektuaren sustatzaile eta ikertzailea.

Berriz ehorzteko prozesua

Hezur-hondarrak Antropologiako laborategian daude, Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioan gordetzeko zain.

Identifikazio-prozesua

Oraingoz, ez dago identifikatzeko elementurik, baina jasotako lekukotzan oinarrituta, jatorri asturiarreko miliziano bat izan daitekeela uste da.

Elortatxu hobia

Kokapena: Elortatxu. Gamiz-Fika (Bizkaia)

Biktimak: 1 + 2

Data: 2019ko ekainaren 8a eta azaroaren 24a



Aurrekariak

Elortatxu inguru guztian, borroka latzak egon ziren armada frankista Bilbora iritsi aurreko egunetan. 1937ko ekainaren 11n, zehazki, Nafarroako Brigada eta Tetuaneko Unitate-tropa inguru horretara iritsi ziren. Borrokak egon ziren, eta Zabalbide batailoian (posizio hori defendatzen ari zen), baja ugari egon ziren. Zabalbideri laguntzen saiatu zen Kirikiño metraladore-batailoia, eta hark ere baja ugari izan zituen.

Gamiz-Fikako bizilaguna da Lander Mella. Hark jakinarazi zion Aranzadi Elkarteko Antropologia Sailari bere baserriaren lursailetan borrokalari batzuen gorpua lurperatuta zeudela. Izan ere, halaxe kontatu zion bere aitonak. Lurperatze horietako batzuk non zeuden ere bazekien.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hezur-hondar horiek plataforma batean aurkitu ziren, hegalairen oinean, haritz eta konifero batzuen ondoan, erreka txiki baten ibilgua (Done Mikel ermitatik 800 metro ingurura) bereizten duen alambre-hesi batetik hurbil.

2019ko ekainean, borrokalari baten gorpua ateratzeko lanak hasi ziren.

1. gizabanakoa: Gorpua ahoz gorako etzanera zegoen, goiko gorputz-adarrak irekita eta altxatuta, eta beheko gorputz-adarrak luzatuta eta angeluan jarrita, enborrarekiko. Heldu gazte baten gorpua zela ondorioztatu zen, 25 urtetik beherakoa.

Jantzitik, Euzko Gudarosteko gerriko-belarri bat aurkitu zen garezurraren eta sorbaldaren artean. Ezkerreko koxalaren ondoan, baioneta-zorro bat eta belarri bat berreskuratu ziren. Oinetakoak zituen, baina eskui-nekoa soilik aurkitu ahal izan zen. Izan ere, lekukotzei esker jakin ahal izan zen ezkerreko oinetakoa aurretik atera zela. Era berean, munizio-kargagailuak eta kartutxo isolatuak aurkitu ziren.

Gorpuaren posizioa ikusita, pentsatzekoa da borrokalari hori tiro edo metraila batek jota erori zela. Hildakoa nola erori zen islatzen du posturak.

Urte horretako azaroan, lehenengoaren ondoan beste ehorzketa batzuk egon zitezkeela berres-tan, leku hartan gorpuzkiak ateratzeko lanak egin ziren.

Orduko hartan, bi lurperatze indibidual aurkitu ziren, lehenengoaren ondoan. Hirurak zeuden elkarrengandik oso gertu, egungo alambre-hesiaren paraleloan, eta ziur aski leku horretan zegoen lubaki edo parapetoarekin lotuta.

2. gizabanakoa ahoz gorako etzanera zegoen, hankak luzatuta eta ezkerreko besoa tolestuta, eskua abdominalen zuloan, eta eskuineko besoa zabalik eta tolestuta. Lotutako elementuen artean jertse baten kremailera deskubritu zen, toraxean, eta hezurrean landutako belarri angeluzuzen bat sakroaren gainean. Kasu horretan ere, Lebel munizioa zegoen eskuineko aldean, eta hainbat Lebel kartutxo solte. Eskuineko oinetik hurbil, Mauser munizio-kargagailua ere aurkitu zen.

Gizonezko heldu gazte baten gorpua zen, 23 urtetik beherakoa, konstituzioz oso mehea.

3. gizabanakoa zertxobait urrunago zegoen. Ahoz gorako etzanera zegoen, besoak zabalik, ezkerreko besoa apur bat igota eta luzatuta, eta eskuineko besoa ez zen berreskuratu. Toraxa osatu gabe zegoen, baina gerri pelbikoa eta beheko gorputz-adarrak (luzatuta) zituen; eskuinekoa ezkerrekoaren gainean bermatuta.

Gizonezko heldu gazte baten gorpua zela ondorioztatu zen, 23 urtetik beherakoa.

Postura hildako borrokalaria lurrera erori zeneko posizioa izan liteke. Ezkerreko femurrean diafisian perimortem haustura ikus daiteke. Heriotzaren arrazoiarekin lotuta dago. Lotutako elementuen artean, gerriko bat, eskuineko aldean belarri bat, eta ezkerreko aldean kartutxo-zorro oso bat berreskuratu ziren.

Aztarna guztien arabera, pentsatzekoa da hiru borrokalariak gerra-ekitaldi berean hil zirela, 1937ko

ekainaren 11n egondako borrokarekin lotuta. Hirurak zeuden defentsa-lerrotik gertu, parapeto batek babestuta. Metraila-zatiak aurkitu zirenez, pentsatzekoa da bertan leherketak egon zirela. Pentsa liteke, era berean, inguruko auzokideek jaso zituztela gorpua eta sakonune hartan metatu.

Elortatxun gorpuzkiak hobitik ateratzeko lehen eta bigarren faseetan honako hauek egon ziren: Josu Erkoreka, Justiziako sailburua eta Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea; Asier Larrabe, Gamiz-Fikako alkatea; Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuko zuzendaria; eta Lander Mella, lurperatzeak deskubritu zituen eta lursail horien jabea zena.

Identifikazio-prozesua

Posizio hartan egon ziren Euzko Gudarosteko batailoiak, dokumentazioaren arabera, Zabalbide eta Kirikiño batailoiak izan ziren, nahiz eta ezin den baztertu beste batzuk ere egon zirenik.

Gaur gaurkoz, ez dago elementurik, berreskuratutako borrokalariak identifikatzeko lanak orientatu ahal izateko.

Berriz ehorzteko prozesua

Gaur egun, berreskuratutako hondarrak Donostiako Aranzadi Zientzia Elkartearen Antropologia Laborategiko biltegian daude gordeta.

Bizkargi hobia

Kokapena: Bizkargi mendia, Amorebieta-Etxano (Bizkaia)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2020ko abenduaren 20a



Aniceto Aguirrebeitia Lazpita (1911 Berriz, Bizkaia-1937 Amorebieta-Etxano, Bizkaia) Berrizko bizi-laguna, ezkongabea, ogibidez okina eta militante komunista zen. Alderdi Komunistako Esteban Salsamendi 44. batailoiko ametrailadoreen konpainiako gudularia izan zen. Borrokan hil zen Bizkargi mendian 1937ko maiatzaren 16an.

Aurrekariak

1937ko udaberrian, Gernika erori ondoren, frontearen lerroa Sollubetik Maiaga, Bizkargi, Zornotza eta Eubaraino hedatu zen. Bizkargi mendiguneko erasoak maiatzaren lehen egunetan hasi ziren. Maiatzaren erdialdean borroka gogorrenak izan zi-

ren inguru horretan, eta Esteban Salsamendi batailoiak aktiboki parte hartu zuen.

2020ko uztailaren 10ean, Euskal Prospekzio Taldeko kideek ingurua ezagutzeko egindako bisitan, identifikazio-plaka bat agertu zen Bizkargi mendian hegoaldeko hegalean, 58331 zenbakiarekin.

Honen ondoan giza hezurak aurkitu ziren. 58.331 zenbakia ikertu zen eta jakin zen Aniceto Aguirrebeitia Lazpitarena zela, Berrizkoa eta Alderdi Komunistako Esteban Salsamendi 44. batailoiko ametrailadoreen konpainiako kaboa. 1937ko maiatzaren 16an hil zen.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hobitik ateratzeko lanak 2020ko abenduaren 20an izan ziren. Interbentzioan zehar, femurraren eta kubituek ezkertiarren diafisiak berreskuratu ziren. Plakaz gain, ebonitazko bost botoi beltz, lau koilara, botila baten lepoa eta munizioa aurkitu zituzten.

Bertan izan ziren Anicetoren senideak. Bertan izan ziren, halaber, Beatriz Artolazabal, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako

sailburua, Jose Antonio Rodriguez Ranz, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sailburuordea, Amorebieta-Etxanoko Udaleko ordezkariak eta Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuko zuzendaria.

Identifikazio-prozesua

Esan bezala, plakak identifikazioa Aniceto Aguirrebeitia Lazpitara bideratu du. Hala ere, berreskuratutako gorpuzkien DNA eta familiaren DNA alderatuko da nortasuna genetikoki baieztatzeko.

Berriz ehorzteko prozesua

Aranzadi Zientzia Elkartearen laborategian daude gorpuzkiak, DNA frogan emaitzak jaso ostean familiari emango zain.

GIPUZKOA

Matazal hobia

Kokapena: Matazal. Zaldibia (Gipuzkoa)

Biktimak: 2

Data: 2002ko irailaren 9tik 11ra



Aurrekariak

Matazaleko hobia (Zaldibia) izan zen Euskadin Gerra Zibilekin lotuta eta metodologia zientifikoari jarraikiz induskatu zen lehen hobia. Martin Ibarguren Tolosa (zaldibiarra) Aranzadi Zientzia Elkartearekin jarri zen harremanetan, bere baserriko lursailetan (Irastorza Goikoa) hobi bat zegoela jakinarazteko. Bere aitak lurperatu zituen hilotzak, 1936ko udan bere jabetzako etxaditik hurbil zegoen bidean aurkitu zituenean.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Ibarguren jaunak adierazitako leku zehatzean aurkitu zen hobia, nahiz eta lehen etxadi bat zena baso bihurtuta zegoen, landaretza ugariz beteta. Gorpuzkiak hobitik ateratzeko lanak 2002ko irailaren 9tik 11ra bitartean garatu ziren, Jesus Tapia eta Francisco Etxeberriaren zuzendaritzapean.

Hiru zanga egin ziren: bat handiagoa eta beste bat txikiagoa, 2,2 metrokoa, hobiaren ingurua mugatzeko. Azken horrek laukizuzen itxura zuen. Bertan, bi pertsona aurkitu ziren ehortzita:

1. gizabanakoa ahoz gorako etzanera zegoen. 20 urte inguru zituela kalkulatu zen. Garezurreen zulo

obalatu bat zuen, su-arma baten jaurtigaiaren sarrera-zuloa, ezkerreko parietalean.

2. gizabanakoa ahoz beherako etzanera zegoen. 20 urte inguru zituela kalkulatu zen. Arropan, krema-ilara-itxitura bat eta bi belarri-zati aurkitu ziren. Ezkerreko parietalean, zulo irregular bat aurkitu zen, kono formakoa, tiro baten jaurtigaiaren irteerazuloa. Laborategian egindako garbiketa-prozesuan, jaurtigai blindatu bat aurkitu zen (9 mm-koa) garezurreen barruan. Metalezko beste zati bat antzeman zen, halaber, gerri-ornoan.

Identifikazio-prozesua

Hainbat hipotesi planteatu ziren biktima horien nortasunari buruz, baina horietako bat ere ezin izan da berretsi.

Berriz ehortzeko prozesua

Matazaleko hobian (Zaldibia) berreskuratu ziren hondarrak Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbariora ehortzi ziren, 2017ko urtarrilaren 30ean, Iñigo Urkullu, Lehendakaria buru izan zuen ekitaldi instituzional batean.

Kurtzetxiki leizea

Kokapena: Kurtzetxikiko leizea, Arrasate, (Gipuzkoa)

Biktimak: 2

Data: 2002ko urriaren 6a



Aurrekariak

70eko hamarkadan, Besaide espeleologia-taldeak garezur bat berreskuratu zuen Kurtzetxikiko leizearen sakonean, Bedoña auzoan, Arrasate udalerrian (Gipuzkoa). Une hartan, hilobi bateko lurperatzearekin lotutako historiaurreko giza hezurren hondarrak izan zitezkeela interpretatu zen. Hala ere, 1988an, beste ikuskapen espeleologiko batean, beste garezur bat aurkitu zen, bai eta larruzko botak eta tatxetak ere, ez oso aspaldikoak.

Hala, Aranzadi Zientzia Elkartek eta Eusko Jaur-laritzak sinatutako hitzarmenaren esparruan, eta Arrasateko Udalaren partaidetzarekin, gorpuzkiak bertatik atera ziren, 2002ko urrian.

Bi miliziano ziren, 1936ko irailean Camilo Alonso Vega infanteriako teniente koronelak agintzen zuen zutabeko soldaduek Arrasate hartu aurreko borroketan zehar hildakoak. Gasteiztik zetorren zutabe

hori Flandes erregimentukoa (5. zenbakia) zen, eta Gasteizen bertan zuen egoitza. Eraso-sekzioa Galbancho komandantearen agindupean zegoen. Lenitz haranetik sartu zen, eta ondoz ondo Arlaban, Aitzorroitz eta Goronaeta mendate eta mendiak hartu ondoren, irailaren 25ean iritsi zen Arrasate inguruetara, hots, Bedoña eta Urkimendigainera[1].

Bedoñako Garaikoa baserrian bizi zen Miguel Bolinaga, eta 1936an 15 urte zituen. Bere etxetik hurbil jazo ziren borrokak gogoratzen zituen:

“Gure etxera iritsi ziren -zioen Miguelek-, jakin barik tropa frankistak ordurako Bedoñan kokatuta zeudela. Gaztelaniaz hitz egiten zuten, nire amonak, gaztelaniaz oso ondo hitz egiten zuenak, berehala jakinarazi zien arriskuan zeudela. Basotik ezkutuan irten eta Arrasate-raino joan zitezela gomendatu zien». Miguel Bolinagaren amonak ohartarazi zien, era berean, metrailadoreen bigune zeudela: bat elizaren kanpandorrean eta bestea Solagaisto baserrian. 66 urte hauetan Miguel Bolingak ez

du ahaztu bi milizianoek bere etxetik irten baino lehen izan zuten eztabaida: «batek behin eta berriz adierazten zuen basotik joan behar zutela, eta besteak lelokeriak utzi eta bidetik joateko erantzuten zuen» [2].

Bidetik joatea erabaki zuten, eta eraso egin zieten. Baserritarrek jaso zituzten hilotzak idi-gurdi batean, eta leizera bota zituzten, mendian hiltzen ziren animaliekin egin ohi zuten bezala. Horren lekuko, leizean behi, ardi, zaldi eta ahuntzen hezur-hondar ugari ere berreskuratu dira.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Leizea 6 metroko malda bertikal bat da. Higakinek 20 metro inguruko aldats handia osatzen dute bertan, leizearen sakoneraino jaisten dena. Malda horren beheko eta erdiko aldean zeuden giza hezurren hondarrak.

Hezur-hondarrak leizearen barruko maldan berreskuratu ziren.

1. gizabanakoa erdi lurperatuta zegoen; etxeko faunaren hezur-hondarrak zituen gainean. Ahoz gorako etzanera zegoen, ezkerreko goiko gorputz-adarra buruaren azpian gurutzatuta, galeriaren gainean, lurrek eta hondakinek partzialki estalita. Gizonezko heldu nagusi baten gorpua dirudi, 40 urtetik gorakoa. Hainbat lesio zituen, su-arma baten jaurtigaiak eragin zitzaizkionak, eta, ondorioz, beren heriotza eragin zutenak. Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da eskuineko hezur parietalaren atzeko aldean dagoen zulo borobildua (27 mm-ko diametro handia bider 9 mm-ko diametro txikia), kono-enbor formakoa, hezur gehiago zuena galduta barruko taulan, garezurraren

zuloan zeiharrean sartuko zen jaurtigai baten inpaktu tangentialaren ondorioz. Bizkarreko 9. ornoak zulo bat dauka, hezurra duena galduta eskuineko pedikuluaren inguruan eta alde bereko zeharkako apofisian, 7-8 mm-ko diametrokoa. Su-arma baten jaurtigaiak egin ahal izan zuen zuloa, aurretik atzera eta eskuinetik ezkerreara zihola. Orno hori luzetara urratuta zegoen, zeharkako apofisian.

Hau da, su-armaren hiru inpaktuek aurretik eta eskuinetik harrapatu zuten pertsona hori, apur bat beherantz egiten zuten norabidean.

2. gizabanakoa: galeriaren beheko partean eta maldan sakabanatuta zegoen. Helduarora iris-tear den gizonezko baten gorpua dirudi, 20 urtetik beherakoa. Ezkerreko larruzko bota baten hondarrak (tatxetezko zola eta guzti) lotu ziren gorpu horrekin, garai hartako bereizgarriak. Ezin izan zen heriotzaren arrazoia interpretatu, zati asko falta baitziren eta kontserbatzen ziren hondar urrietan ez baitzen lesiorik antzematen.

Identifikazio-prozesua

Ez dago datu edo zehaztasunik pertsona horien nortasuna orientatu ahal izateko.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2017ko urtarrilaren 30ean, Gogorak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatuko ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

[1] Pedro Barruso bere liburuan, *Verano y revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa* (Haranburu Editor, 1996).

[2] Kepa Oriden, *Diario Vasco* 29-09-2002.



3.Asu baserria hobia

Kokapena: Asu baserria, Andoain (Gipuzkoa)

Biktimak: 1

Data: 2003ko azaroaren 20tik 24ra



Aurrekariak

Andoaingo Asu baserriaren ondoan (Gipuzkoa) dagoen hobia Josepa Elizondoren lekukotzari esker aurkitu zen. Emakume horrek 12 urte zituen lurperatzea gertatu zenean. Lekukotza hori Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek hartu zuten, 2003ko urtaririlean. Joseparen ilobek, Pepita Elizondo eta Antonio Elizondok, Aranzadiko ikertzaileei lagundu zieten leku zehatza identifikatzen.

Gerra Zibilaren hasieran, 1936ko uztailaren eta irailaren artean, indar matxinatuak Nafarroatik Gipuzkoarantz joan ziren. Abuztu erdialdera, Andoainera liskarrak ziren. Altxatutako indarrak udalerrian instalatu ziren abuztuaren 16an, eta hurrengo asteetan, istiluak egon ziren armada kolpistaren eta indar errepublikazaleen artean, Buruntza mendiaren kontrola hartzeko. Altxatutako indarrek 1936ko abuztuaren 30ean egin zuten behin betiko eraso Buruntzan. Aranzadiri jakinarazi zitzaizkion lurperatzeak, eraso horren testuinguruan gertatu zirela. Hala, 2003an zehar, 4 puntu zehatz identifikatu ziren. Horietan aipatu den episodioan zehar eroritako biktimen lurperatzeen zantzu garbiak zeuden, eta, beraz, baimena eskatu zitzaion Andoaineko Udalari, lekuok induskatu ahal izateko. Hala ere, Asu baserriko hobian soilik aurkitu ziren hezurren hondarrak.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Asu baserritik hurbil dagoen hobitik 2003ko azaroaren 20tik 24ra bitartean atera ziren hondarrak. Informazioa eman zutenek adierazitako lekuan egin zen esku-hartzea. Hezurren hondarrak 40 zentimetroko sakoneran zeuden, ahoz gorako etzanera, besoak gorpuaren gainetik luzatuta, eskuineko eskua albo bereko izter inguruaren gainean, eta ezkerreko eskua erdiguneko abdominalen inguruan. Gizonezko heldu gazte baten gorpua zela ondorioztatu zen, 40 urte ingurukoa. Eskeletoaren kontserbazio-maila oso eskasa zen, eta zati batzuk falta ziren. Auzitegi-azterketaren arabera, pertsona horrek pistola baten tiroa jaso zuen aurpegiaren eskuineko aldean. Hain zuzen ere, pistola baten jaurtigai deformatua berreskuratu zen, 9 mm-koa, heriotzarekin lotuta.

Hezur-hondarrekin batera aurkitu ziren, halaber, tirante batzuen belarri metalikoak, krokadura bat, eta pintza metaliko batzuk (pertsona horrek jantzita eroango zituen galtzerdiak eusteko), bai eta tamaina txikiko bi belarri ere.

Identifikazio-prozesua

Pertsona hori identifikatzeko lanetatik ondorioztatu daitekeenez, Asu baserrian eskuratutako informazioari jarraikiz (bertan egon zen atxilotuta), ziur aski Frantziako herritar bat zen, hizkuntza horretan mintzatzen baitzen. Gainera, hainbat seme-alaba zituela jakin zuten. Bere nortasuna ezagutzeko hainbat ikerketa egin ziren, baina ez zuten emaitzarik izan.

Berriz ehorzteko prozesua

Berreskuratutako gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2017ko urtarriaren 30ean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, Gogorak, antolatutako ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Intxorta hobia

Kokapena: Intxortako Sagasti mendia (Elgeta, Gipuzkoa)

Biktimak: 5

Data: 2004ko ekainaren 9tik 21era



Aurrekariak

Gipuzkoako zatirik handiena matxinatuen esku geratu zen 1936ko irailaren amaierarako. Hala ere, matxinatuen eraso bera eten zen, armada kolpistak Madrilgo fronteari lehentasuna ematea erabaki ondoren. Honek, Euskal Estatutuaren onarpenarekin eta Euzkadiko Gobernuaren eraketarekin batera (1937ko urriaren 7a), iparraldeko frontean errepublikar batailoiek berrantolatzea ahalbidetu zuen. Euzkadiko Gudarostearen sortu zen, ideologia ezberdineko batailoiez osatua: anarkistak, komunistak, nazionalistak, errepublikanoak eta sozialistak.

Fronte-lerroa egonkortuta egon zen zazpi hilabetez, 1936ko urriaren hasieratik 1937ko martxoaren amaierara, Gipuzkoa eta Bizkaia probintzien artean mendebaldeko muga osatzen zuten mendietan, Eibartik Elgetaraino. 1937ko apirilean, frontea berpraktibatu zen. Frankisten erasoak estrategia inguratzailera erabili zuen, hainbat hegala erasoz, eta, horrekin batera, Gasteiztik zetozen hegazkinen bidez aireko erasoak egin ziren. Artilleriaren erasoak, eta Gipuzkoatik Bergaratik igotzen ari ziren Nafarroako IV. Brigadako tropen aurrerapena, Elorriotik (Biz-

kaia) hego-mendebaldetik egindako erasoarekin koordinatu zen. Intxorta (Elgeta) mendien posizioaren aurkako bombardaketak oso biziak eta etengabeak izan ziren, eta 1937ko apirilaren 24an, Elgeta eta Intxorta hartu zituzten tropa frankistek.

Inguru hartan, Sagasti mendian (Elgeta), aterpe edo kasamata baten kokapena aurkitu zen, frontearen defentsa-lerroan, Elgetako auzokideen lekukotzari esker (tartean, Antonio Iturricastillo) eta senideen laguntzaz (esaterako, Javier Elizegi, zeina bere anaia aurkitu nahian baitzebilen).

Era honetako eraikuntzak egiteko, aurreko aldean parapeto moduan jartzen zen mendi-hegaletik kentzen zen lurra, eta, hala, bitarteko espazio bat prestatzen zen. Espazio hori teilatu batekin estaltzen zen, enborrez osatutako eta lurrez estalitako egitura baten bidez. Hartara, kamuflatu egin zitekeen, eta ikusgarritasuna murriztu arerioen abiazioak eraso egiten zuenean.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Bonba baten inpaktuak kasamata suntsitu zuen apirilaren 22 eta 24 artean, eta, barruan, hainbat

borrokalari ehortzi zituen. Gorpuzkiak hobitik ateratzean, 2004an, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, aterpea estaltzen zuten enbor batzuen zatiak aurkitu ziren, bai eta kasamataren teilatua kolapsatu ondoren lurperatuta hil ziren bost borrokalarien hondarrak ere.

Indusketa-lanetan, halaber, defentsa-kanoiaren Valero mortero baten oinarria aurkitu zen. Mortero hori Markinako (Bizkaia) Esperanza y Cia. (ECIA) enpresak egin zuen. Halaber, bolboraren bilgarri bat ere aurkitu zen, morteroari sua emateko. Bi aurkikuntza horiek berretsi zuten aterpe hura defentsa-egitura moduan erabiltzen zela.

Identifikazio-prozesua

Bost soldaduren giza hezurren hondarrak ez zeuden osorik. Proba genetikoak egin ziren, horiek identifikatzeko. Izan ere, egun horietan inguru hartan hil ziren borrokalarien zerrenda bat zegoen, baina ez zen emaitzarik lortu.

Berriz ehorzteko prozesua

Berreskuratutako gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2017ko urtarriaren 30ean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, Gogorak, antolatutako ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Antzuategi 1 hobia

Kokapena: Antzuategi baserria, Elgeta (Gipuzkoa)


Biktimak: 3

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2003ko ekainaren 16tik 22ra



Jesus Zuazua Mondragon



Jesus Zuazua Mondragon (¿? Arrasate-Mondragon, Gipuzkoa- 1937 Elgeta, Gipuzkoa) gerra garaian bere jaioterrian sortutako gazte sozialisten "Dragones" izeneko 22. Batailoian (Meabe 5) borrokatu zen. Matxinatutako tropak Elgetan sartu ondoren hil zuten 1937ko apirilaren 24an. Inguruko bizilagun baten testigantzak haren gorpuzkiak aurkitzea ahalbidetu zuen.

Aurrekariak

1936ko urriaren hasieratik 1937ko apirilaren amaieraraino, fronte-lerroa finkatuta geratu zen Ondarroatik Gatzagarainoko lerroan; Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza frankisten kontrolpean, eta Kalamendi, Eibar, Elgeta eta Udalatik Aramaio-raino, errepublikazaleen agindupean.

Borrokak berriz ere hasi ziren 1937ko apirilaren 20an, Bergara eta Arrasatetik, Nafarroako VI. Brigadaren erasoa eta artilleria indartsua tarteko. Hala-ber, abazio frankista eta alemanaren etengabeko

bonbardaketak izan ziren Intxorta mendigunearen gainean. Aldi berean eraso bat egin zen Otxandiotik, mendigunearen atzeko parterantz, taktika inguratzaila erabiliz.

Hainbat egunetan borroka gogorra eta baja ugari izan ondoren, 1937ko apirilaren 24an tropa matxinatuak Elgetan sartu ziren. Errepresio-egintzen ondorioz, gutxienez hamar pertsona erail zituzten.

Antzuategi Bastarrekoa baserrian, matxinatuek armada errepublikarreko sei gudulari atxilotu zituzten. Ondorioz, sei milizianoak eta baserriko jabea

(Jose Vicente Garai Arenaza) erail zituzten. Azken horren hilotza bere familiak berreskuratu zuen eta kanposantura lekualdatu. Beste sei gorpuak etxetik hurbil lurperatu ziren, obusen inpaktuak lursailan eragindako bi sakonunetan.

Victor Garairi (baserriko auzokidea) egindako elkarriketa batean berretsi zenez, 1937ko apirilaren 24an, larunbata, Antzuategiko baserrira iritsi zirenean, etxean ezkutatuta zeuden, bonbardaketa bizietatik babestuta, bere aita Vicente Garai eta zazpi gudari. Guztiak erail zituzten, eta horietatik sei lurperatu zituzten "bere baserriaren atzean zegoen bonba batek eragindako zuloan".

Berez, bi hobi ziren, eta bakoitzean hiru pertsona zeuden ehortzita, bonben inpaktuen eraginez sortutako bi kraterretan.

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

Gorpuzkiak lurpetik ateratzeko lanak ekainaren 16tik 22rako egunetan egin ziren, informazioa eman zutenek adierazitako bi kokapenetan. Lursailan ez zegoen kanpo-seinalerik, baserriaren atzeko partean maldan zegoen larre-inguru bat baitzen.

Lehen hobia eraikinetik metro gutxira zegoen. Geruza naturalen arteko zulo batean jarri ziren hiru pertsonen eskeletoak. Horietatik bi ahoz gorako etzanera zeuden, eta lurzoru naturalaren gainean zegoena, bestalde, ahoz beheko etzanera. Bi gizonezko heldu gazteren eta gizonezko heldu nagusi baten gorpuak ziren.

1. gizabanakoak koilara eta sardexka bat zituen; **2. gizabanakoak** gasolina-txiskero bat, hodi-giltza bat, arkatz bat, urrezko eraztun bat eta granatezko harri bat itsatsita. **3. gizabanakoaren** ondoan, beroki baten botoiak, metxa-txiskero bat, urrezko eskumuturreko erloju bat, eta ezohiko identifikazio-plaka bat aurkitu ziren.

Azken hori larruzko uhalean errematxatutako txapa bat zen, baina nabarmenena zen bertan Euzkadiko Gobernuaren 2 pezetako txanpon bat ikus zitekeela, eta haren atzean, titularrak bere gudari-zenbakia grabatu zuela: **71513**.

Identifikazio-prozesua

Identifikazio-plakaren zenbakiari esker jakin ahal izan zen nori zegokion gorpua, Euzkadiko Gudarosteko nominen zerrenda kontsultatu ondoren. Jesus Zuazua Mondragonen gorpua litzateke. Arrasaten jaiotako auzokide honek Dragones Batailoian borrokatu zuen.

Beste bi gizabanakoen kasuan, ez dago haiek identifikatzeko daturik.

Berriz ehorzteko prozesua

Jesus Zuazua Mondragonen gorpuzkiak, eta hobi horretan identifikatu gabe zeuden bi pertsonenak, Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren 2017ko urtarrilaren 30ean, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Antzuategi 2 hobia

Kokapena: Antzuategi baserria, Elgeta (Gipuzkoa)

Biktimak: 3

Data: 2004ko ekainaren 16tik 22ra



Aurrekariak

1936ko urriaren hasieratik 1937ko apirilaren amaieraraino, fronte-lerroa finkatuta geratu zen Ondarroatik Gatzagarainoko lerroan; Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza frankisten kontrolpean, eta Kalamendi, Eibar, Elgeta eta Udalatik Aramaio-raino, errepublikazaleen agindupean.

Borrokak berriz ere hasi ziren 1937ko apirilaren 20an, Bergara eta Arrasatetik, Nafarroako VI. Brigadaren eraso eta artilleria indartsua tarteko. Hala-ber, abiazio frankista eta alemanaren etengabeko bonbardaketak izan ziren Intxorta mendigunearen gainean. Aldi berean eraso bat egin zen Otxandiotik, mendigunearen atzeko parterantz, taktika ingurutzaila erabiliz.

Hainbat egunetan borrokak gogorra eta baja ugari izan ondoren, 1937ko apirilaren 24an tropa matxinatuak Elgetan sartu ziren. Errepresio-egintzen ondorioz, gutxienez hamar pertsona erail zituzten.

Antzuategi Bastarrekoa baserrian, matxinatuek armada errepublikarreko sei gudulari atxilotu zituzten. Ondorioz, sei milizianoak eta baserriko jabea (Jose Vicente Garai Arenaza) erail zituzten. Azken horren hilotza bere familiak berreskuratu zuen eta kanposantura lekualdatu. Beste sei gorpuk etxetik hurbil lurperatu ziren, obusen inpaktuak lursailean eragindako bi sakonunetan.

Victor Garairi (baserriko auzokidea) egindako elkar-rrizketa batean berretsi zenez, 1937ko apirilaren 24an, larunbata, Antzuategiko baserrira iritsi zirenean, etxean ezkutatuta zeuden, bonbardaketa bizietatik babestuta, bere aita Vicente Garai eta zazpi gudari. Guztiak erail zituzten, eta horietatik sei lurperatu zituzten "bere baserriaren atzean zegoen bonba batek eragindako zuloan".

Berez, bi hobi ziren, eta bakoitzean hiru pertsona zeuden ehortzita, bonben inpaktuen eraginez sortutako bi kraterretan.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

1. hobitik gorpuzkiak atera ondoren, bigarren hobiko lanak hasi ziren, aurreko hobitik metro eskasera, hegaleko maldan.

Lurperatzeak, kasu honetan, lurreko estratu batean azaleratutako horma harritsuaren kontra egin ziren. Hezurduren kokapena ikusita, pentsatzekoa da azkar egin zela, aurrez pentsatu gabeko moduren batean. Izan ere, 1. gizabanakoa ahoz gorako etzanera dago eta 2. gizabanakoaren gainean oso tolestuta.

Hiru borrokalarietako bi 20 urtetik beherakoak ziren, eta hirugarrena heldu gaztea zela kalkulatu zen.

Berreskuratutako objektuen artean: 1. gizabanakoak gerriko-belarri bat, bi txanpon eta kartutxo-kaxa bat zituen. 2. gizabanakoak ere gerrikoa zuen eta baita zilarrezko kate bat ere, zilarrezko domina arrauzkara batekin (Ama Birjinaren irudiarekin) eta zeluloidezko hortzetako eskuila. Era

berean, goiko masailazurrean erdiko ebakortzen ordeztu Steel portzelanazko protesi finko bat eta urrezko zorroak zituen.

2. gizabanakoaren garezurrean, sarrera-zulo bat aurkitu zen ezkerreko ezkata tenporalean, eta su-arma baten jaurtigaiaren irteera eskuineko lokian.

Identifikazio-prozesua

Ezin izan da jakin gudulariak nortzuk diren.

Berriz ehorzteko prozesua

Berreskuratutako gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan utzi ziren, 2017ko urtarrilaren 30ean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, Gogorak, antolatutako ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Zabale baserria hobia

Kokapena: Zabale baserria, Mutriku (Gipuzkoa)

Biktimak: 1

Data: 2004ko urriaren 10a eta 12a



Aurrekariak

Asensio Ansorregik 10 urte zituen orduan. Gogoratzen zuenez, 1936ko erdialdean, tropa frankistek pertsona bat hil zuten bere baserritik (Zabale) hurbil. Hildakoa, antza, Azkoitia edo Azpeitikoa zen, eta euskal milizietako kidea zen. Gorpua baserriaren ondoan lurperatzeko proposatu zen arren, azkenean, 300 metro eskasera ehorztea erabaki zen, ipar-ekialdean, malda suabea zuen larre-inguru batean. Gorpua estaltzeko, leku horretan bertan lursailak bereizteko dagoen horma bateko harriak aprobetxatu ziren. Harrezkero, lursailean ez zen lurrak mugitzeko lanik egin, eta, beraz, larrean zehaztasun osoz identifikatu zitekeen hobia.

Iñaki Egañak egindako azterketa historikoaren arabera, 1936ko irailaren 20an tropa frankistak Mutrikura iritsi ziren, Bizkairantz bidean, astebete lehenago Donostia beren esku geratu ostean. Mutrikun ez zen borrokarik egon. Borrokarik hurbilean bezperan izan ziren, Itziarren, eta, intentsitate gutxiagoz, Deban. Bi aste lehenago Irunen posizio

errepublikazaleak erori zirenetik borroka gogorrenetakoak izango ziren, seguru asko. Borroka horietan parte hartu zuten, tropa leialetatik, Bilbotik iritsitako anarkista batzuek. Talde oparo horretan dozenaka baja egon ziren.

Zutabe frankista kostaldetik paralelo zihoan errepidetik joan zen. Jose Iruretagoyena zen buru, Lodosako koronela (Nafarroa). Errepublikazaleen aldean, agintariak Bizkairaino erretiratu ziren, baina lider sindikaletako batzuk Eibarren zeuden. Pentsatzekoa da frankistek posizio errepublikazaleak gauditutakoan hainbat miliziano harrapatuak izan zirela, are gehiago kontuan hartuta ez zituztela lur horiek ezagutzen.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

2004ko urriaren 10etik 12ra bitartean egin ziren gorpuzkiak hobitik ateratzeko lanak. Hobia lursail natural batean zegoen induskatuta, gehienez 40 zentimetrorainoko sakoneran, buztinaz betetako

marga-geruzan. Hobia estaltzeko, tamaina desberdinetako kareharritzko harriak jarri ziren, handik hurbil zegoen horma batetik ekarriak. Horma horrek larrean lursailak mugatzen zituen.

Barrualdean, gorpua, ziur aski, ahoz gorako etzane-
ra jarri zen. Horixe ondorioztatu genuen gorpuzkiak
hobitik ateratzeko lanetan, hezur-ezpal batzuen koka-
penagatik. Kontserbazio-egoera oso eskasa zen, lur-
zoruaren gainean silueta interpretatu zitekeen arren.

Gorpuarekin lotutako hainbat objektu berreskura-
tu ziren, besteak beste lepoan zeraman zilarrezko
katea, zeinak domina laukizuzen bat baitzuen eske-
gita aurrean Begoñako Ama Birjinaren irudiarekin
eta atzean Jesusen Bihotz Sakratuaren irudiarekin.
Era berean, kremaileko krokadura bat, bost botoi
metaliko (bost puntuko izar batekin eta galburua-
ren marrazki batekin), eta praketak bi botoi beltz
aurkitu ziren.

Ezin izan zen heriotza azaltzen zuen arrazoi edo pa-
tologiarik ezarri.

Identifikazio-prozesua

Ikerketak egin ziren, hainbat aukera kontuan har-
tuta, gorpuaren nortasuna orientatu ahal izateko,
baina guztiak baztertu ziren.

Berriz ehorzteko prozesua


Hezur-hondarrak Elgoibarko Duintasunaren Kolun-
barioan gorde ziren, haren inaugurazioan, 2017ko
urtarrilaren 30ean, Iñigo Urkullu Lehendakaria
buru zela.

Iragorri hobia

Kokapena: Iragorri, Oiartzun (Gipuzkoa)

Biktimak: 5

Data: 2007ko abuztuaren 28a eta 29a



Aurrekariak

Jakinekua zen Iragorri izenez ezagutzen den lekuan, Artikutza parkera igotzeko errepidearen ondoan (4. km), Oiartzun udalerrian, hainbat pertsona lurperatu zirela, 1936ko urrian eta azaroan erailak izan zirenak. Kokapen hori errepideko bihurgune oso handi baten barruko angeluan zegoen, haritz eta akazia landaretza ugari dagoen inguru batean.

Jesus Eloseguiaren (Aranzadi Zientzia Elkartearen sortzailea) dokumentazio-funtsean leku haren hainbat argazki daude, 1942an eginak, "Oyarzun ilerria" izenburupean. Hala, jakina zen kokapen horretan hobi bat edo hainbat zeudela.

1960an, leku hartan gorpuzkiak hobotik ateratzeko eragiketa bat egin zen. Izan ere, fusilatu eta lurperatu zen pertsonetako bat Eskoriatzako Marin auzoko abadea izan zitekeela uste zen, Jorge Iturricastillo. Azken hori, izan ere, Donostiako Ondarreta kartzelara atxilotu eta bertatik atera zuten, beste preso batzuekin batera, eta 1936ko azaroaren 7an erail zuten. Eusko Deya egunkariaren 3264 zenbakiko lehen orrian, hondarrak hobotik ateratzeko egindako lanak jasotzen dira. Horren arabera, lan horiek gelditu egin ziren, apaizaren sotana, betaurrekoak

eta luma estilografikoa aurkitu zituztenean. Baina, dioenez, emakume baten oinetakoak ere aurkitu zituzten. Jose de Artechek 1977an argitaratutako testuan ere ("Un vasco en la postguerra. Diario Vasco 1939-1971") antzera deskribatzen da pasartea.

Oiartzungo "Kattin-txiki" Elkartea (zeinak leku horri emandako izenagatik baitu deitura hori), ezkutuko lurperatzeak bilatu eta aurkitzeko lanak sustatu zituen. 2007ko otsailean, georradar bidezko prospekzioa egin zen inguruan, baina ez zen emaitzarik jaso. Kattin-txiki taldearen nekaezintasunari esker, hala ere, bi hobiren kokapena aurkitu ahal izan zen, aurrerago.

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

2007ko abuztuaren 28 eta 29 artean, bost pertsonen gorpuzkiak hobotik atera ziren. Lursaila oso aldatuta zegoen, baina 2 metro luzeko eta metro zabal bateko hobi laukizuzen bat bereizi ahal izan zen, hobiaren barruko lur ilunak ingurukoarekin egiten zuen kontraste garbiaren zioz.

Nahiz eta hezur-hondarrak narriatuta eta lekualdatuta egon, gorpuen kokapenaren gaineko gutxi gorabeherako interpretazioa egin ahal izan zen.

Hondarren egoera eskasak, hala ere, azterketa antropologikoa mugatu zuen. Goiko eta beheko gorputz-adarretako hezur luzeen diafisiak, hiru koxal eta hainbat garezur-zati berreskuratu ziren. Hala-ber, hortz-protesiak hiru talde aurkitu ziren, urrezko hortz-tratamenduak zituztenak. Gutxienez bost pertsonarenak izango zirela kalkulatu zen. Horieta-tik gutxienez hiru gizonezkoak ziren.

Aurkitutako objektuen artean, aipatzekoak dira la-rruzko zapata-pare bat, takoidun zapaten zola-pare bat, eta bota batzuk. Horiez gain, bi txapela beltz berreskuratu ziren, oso narriatutak; bi mahuka-biki laukizuzen; aluminiozko domina arrauzkara bat, Mi-rarien Ama Birjinarena; 5 zentimoko hiru txanpon, 1879koak, Alfontso II.arenak; kremailera bat; eta bi gerriko-bi belarri. Era berean, galtzerdiak edo gal-tzetak eusteko krokadura metaliko bat aurkitu zen.

Halaber, lau munizio-zorro (Mauser), kartutxo bat, berunezko bi jaurtigai deformatu, eta aurrekargako arma baten berunezko jaurtigai esferiko bat aurki-tu ziren.

Identifikazio-prozesua

Oraingoz, ezin izan dira hobi horretan aurkitutako gorpuzkiak identifikatu.

Berriz ehorzteko prozesua

Luis Peña Ganchegui arkitektoak 1977an Oiartzun-go kanposantuan Gerra Zibileko biktimen omenez eraiki zuen kriptan gorde ziren hondarrak. Hara le-kualdatu ziren, era berean, Iragorritik zetozen hon-darrak, 1960an desobiratu zirenak.

Madarixa hobia

Kokapena: Madarixa auzoa, Azkoitia (Gipuzkoa)

Biktimak: 1

Data: 2007ko abenduaren 22a



Aurrekariak

Felix Etxeberria elgoibartarrak jakinarazi zuenez, Madariaga/Maradixa (Azkoitia) auzoko hainbat auzokidek adierazi zioten non lurperatu zen pertsona bat, 1936ko irailaren 21ean, Azkoititik Elgoibar hartzera altxatu ziren tropek aurrera egin bitartean. Iturri horien esanetan, lurperatutako pertsona miliziano bat zen, su-arma baten zauria zuena aurpegian. Bere gorpua bidean abandonatuta geratu zen, eta, hiru egunetara, lurperatu egin zen.

2004ko martxoaren 27an, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek, Felix Etxeberriarekin batera, Madarixa auzoko goiko aldera jo zuten. Bertan zegoen, hain zuzen ere, ezkutuko lurperatzea, Elgoibartik Azkoitirako errepidearen ezkerreko aldean. Kasu horretan, oso konplikaturatzen jo zuen hondarrak berreskuratzea. Izan ere, lekua zabortege bihurtuta zegoen, eta zabor ugari zegoen bertan metatuta.

2007ko abenduaren 15ean, Elgoibar 1936 talde memorialistak, pala mekaniko baten laguntzaz, eta bertan zegoen zabor ugaria erretiratu ondoren, leku hartan zegoen elurtegi baten (Neberi zaharra) sakonean eta erdian ehorzketa bat aurkitu zuen. Abenduaren 18an, eskeletoa osorik eta kontserbazio-egoera onean zegoela egiaztatzen zen.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

8 metrotik gorako diametroa zuen elurtegi biribil baten sakonean zegoen hobia. Gorpua ahoz gorako etzanera zegoen, beheko gorputz-adarrak enborrarekin lerrokatuta. Burua ezkerreantzat alboratuta zegoen, eskuineko eskua pubisaren sinfisiaren gainean kokatzen zen, eta ezkerreko eskua albo bereko mokorraren gainean.

Gizonezko heldu gazte baten gorpua zela ondorioztatzen zen, 30 eta 40 urte artekoa. Heriotzaren arrazoiarekin lotuta, eskuineko masailalbo-hezuraren beheko ertzetik hezur bat kenduta zegoela antzematen zen. Su-arma baten jaurtigaia bertatik pasatzen kendu ahal izan zen hezurra.

Lesio hori bat zetorren lekukoek emandako informazioarekin. Horren arabera, lurperatutako milizianoak su-arma baten ondoriozko zauria zuen aurpegian.

Momentuz, ezin izan da gorpu horren nortasuna ezarri.

Identifikazio-prozesua

Gorpua hobotik atera zen egun bereko goizeko 12etan, omenaldi-ekitaldi bat egin zen, eta, bertan izan ziren Azkoitia eta Elgoibarko Udaletako ordezkariak, bai eta beste hainbat pertsona ere.

Berriz ehorzteko prozesua

Berreskuratutako gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2017ko urtarriaren 30ean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, Gogorak antolatutako ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Burdinazko zubia 1 hobia

Kokapena: Burdinazko zubia, Donostia (Gipuzkoa)

Biktimak: 3

Identifikatutako pertsona-kopurua: 2

Data: 2009ko ekainaren 29tik uztailaren 1era



Millan Zabala Fernandez (1881 Najera, Errioxa – 1936 Donostia, Gipuzkoa) Najeran (Errioxa) jaio zen, Donostiako Udaleko langilea zen eta gauzain gisa lan egiten zuen. 1936ko irailaren 27an hil zuten, 55 urte zituela.

Jose Zubiarrain Zabaleta (1894 Leitza, Nafarroa – 1936 Donostia, Gipuzkoa) Udal langilea eta basozaina zen. Leitza jaioa zen eta Donostiako Egia auzoko bizilaguna. CNTko kidea zen. Falangeko kideek atxilotu zuten bere auzoan eta desagertua izatera pasa zen.

Aurrekariak

Donostian, 1936ko uztailaren 18ko estatu-kolpeak porrot egin zuen lehen fasean, baina irailaren 13an armada matxinatuaren hainbat zutabe sartu ziren hirian, erregimen errepublikazalea baztertzeko. Gerraren lehen ataletik Burdinazko Zubi inguruan pertsona asko erail zituzten judizioz kanpo exekutatutak. Hasiera batean errepublikazaleen eskutik, eta, hiria hartu ondoren, eta modu askoz gordina-goan, tropa matxinatuen eskutik.

2009ko uztailan, lan batzuk garatu ziren Burdinazko Zubiaren inguruan, hirira sartzeko sarbide

berri bat egin eta trenbidearen trazadura aldatzeko. Lan horietan, hobi bat deskubritu zen, eta, egun batzuk geroago, bigarren bat, aurreko hobitik oso gertu.

Iñaki Egañak egindako ikerketa historikoaren arabera, hobi hauetan aurkitutako gizabanakoak altxatutako indarrek hil zituzten, Donostiako udal-langileak bait zirela uste zen. Ideia horri eusteko, gakoa izan zen 6 botoi agertu izana, langile horien uniformearen bereizgarri zirenak.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Aurkikuntza horren berri eman zitzaion Donostia-ko Auzitegiari, eta hark, Prozedura Kriminalaren Legearen 778. artikulua araberak, gorpuzkiak hobitik ateratzeko eragiketan auzitegi-medikuek ikertu eta esku hartzeko agindu zuen. Hala, Luis Miguel Querejeta eta Patricia Rodríguez-Martínez auzitegi-medikuak arduratu ziren hondarrak hobitik ateratzeko. Era berean, Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Saileko kideen lankidetzak eskatu zen, zeregin horietan zuten ezagutzagatik eta esperientziagatik.

Hobiak kono itxura zuen. Ibaiak ekarritako lohi eta hareazko lur batean zegoen. Bertan ehortzita zeuden hiru pertsona, guztiak ere gizonezkoak.

1. gizabanakoa eskuineko aldearen kontra bermatuta zegoen, eta heldu nagusi baten gorpua zen. Berakin batera zeuden elementuen artean zapata bat, gerriko-belarria, eta alkandorako nakarrezko hainbat botoi berreskuratu ziren.

2. gizabanakoa ahoz gorako etzanera zegoen, eta 30-50 urte zituela kalkulatu zen. Harekin lotuta, nakarrezko sei botoi aurkitu ziren.

3. gizabanakoa jesarrita eta osorik zegoen. Eskuineko humeroan *perimortem* haustura bat zuen, jaurtigai batek eragindakoa. Toraxean, bost botoiek osatutako lerro bat aurkitu zuten, "SS" inskripzioarekin; horixe izan zen elementurik nabarmenena. Izan ere, udaleko funtzionarioa zela ondorioztatu zitekeen. Ondoan, nakarrezko botoiak, gerriko-belarri bat eta gerrikoko zati batzuk ere aurkitu zituzten.

Identifikazio-prozesua

Pertsona horiek identifikatzeko lanak orientatu ahal izateko elementu nagusia "SS" inskripzioa zera-maten botoiak ziren. Udaleko uniformeak zeraman langilea zela ondorioztatu ahal izan zen horrela: su-hiltzailea, hiriko guardia, gauzaina, udal-banda-ko kidea, eta abar.

Errepublikazaleek eraildako hainbat pertsona eta frankistek hildako beste hainbat baztertu ondoren udal-agenteen artean, hipotesi bat zegoen: **Millan Zabala Fernandez** izan zitekeela. Bestalde, **Jose Zubiarrain Zabaletaren** senideak Aranzadirekin harremanetan jarri ziren, hura ere hobitik ateratako gorpuen artean egon zitekeelakoan.

Hezur-hondarrak eta lagin ez-zalantzazkoak erkatze-ko proba genetikoak egin ziren Toxikologiako Institutu Nazionalan. Emaizta positiboa izan zen, eta, beraz, berretsita geratu zen lehen proposatutako bi biktimak zeudela 1. hobian, eta 1. gizabanakoa eta 3. gizabanakoa zirela proposatutako pertsonak. Biktima horiek 1936ko irailaren 27an erail zituzten.

Berriz ehortzeko prozesua

Jose Zubiarrainen gorpuzkia familiari eman zitzaion.

Millan Zabala eta hirugarren gizabanakoarena, El-goibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak 2018ko otsailaren 9an antolatutako ekitaldian.

Burdinazko zubia 2 hobia

Kokapena: Burdinazko zubia, Donostia (Gipuzkoa)

Biktimak: 4

Data: 2009ko uztailaren 3a eta 4a



Aurrekariak

Donostian, 1936ko uztailaren 18ko estatu-kolpeak porrot egin zuen lehen fasean, baina irailaren 13an armada matxinatuaren hainbat zutabe sartu ziren hirian, erregimen errepublikazalea baztertzeko. Gerraren lehen ataletik Burdinazko Zubi inguruan pertsona asko erail zituzten judizioz kanpo exekutatutak. Hasiera batean errepublikazaleen eskutik, eta, hiria hartu ondoren, eta modu askoz gordina-goan, tropa matxinatuen eskutik.

2009ko uztailan, lan batzuk garatu ziren Burdinazko Zubiaren inguruan, hirira sartzeko sarbide berri bat egin eta trenbidearen trazadura aldatzeko. Lan horietan, hobi bat deskubritu zen, eta, egun batzuk geroago, bigarren bat, aurreko hobi-tik oso gertu.

Iñaki Egañak egindako ikerketa historikoaren arabera, hobi hauetan aurkitutako gizabanakoak altxatutako indarrek hil zituzten, Donostiako udal-langileak bait zirela uste zen. Ideia horri eusteko, gakoa izan zen 6 botoi agertu izana, langile horien uniformearen bereizgarri zirenak.

Gorpuzkiak hobi-tik ateratzeko prozesua

Bigarren hobia zanga batean zegoen. Bertan, lau pertsona zeuden ehortzita, eta horietatik hirugarrena emakumezkoa zen.

1. gizabanakoa ahoz beherako posizioan zegoen, eskuineko aldearen gainean bermatuta. Gizonezko heldu baten gorpua zen, 30 eta 50 urte artekoa. Lotutako elementuen artean alkandora bateko narkarrezko botoi bat eta gomazko zolako zati bat berreskuratu ziren.

2. gizabanakoak antzeko adina zuen gizonezko bat zen. Labana bat, metalezko gerriko-belarri bat, narkarrezko hiru botoi eta kautxuzko zola bat aurkitu ziren bere zitzaizkion.

3. gizabanakoa emakumea zen eta 30-50 urte arteko adina zuen. Ahoz beherako etzanera zegoen, goiko gorputz-adarrak irekita eta tolestuta. Hezur-duraren goiko erdia baino ez zen geratzen. Hari lotuta berreskuratu ziren bakelitzako kargagailu bat (marka: "Hercules & Kamm"; inskripzioa: "New York. Hamburg GWC^a Garantiert 1933") haga metaliko bat, eta jaurtigai baten zatia.

4. gizabanakoa ahoz beherako etzanera ehortzita zegoen, ezkerreko besoa irekita eta tolestuta, eta

eskuinekoa toraxaren azpitik luzatuta; beheko gorputz-adarrak luzatuta eta zabalik zituen. Gizonezko heldu baten gorpua zen, 30 eta 50 urte artekoa. Eskuineko humeroan perimortem haustura bat zuen.

Hezur-hondarrak Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko Auzitegi Patologiako Zerbitzura (Gipuzkoako Zuzendariordetza) lekualdatu ziren, bertan azterketa antropologikoa egiteko. Ondoren, Toxikologiako Institutu Nazionalera bidali ziren, eta, han, azterketa genetikoak egin ziren.

Identifikazio-prozesua

Ez zen identifikazio-lana erraztu ahal izateko hipotesirik edo hautagairik planteatu, eta, beraz, ezin

izan da jakin noren gorpuak ziren. Azterketa genetikoaren arabera, 3 eta 4 gizabanakoaren artean bazegoen kointzidentzia genetiko mitokondrial edo ahaidetasuna, amaren partetik.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.



Ziardamendi hobia

Kokapena: Ziardamendi, Elgoibar (Gipuzkoa)

Biktimak: 4

Identifikatutako pertsona-kopurua: 2

Data: 2012ko ekainaren 16a



Sabino Atutxa Olabarria



Eusebio Gaubeka Guibelondo



Sabino Atutxa Olabarria (1917 Bilbo, Bizkaia – 1936 Elgoibar, Gipuzkoa). Bilbokoa jaiotzez eta Getxoko bizilaguna. Boluntarioen batailoietan izena eman zuen 1936ko irailean. Gordexola (EAJ) 16. batailoiko Garaizabal Konpainiako kide izan zen. Elgoibarko frontean hil zen 1936ko irailaren 25ean.

Eusebio Gaubeka Gibelondo (1916 Leioa, Bizkaia - 1936 Elgoibar, Gipuzkoa). Leioakoa, ezkongabea eta lanbidez ezkongabea. Gordexola (EAJ) 16. batailoiko kidea zen. 1936ko irailaren 25ean hil zen, San Migeleko frontean (Elgoibar) jasotako zaurien ondorioz.

Aurrekariak

1936ko irailaren amaieran, borroka gogorrak egon ziren Ziardamendin, San Miguel gainetik hurbil, El-goibar udalerrriaren (Gipuzkoa) eta Markinaren (Bizkaia) artean. Egunik kritikoena, eta baja gehien eragin zituen, hilabete horretako 25a izan zen. Posizioa, ikuspegi estrategikotik erreparatuta, oso garrantzitsua zen. Izan ere, aurrerapen frankista eusten ari zenez, frontea sektore horretan egonkortu ahal izan zen, tropa erreboltaiek 1937ko martxoaren 31tik aurrera egin zuten eraso berrira arte. Elgoibarko inguru hartan zegoen San Miguel ermitako posizioa, Intxorta mendietako frontearekin lotzen zena.

1936ko irailaren 24an, 150 boluntario nazionalista (EAJkoak) inguru eraman zituzten sektore horietara, besteak beste, Abandotik, Barakaldotik, Deustutik eta Begoñatik. Irailaren 25eko goizaldean sartu ziren borrokan. Gazteek, Arana Goiri batailoia osatzen zuten, "Kortabarria", "Etxebarria", "Garaizabal" eta "Zubiaur" konpainien artean banatzen zena. Egun hartan, hamahiru gudari inguru hil ziren borrokan, eta Ziardamendi matxinoen tropek okupatu zuten irailaren 25etik aurrera. Hurrengo egunetan, beste zazpi baja izan ziren batailoian, Bizkairanzko atzera-egitean. Ziardamendiko borroketan zuzenean hil zirenak mendian sakabanatuta geratu ziren, ezinezkoa izan baitzen beren gorpuak berreskuratzea. Kolpistek posizioa hartutakoan, egun batzuk berandua-go, auzokideek, tartean Ziarda baserriaren jabeak, hilotzak hartu eta lurperatu zituzten, lekuan bertan egindako hobi komunetan.

1982ko uztailaren 9an Deia egunkarian argitaratutako albiste baten bitartez, jakinekoea da hobi horietako bat, 1982an hustu zela eta berreskuratutako hondarrekin lotutako sei gudariak honako hauek zirela: Paulino Beraza Madariaga, Felipe Elorriaga Larrea, Blas Larrazabal Inunciaga, Juan Zabala Loza, Ambrosio Echevarria Uriarte eta Jose Chinchurreta Zamacona. Derioko kanposantuan ehortzi ziren berriez (Bizkaia).[1].

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Lau borrokalarrien hobia Ziarda mendiaren iparraldeko hegalean egin zen, malda handiko leku

batean. Bertan, gaur egun, pinudi bat dago. Hala ere, tamaina txikiko lautada bat antzeman daiteke, antzina txondor baten plataforma moduan erabili ahal izan zena. Gorpuak buztinezko lursail bigun batean metro baterako sakoneran ehortzi ziren, landaretza begetal asko zegoen lekuan.

Hezurren hondarrak luzetara jarri ziren leku hartako marga-geruza hauskor baten gainean, 3,80 metro luze eta metro bat zabal okupatuz. Gorpu guztiak zeuden ahoz gorako etzanera, elkarren aurka, baina elkarren gainean egon gabe, oinen gunean baino ez baitzuten elkar ukitzen.

Hezurren hondarrek ez zuten kontserbazio-egoera ona, hezetasunaren eta lurzoruen azidotasunaren ondorioz.

1. gizabanakoa gizonezko heldu gazte bat zen, 30 urtetik beherakoa. Heriotzaren arrazoiarekin lotuta, 42 mm luzeko lesio bat zuen, kanal formakoa, 21 mm-ko zabalerarekin, eskuineko parietalaren gainean. Su-arma baten jaurtigaia tangentialki bertatik pasatzearen ondorioz hautsi ahal izan zen.

2. gizabanakoa: 20 urte inguruko gizonezko heldu gaztea. Garezurean hausturak zituen, batez ere atzeko partean; ezkerreko parietalean eta okzipitalean eragiten zuten.

3. gizabanakoa: 20 urte inguruko gizonezko heldu gaztea. Garezurean hausturak zituen, batez ere ezkerreko aurreko aldean eta okzipitalean.

4. gizabanakoa: Gizonezko heldu gaztea. Garezurean haustura ugari zituen, aurretik atzera zihoazenak.

Lesio traumatikoak ere antzeman dira. Garezureko trauma bat, hausturekin kasu guztietan, su-arma baten jaurtigaia inpaktu zuzenaren ondorioz.

Identifikazio-prozesua

Baja-parteen eta kanpainako egunkarietako dokumentazioa ikertuta gudulariak nortzuk izan zitezkeen planteatu zen. Ondoren, hezur-hondarretatik hartutako laginak senide izan zitezkeenekin alderatu eta emaitzek ondokoa egiaztatu

[1] Deia 1982/07/09

zuten: 2. gizabanakakoa Sabin Atutxa Olabarria zela eta 3. gizabanakakoa Eusebio Gaubeka Guibelondo.

Berriz ehorzteko prozesua

Sabino Atutxa Olabarriaren gorpuzkiak eta 1. eta 4. Gizabanakoenak Elgoibarko Duintasunaren Ko-

lunbarioan ehortzi ziren 2017ko urtarrilaren 30ean, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela.

Eusebio Gaubeka Guibelondoren gorpuzkiak familiari eman zizkioten.



Amasako hilerria hobia

Kokapena: Amasako hilerria Amasa-Villabona (Gipuzkoa)

Biktimak: 6

Identifikatutako pertsona-kopurua: 3

Data: 2013ko uztailaren 24a



Agustin Garmendia Urkola (¿Amasa-Villabona, Gipuzkoa -1936 Tolosa, Gipuzkoa) Josefa eta Jose Agustinen semea, ezkondua eta bi seme-alaba eta lanbidez behargina. Tolosako hilerrian fusilatu zuten 1936ko urriaren 1ean.

Joxe Garmendia Iraola (¿Amasa-Villabona, Gipuzkoa -1936 Tolosa, Gipuzkoa) Langilea lanbidez, ezkondua eta bi seme-alabekin, Tolosako hilerrian fusilatu zuten 1936ko urriaren 1ean.

Cruz Iribarren Ezkioga (¿Villabona, Gipuzkoa - 1936 Tolosa, Gipuzkoa) papergilea lanbidez eta ez-kongabea. Zizurkilen bizi zen eta Tolosako hilerrian fusilatu zuten 1936ko urriaren 1ean.



Aurrekariak

Aranzadiko kide den Karlos Almorzak emandako informazioaren arabera, Amasako kanposantuko Zapi-rain familiaren panteoian berriz ere ehortzi ziren 1936ko urrian Tolosan izandako errepresioan frantsek erail zituzten pertsonen hezur-hondarrak.

Hondar horiek panteoi honetara eraman ziren, zehaztu gabeko data batean, haren jabe zen familiaren baimenarekin. Ondoren, familiaren beste lurperatze batzuk egin behar izan direnean erabili da panteoia.

Hezur-hondarrak, honako hauenak dira: **Agustin Garmendia Urkola, Joxe Garmendia Iraola, Cruz**

Iribarren Ezkioga eta izen ezezaguna duen baina dirudienez jatorri madrildarrekoa den beste pertsona batenak.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Panteoiko esku-hartzea Zapirain familiaren baime-narekin eta Amasa-Villabonako Udalaren babes instituzionalarekin egin zen. Udalaren ordezkari izan zen, besteak beste, Nora Urbizu andrea, Kultura eta Euskarako zinegotzia eta memoria historikoaren arduraduna. Halaber, udalerriko Aritza Kultur Elkar-tea aritu zen koordinazio-lanetan.

Hondarrak hobitik ateratzen hasi baino lehen, elkar-rrizketa grabatu zitzaion M^a Pilar Iribarren andreari, Cruz Iribarrenen senideari. Hark azaldu zuen familiak zein informazio zuen 1936ko urriaren 1ean Tolosan Villabonako lau auzokide atxilotu, lekualdatu eta erail zituztenekoaz.

Panteoia kanposantuen sakoneko korridorean zegoen, eskuineko aldean. Sakonean eraikita dago, hiru albo-erretilu daudela alde bakoitzean, barrualdean, bai eta erdiko espazio bat ere, sakoneko horman, horma-hobi itxurakoa. Bertan, murrizketetatik eratorritako hezur-hondar ugari zeuden. Horma-hobi horrek konfigurazio bertikala dauka, 80 zentimetroko sakonerakoa.

Horma-hobi horretatik hezur-hondar guztiak atera ziren. Hondarrek kolore beltzaxka zuten, infiltrazio-urez gainezka egon izanaren bereizgarri.

Inbentarioan, goiko eta beheko gorputz-adarretako hezur luzeen, koxalen, tartsoko hezurren, zortzi pertsonaren garezurren eta gutxienez hamahiru

pertsonaren masailezurren hondarrak jaso ziren. Masailezur horietatik sei gizonezkoenak zirela zehaztu zen.

Ondorengo azterketak egiteko, garezurreko haustura gisa identifikatu ziren lesio traumatikoak ziztuzten garezur-zatiak hautatu ziren. Zehazki, hausturak antzeman ziren hiru harkaitz mastoideotan. Ziur aski, energia altuko inpaktuaren ondorioz sortuko ziren, su-armaren ziozko lesioetan halaxe gertatzen baita. Tiroek eremu zefalikoan jo zuten, garezurren oinarrian.

Identifikazio-prozesua

Hala egiaztatu zen Amasako kanposantuko Zapirain familiaren panteoian zeuden hezur-hondarretako batzuk Tolosako kanposantuan desobiratutako hobitik zetozela. Biktima hauei buruz ari gara, zehazki: **Agustin Garmendia Urkola**, **Joxe Garmendia Iraola** eta **Cruz Iribarren Ezkioga**. Pertsona horien erailketa, era berean, Tolosa eta Villabonako artxi-boetan ageri den dokumentazioan berretsi zen.

Berriz ehorzteko prozesua

2014ko martxoaren 29an Amasa-Villabonako Udalean egindako omenaldi-ekitaldi batean entregatu ziren hezur-hondarrak. Bertan egon ziren Martin Garitano, Gipuzkoako diputatu nagusia, Amasa-Villabonako Udaleko alkatea eta udalbatzako hainbat kide, eta goian aipatutako biktimen senideak. Hezur-hondarrak Amasako kanposantuko Zapirain familiaren panteoian ehortzi ziren berriz.

Txaldataxur mendia 1 hobia

Kokapena: Txaldataxur mendia, Zubieta Donostia (Gipuzkoa)

Biktimak: 1

Data: 2016ko ekainaren 4a



Aurrekariak

Zubietamendin dagoen muino bat da Txaldataxur, Oria ibaiaren gainean. 1936ko abuztuan eta irailan, borroka handiak izan ziren bertan. Altxatutako armadak aurrera egin zezala saihesteko, miliziek eta boluntarioek lubakiz osatutako defentsagune bat eraiki zuten Buruntza, Agerre Buru eta Belkoain inguruan. Lubakien sare hori garbitu eta egokitze-lanetan aritu dira Lasarte-Oriako memoria historikoaren elkarteak (Islada Ezkutuak), eta Aranzadi Zientzia Elkartea, landa-lanen bidez.

Alfredo Irusta Aranzadi Zientzia Elkarteko kolaboratzailea eta ikertzailea da. Hark Txaldataxur mendiaren inguruan egindako ikerketa batean giza hondarrak aurkitu zituen, material metalikoaen ondoan. Aurkikuntza horren berri eman zion Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Sailari, eta hark, era berean, Gogora Institutuari eta udal-agintariei jakinarazi zien.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

2016ko ekainaren 4an, hondarrak ateratzeko lanak egin ziren. Aranzadiko teknikariekin batera aritu ziren, era berean, Islada Ezkutuak taldekoak eta EHUKo Kriminologiako hainbat ikasle.

Lurperatzea ez zen oso sakona. Fenomeno tafonomikoen ondorioz, eskeletoaren hezurra sakabana-tu egin zen, eta bi diafisi baino ez ziren geratzen. Horien ondoan, bakelitzako kargagailu beltz bat eta hortzetako eskuila aurkitu ziren.

Bertan egon ziren Eusko Jaurlaritzako agintariak: Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Monica Hernandez; Gipuzkoako Batzar Nagusietako burua, Eider Mendoz; Gipuzkoako Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaria, M^a Isabel Vaquero; Donostiako Udaleko zinegotzia, Juanra Viles; eta Gipuzkoako campuseko EHUKo errektoreordea, Ana Arrieta.

Identifikazio-prozesua

Berreskuratutako hondar urrien eta horien baldintzen ondorioz, zaila da material genetikoa eskuratu eta alderatu ahal izatea. Edonola ere, ez dago datu-rik identifikazio-lanak orientatu ahal izateko.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.

Txaldataxur mendia 2 hobia

Kokapena: Txaldataxur mendia, Zubieta Donostia (Gipuzkoa)

Biktimak: 1

Data: 2017ko urtarrilaren 28a



Aurrekariak

Lasarte-Oriako prospekzio-taldeak (Islada Ezkutuak), Txaldataxur mendiaren iparraldeko hegalean (Zubietan, Donostia udalerriaren mugartean) bilaketa eta prospekzioa garatu bitartean, objektu metaliko bat aurkitu zuen: kantinplora bat. Haren ondoan, beste objektu batzuk eta giza hondarrak ere bazeuden. Agintaritzeari eta Gogora Institutuari eman zioten aurkikuntzaren berri, eta azken hori Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Sailarekin harremanetan jarri zen, desobiratze arkeologikoa egiteko.

Inguru honetan, borrokak 1936ko abuztuaren eta irailaren artean izan ziren. Lubakien sareko defen-

tza-lerroak eta tirogileen putzuak Txaldataxur mendiaren hegalean zeuden, eta Belkoaineratz jarraitzen zuten.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hala, 2017ko urtarrilean, deialdia egin zitzaion udal-agintariei, Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, eta beren aurrean egin ziren lanak. Bertan egon ziren Donostiako alkatea, Eneko Goia, eta Donostiako Udaleko zinegotzia, Juanra Viles; Gipuzkoako Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaria, M^a Isabel Vaquero; eta Gogora Institutuaren zuzendaria, Aintzane Ezenarro.

Lehen unean, aurkikuntzaren inguruan zegoen inguru zabal bat garbitu zen, orbelez eta adarrez estalita baitzegoen. Hezur-hondarrak harri baten ondoan zeuden. Ziur aski, harri horrek eratuko zuen hilotza beherantza erortzea, izan ere, gorpua hegalararen maldarekiko perpendikular zegoen. Goiko eta beheko gorputz-adarretako hezurak eta garezur-reko zati batzuk geratzen ziren.

Lotutako objektuen artean, honako hauek berreskuratu ziren: aluminiozko kantineplora bat, kontserbazio-egoera onean; ASTRA 300 pistola, zorro eta guzti. Era berean, horien ondoan, aurkitu ziren: txistu bat, Ingalaterrako THE ACME markakoa eta THUNDERER modelokoa; pistola metrailadorearen munizio-kargagailua, ASTRA edo Mauser, Alemanian eginga (BKIW; NICORRO); pistola formako txiskero bat eta identifikazio-plaka biribil bat, 4994 zenbakikoa.

Identifikazio-prozesua

Borrokalari hori nor izan zitekeen ikertzeko identifikazio-plaka aztertu da. Hala ere, ezin izan da dokumentazio egokia aurkitu. 1936ko irailean, hil zenean, soldaduen zerrendak (beren identifikazio-zenbakiak jasotzen zituztenak) ez ziren hain zehatzak. Edonola ere, objektuen artean pistola eta txistu bat zeudenez, pentsatzekoa da ofizial bat izango zela.

Berriz ehorzteko prozesua

Gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren, 2018ko otsailaren 9an, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak antolatutako ekitaldian.



	DESOBIRATZEAK	BIKTIMAK	IDENTIFIKATUAK
GUZTIRA	46	110	27

Desobiratzeak Araban							
Hobia	Udalerria	Urtea	Sustatzailea / zuzendaria	Biktimak	Identifikatuak	Hobi Mota	Azken ehorte lekua
Zestafe	Zigoitia	2005	Eusko Jaurlaritza/ Arabako Arkeologia Museoa	1		Gudularia	Elgoibarreko Duinta- sunaren Kolunbarioa
La Tejera	Erribera- goiti	2010	Ahaztuak 1936-1977, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Zientzia El- kartea // Jimi Jimenez eta Lourdes Herrasti	3	1. Monica Ba- rron del Val 2. Primitivo Fernandez la Bastida 3. Florentino Garcia Valencia	Judizioz kanpo exekutatuak	Familiari emana
Etxaguen	Zigoitia	2013	Udala, Eusko Jaur- laritza, eta Aranzadi Z.E. // Jimi Jimenez	12	1. Eugenio Erastabe Fer- nandez 2. Pedro Eche- garay Goye- neche 3. Andres Men- dez Oroquieta	Gudulariak	Udalari emana eta Etxagueneko hile- rrian berhobiratuak.
Txabolapea I	Legutio	2013	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E. // Jimi Jimenez	1		Gudularia	Elgoibarreko Duinta- sunaren Kolunbarioa
Alto de la Hor- ca. Boveda	Gaubea	2014	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E. // Jimi Jimenez	2	1. Angel An- tuñano Salazar	Judizioz kanpo exekutatuak	Angel Antuñanoren gorpuzkiak familiari emanak. Identifikatu gabeko gizabanakoak Elgoi- barreko Duintasuna- ren Kolunbarioan
Txabolapea II	Legutio	2017	Udala, Eusko Jaurla- ritza eta Aranzadi Z.E // Lourdes Herrasti	1		Gudularia	Elgoibarreko Duinta- sunaren Kolunbarioa
San Pedro Mendia	Amurrio	2018	Udala, Eusko Jaurleri- tza eta UPV/EHU // Josu Santamarina	1		Gudularia	Entrega egiteko prest
7				21	7		

Desobiratzeak Bizkaian

Hobia	Udalerrria	Urtea	Sustatzaila/ zuzendaria	Biktimak	Identifikat- uak	Hobi Mota	Azken ehortze lekua
T.100 Sima	Trucios-Turtzioz	2001	Esparta Taldea	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Sabigain	Mañaria	2003	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Alfredo Irusta	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Ganzabal	Amorebieta-Etxano	2008	Familiak, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Jimi Jimenez	1	1.Eloy Bengoechea Lecuona	Gudularia	Familiari emana
Ganzabal II	Amorebieta-Etxano	2011	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Jimi Jimenez	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Lemoatx I Pardomendi	Lemoa	2011	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Jimi Jimenez	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Galdames	Galdames	2013	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Jimi Jimenez	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Lemoatx II (Luminabaso)	Lemoa	2013	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Jimi Jimenez	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Lemoatx -2014I	Lemoa	2014	Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Lourdes Herrasti	1	1.Hilario Blanco Reguero	Gudularia	Familiari emana
Urduñako Hilerria	Urduña/Orduña	2014	Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Jimi Jimenez	14		Preso egonik hilak	Udalari emanak
Bolunburu	Larrabetzu	2014	Udala, Karradera Elkartea, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Jimi Jimenez	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Markina	Markina-Xemein	2015	Familiak	1	1. Jose Sagarna Uriarte	Judizioz kanpo exekutatua	Familiari emana eta Zeanuri hilerrian Berhobiratua.
Mendata	Mendata	2015	Udala, Karradera Elkartea; Aranzadi Z.E. // Jimi Jimenez eta Lourdes Herrasti	1	1. Pedro Urigüen Perea	Gudularia	Familiari emana
Lagina	Larrabetzu	2016	Udala, Karradera Elkartea, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Lourdes Herrasti	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
San Antolin. Lemoatx	Lemoa	2016	Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Lourdes Herrasti	3		Gudulariak	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
San Roque. Artxanda	Bilbao	2016	Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E // Jimi Jimenez	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa

Urkulu 1	Larrabetzu	2016	Udala, Karradera Elkartea, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E // Lourdes Herrasti	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Urkulu 2	Larrabetzu	2016	Udala, Karradera Elkartea, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E // Lourdes Herrasti	1	1. Ramon Portilla Acedo	Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Zelaietaburu	Etxebarria	2016	Udala, Ahaztuen Oroimena, Elgoibar 1936, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E // Lourdes Herrasti	3		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Lemoatx III (2017)	Lemoa	2017	Udala, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E // Lourdes Herrasti	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Urkulu 3	Larrabetzu	2017	Udala, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E//Lourdes Herrasti	1	1.Nicolas Obregon Abad	Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Altun Mendia	Zeanuri	2017	Udala, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E //Lourdes Herrasti	5	1.Pedro San Millan Beitia 2. Pedro Garcia Gil 3.Isaias Rebollo Cardo 4.Jose Alveniz Ruiz 5.Valentin Fernandez Soto	Gudulariak	. Jose Maria Alberdi Ruiz eta Isaias Robollo Cardoren gorpuzkiak familiei eman zitzaizkien. . Besteak Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioan berhobiratu ziren.
Izartza	Lemoa	2018	Udala, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E //Lourdes Herrasti	1		Gudularia	Entrega egiteko prest
Elortatxu	Gamiz-Fika	2019	Udala, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E //Lourdes Herrasti	3		Gudulariak	Entrega egiteko prest
Bizkargi	Amorebieta-Etxano	2020	Udala, Eusko Jaurkitza eta Aranzadi Z.E //Lourdes Herrasti	1	1.Aniceto Aguirrebeitia Lazpita	Gudularia	Entrega egiteko prest
24				47	12		

Desobiratzeak Gipuzkoan

Hobia	Udalerrria	Urtea	Sustatzailea// zuzendaria	Biktimak	Identifikatuak	Hobi Mota	Azken ehortze lekua
Kurtzetxiki	Arrasate/Mondragon	2002	Udala eta Aranzadi Z.E.// Francisco Etxeberria	2		Gudulariak	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Matazal	Zaldibia	2002	Udala eta Aranzadi Z.E.// Jesús tapia	2		Judizioz kanpo exekutatua	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Asu	Andoain	2003	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E.//Francisco Etxeberria	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Antzuategi 1	Elgeta	2004	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E.// Jesus Tapia y Jimi Jmenez	3	1.Jesus Zuazua Mondragon	Gudulariak	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Antzuategi 2	Elgeta	2004	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E.// Jesus Tapia eta Jimi Jmenez	3		Gudulariak	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Intxorta	Elgeta	2004	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E.// Jesus Tapia eta Jimi Jmenez	5		Gudulariak	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Zabale Base- rria	Mutriku	2004	Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E.//Lourdes Herrasti	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Iragorri	Oiartzun	2007	Udala, Kattin Txiki y Aranzadi Z.E.// Lourdes Herrasti	5		Judizioz kanpo exekutatua	Udalari entregatuak eta Oiartzungo hilerrian berhobiratuak.
Madarixa	Azkoitia	2007	Elgoibar 1936 eta Aranzadi Z.E.//Lourdes Herrasti	1		Gudularia	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa
Burdinezko Zubia 1	Donostia	2009	Instrukzioko 3. Epaitegia eta Aranzadi Z.E.// Luis Querejeta eta Francisco Etxeberria	3	1.Millan Zabala Fernandez 2.Jose Zubiarraín	Judizioz kanpo exekutatua	Millan Zabala Fernandez eta identifikatu gabeko pertsonaren gorpuzkiak Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioan berhobiratuak izan dira. Jose Zubiarraín gorpuzkiak familiari eman zizkioten.
Burdinezko Zubia 2	Donostia	2009	Instrukzioko 3. Epaitegia eta. Aranzadi Z.E.//Luis Querejeta eta Francisco Etxeberria	4		Judizioz kanpo exekutatua	Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa

Ziardamendi	Elgoibar	2012	Elgoibar 1936, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Z.E.// Lour- des Herrasti	4	1.Sabin Atutxa Olabarria 2. Eusebio Gaubeka Gibe- londo	Gudulariak	Sabin Atutxa Olaba- rria eta identifikatu ez diren gorpuzkiak Elgoibarreko Duinta- sunaren Kolunbarian berhobiratu dira. . Eusebio Gaubeka Gibelondoren gorpuz- kiak familiari eman zitzaizkion
Amasako Hilerria	Amasa, Villa- bona	2013	Udala, Aritza Kultur Elkar., Eusko Jaur- laritza eta Aranzadi Z.E.//Lourdes He- rrasti	6	1.Agustin Gar- mendia Urkola, 2. Joxe Gar- mendia Iraola 3.Cruz Iriba- rren Ezkioga	Judizioz kanpo exe- kutatuak	Amasako hilerria
Txaldataxur I	Donostia	2016	Udala, Islada Ezku- tuak, Eusko Jaurla- ritza eta Aranzadi Z.E.//Francisco Etxe- berria	1		Gudularia	Elgoibarreko Duinta- sunaren Kolunbarioa
Txaldataxur II	Donostia	2017	Udala, Islada Ezku- tuak, Eusko Jaurla- ritza eta Aranzadi Z.E.//Francisco Etxe- berria	1		Gudularia	Elgoibarreko Duinta- sunaren Kolunbarioa
15				42	8		



3. Euskaditik kanpo hobitik ateratako euskaldunak

Euskaditik kanpo egindako desobiratzeetan, Euskadin jaiotako edota bertako bizilagunak ziren beste 9 pertsonen gorpuzkiak berreskuratu eta familiei eman zaizkie. Desobiratze hauetatik 4 Nafarroan egin dira eta 5 beste Erkidego batzuetan.

NAFARROA

Ezkabako Hileria

Kokapena: Ezkabako kanposantua. San Kristobal kartzela, Iruña (Nafarroa)

Biktimak: 45

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2007ko uztailaren 2a



Andrés Gangoiti Cuesta



Andrés Gangoiti Cuesta (1920 Gorliz, Bizkaia– 1943 Iruña, Nafarroa) Gorlizen jaio zen (Bizkaia) eta marinela zen. 1936an atxilotu zuten, eta 30 urteko kartzela-zigorra jarri zitzaion Gerra Kontseilu baten ondorioz, “matxinadara atxikitzeko” delitua egitea egotzita. 1941eko abenduaren 23an, San Kristobal espetxean sartu zuten, Iruñeko Ezkaba mendian. Bertan hil zen 1943ko abenduaren 26an, 23 urte zituela, birikietako tuberkulosiak jota.

Aurrekariak

Iruñeko iparraldetik 10 kilometrora, Ezkaba mendian, gotorleku militar bat eraiki zen XIX. mendearen amaieran. Gotorleku hori espetxe moduan erabili zen Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren lehen urteetan. 1942an, mendiaren hegalean kanposantu bat prestatu zen, espetxean hiltzen ziren presoak lurperatzeko, asko baitziren baldintza ez osasungarriak jota hiltzen zirenak: hotza, gosea, pilaketa eta gaixotasun kutsakorrak tarteko, batez ere arnasketarekin eta birikiekin lotutakoak (esaterako, tuberkulosia). Hori dela eta, espetxea tuberkulosiaren aurkako kartzela-erietxe bihurtuko zen, 1945ean itxi zen arte.

Kanposantuan guztira 131 hilobi zeuden. Horiek osorik edo partzialki ikusgai ziren 2007an, 2010ean eta 2012an egondako hiru indusketa kanpaña eta gero, 45 hilobi desobiratu zirelarik, beren senideek hala eskatuta. Banakako lurperatzeak ziren, pinu-egurrezko hilkutxetan eginak. Guztiak ahoz gorako etzanera zeuden.


Ezkabako hilerria Botilen Kanposantua izenez ezagutzen zen. Izan ere, ehortzitako pertsona guztiek zeukaten botila bat hanken artean edo hanken alde batean. Botilan, dokumentu bat zegoen gordeta, hildako pertsonaren identifikazio-datuak jasotzen zituen. Franco jeneralak 1937ko urtarrilean emandako agindu bat bete-

tzen zuten. Horren arabera, batailan edo beste inguruabar batzuetan hiltzen ziren pertsona guztiak identifikatu behar ziren botila batean gordetako agiri batekin, edo identifikazio-plakarekin, baldin eta altxatutako armadako borrokalariak baziren.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

2007ko ekainean, lehen indusketak egin ziren kanposantuan, hormatik hurbilen zegoen ingurutik eta eskuineko beheko angelutik hasita. Uztailaren 2an, Andres Gangoiti Cuestaren hilobitik atera ziren gorpuzkiak. Senideak ere bertan izan ziren.

Gorpua ahoz gorako etzanera zegoen. Eskuineko besoa gorpuan zehar luzatuta zegoen, eta eskua abdominalaren inguruan; ezkerreko besoa, besetik, toraxaren gainean tolestuta zegoen. Hankak paraleloan kokatuta zeuden. Tibien artean, belauen parean, jarabe-botila bat aurkitu zen, kolore marroi argiko kristalez egina, 210 mm-koa. Aluminiozko tapoiari eta lepoko paper trinkoko blokeari esker zaindu ahal izan zen haren barrualdean zegoena, aurretik induskatu ziren kasuetan ez bezala. Botila zabaldu eta barruko agiria ateratzean, emozio handia piztu zen, bai eta suspensea ere, orduan ez baitzekiten barruan zer informazioa egongo ote zen.



Honako hau da agiriaren transkripzioa:

*Sanatorio Penitenciario de San Cristóbal Pamplona
Núm.....*

ANDRÉS GANGOITI CUESTA, falleció en este establecimiento el día de la fecha a consecuencia de tuberculosis pulmonar. Tenía 23 años de edad, soltero, marino de profesión. Natural de Gorniz (Vizcaya) y vecino de Bilbao calle de Gregorio Revuelta 30, hijo de Lorenzo y de Lucía. Este penado fue condenado a la pena de 30 años por un consejo de guerra celebrado en San Sebastián por el delito de adhesión a la Rebelión.

*Pamplona a 26 de Diciembre de 1943
Sello del Centro Penitenciario*

Gizonezko heldu gazte baten gorpua zen, 25 urtetik beherakoa. Ezkerreko aldeko hainbat saihetsetan birikietako gaixotasun batekin bateragarriak ziren zantzuk ikus zitezkeen, errailetan. Gainera, kautxu gorriko zunda bat berreskuratu zen saihetsen artean; birikietako leizeko drainatze-zunda izan zitekeen.

Identifikazio-prozesua

Kasu honetan, botilaren barruan zegoen filiazio-agiriak eman zituen gorpua identifikatu ahal izateko datuak. Gainera, kalkulaturako adina eta antzemandako zantzu patologikoak bat zetozen birikietako patologia zuen batekin. Andrés Gangoiti Cuesta birikietako tuberkulosiak jota hil zen, 1943ko abenduaren 26an.

Berriz ehorzteko prozesua

Andres Gangoitiren hezur-hondarrak familiari entregatu zitzaizkion.

Berriosusoko Hobia

Kokapena: Berriosusoko Hilerria (Nafarroa)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2010eko azaroaren 29a eta 30a



Indalecio López Urigüen



Indalecio López Urigüen (1884 Abanto Zierbena, Bizkaia- 1937 _Pamplona-Iruña, Nafarroa) Gallartan jaio zen (Bizkaia). Eskulangilea zen, ezkontuta zegoen, eta ezkerreko besoa moztua zuen. Matxinada militarra leporatu zioten eta 30 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Ezkabako San Kristobal kartzelan hil zen, 53 urte zituela, 1937ko abenduaren 21ean. Berriosusoko kanposantuan lurperatu zuten (Antsoaingo zendea).

Aurrekariak

San Kristobaleko Gotorlekua militarren gotorleku gisa eraiki zen. 1934. urtearen amaieratik eta 1945era arte, espetxe militar moduan erabiliko zen. Espetxeetan presoak pilatuta zeudenez eta bizi-baldintzak eskasak zirenez, gosea, hotza eta osasungarritasunik, higienarik eta arretarik eza tarteko, hildako asko egon ziren. Hildako presoak Antsoaingo Zende zaharra (bertan zegoen espetxea) osatzen zuten udalerrietan lurperatzeko agindu zuten agintari militarrek, hau da, Añezcar, Ballariain, Berriosuso, Berriozar, Larragueta edo Oteizan. Kanposantuak txikiak ziren, eta lurperatutako beharreko gorpuak, asko. Ondorioz, Zendea kexatu egin zen, eta agintari militarrek kanposantu propio bat eraiki behar izan zuten

Ezkaba mendiaren iparraldeko hegalean, 1942an, xede horretarako. Hala ere, aurreko udalerrietako bakoitzean batez beste 14 preso ehortzi ziren 1936tik 1942ko apirilera bitartean.

Gorpuzkiak hobotik ateratzeko prozesua

San Kristobal Espetxean preso egon, hil, eta Berriosusoko kanposantuan lurperatu ziren pertsonen hobiak aurkitu nahi ziren. Ezkaba mendiaren inguruko beste udalerri batzuetan ere aurkitu ziren lurperatzeak, Añezcar edo Oteizan kasu, espetxea gertu izanik.

Prospekzio-lanak Berriosusoko kanposantuko kanpoko partean egin ziren. Hala, hobi bakarra

aurkitu zen kanposantuaren perimetroko hego-ekialdeko angeluan, bertatik 5,10 metrora. 55 zentimetroko sakoneran, pinu-egurrezko hilkutxa batean, ehorzketa bat aurkitu zen. Ahoz gorako etzanera zegoen gorpu bati zegokion.

Gizon heldu nagusi bat zela ondorioztatu zen, 50 urtetik gorakoa. Hala eta guzti, bazegoen bereziki nabarmena zen alderdi bat: ezkerreko besoa moztuta zuen, humeroaren diafisiaren erdialdearen inguruan.

Identifikazio-prozesua

Ezaugarri berezi horri esker orientatu ahal izan ziren bere nortasuna identifikatzeko lanak, Aranzadi

Elkarteko kide Jimi Jiménezek Ezkaban 1942 aurretik hildako presoetako baten espetxe-espedientean egin zuen aurkikuntzari esker. Bertan, alboko iruzkin batean, honako hau adierazten zen: “Ezkerreko besoa falta zaio”. Indalecio López Urigüeni buruzko alderdi horrekin bat egiten zuenez datuak, haren senide posibleak bilatzeari ekin zitzaion. Proba genetikoa identifikazio-proposamen hori berretsi zuen.

Berriz ehorzteko prozesua

Indalecio López Urigüenen hezur-hondarrak Aranzadi Zientzia Elkartearen egoitzan entregatu zitzaizkien senideei, ekitaldi pribatu batean.

Urbasako Soilguneko Leizea

Kokapena: Urbasako soilguneko leizea, Urbasa-Andia Parkea (Nafarroa)

Biktimak: 10

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2013ko martxoaren 23tik 29ra



José Urbizu Berastegi,



José Urbizu Berastegi, (1916 Zegama, Gipuzkoa – 1936 Ameskoabarrena, Nafarroa) Zegaman jaio zen, eta ikazkina eta baso-langilea izan zen. Bere aita, Martín Urbizu Otaño, 1936ko abuztuaren 6aren eta 7aren artean desagertu zen [1]. Abuztuaren 8an, Jose Urbizu Sakanara joan zen (Nafarroan), bere aita non zegoen galdetzera. Atxilotu egin zuten, eta kotxe batera sartzerantz behartu. Urbasa mendira eramane zuten. Uko egin zion kotxetik irteteari, bazekielako zein izango zen bere amaiera. Toraxean eta buruan egin zioten tiro, artean kotxearen barruan eserita zegoela. Bere gorpua Urbasako soilguneko leizera bota zuten, 1936ko abuztuaren 8an.

[1] Fusilatu egin zuten eta herritarrek Errebuelta Txikia izeneko eremuan, Etxegaraten, lurperatu zuten.

Aurrekariak

Balbino García de Albizuk (Urbasako soilguneko leizean eraildako biktima baten biloba) eta Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarteak (AFFNA) eskatuta, leizea aztertu zen, eta bertan aurkitutako hezur-hondarrak hobitik atera ziren.

Leizea Urbasako soilgunea zeharkatzen duen NA-7182 errepidearen eskuineko sakonunean dago. Zulo bertikal bat da, 10 metro ingurukoa, 40 metrotik gorako espazioa duen barrunbean zabal-tzen dena. Lizarrako espeleologia-taldeko hainbat kidek aztertu zuten barrualdea eta, bertan

giza hezurren hondarrak antzeman zituztenean, horren berri eman zuten. Era berean, inguruko artzainek gogoratzen dutenez, 1936ko udazkenean hainbat pertsona hil eta leizearen barrura bota zituzten. Gutxienez hiru biktimaren berri bazuten, 1956an leizeko zuloa itxi zenean jarri zen hilarrian inskribatuta baitzeuden.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hezur-hondarrak hobitik ateratzeaz arduratu zen taldeak lehen azterketa-lanak 2013ko martxoaren 23an egin zituen, eta, gorpuzkiak, berez, hil horretako 27tik 29ra bitartean atera ziren.

Gizakien hainbat hezur-talde deskubritu ziren, batzuk anatomikoki lotuta, baina baita sakabanatuta eta nahastuta ere. Guztira 10 pertsonaren gorpuzkiak ziren. Hilotzak leizearen bertikaletik jaurtiko ziren, higakinen konoko plano inklinatutik leizearen barruraino joateko eta ia horma ukitzeko. Gutxienez bi kasutan, plano inklinatuan sakabanatuta zeuden. Ondorioz, pentsatzekoa da leku horretan geratu zirela harrapatuta, barruraino sartu gabe. Beste batzuetan, erretiratu ziren harrien artean aurkitu ziren hezur-hondarrak. Hamar pertsonak multzotan batuta zeuden, partzialki, zuloaren hormaren eta higakinen konoko oinarriaren artean zegoen kanalean modu erradialean jarrita.

Halaber, bost txakurren hezur-hondarrak ere berreskuratu ziren, horietako bat osorik. Gizakien hezur-hondarrek txakurren marka nabarmenak zituzten.

10. gizabanakoa gizonezko heldu gazte bat zen, 20 eta 25 urte artekoa. Garezurrian hezur bat galduta zeukan, ezkerreko parietal-frontalean. Su-arma baten jaurtigaiaren sarrera-zuloa izango zela

interpretatu zen. Era berean, bularrezurraren erdialdean mozketa bat ikusi zen, eskotean, atzeko aldeko perimortem hausturarekin eta kanalarekin lotuta. Su-arma baten jaurtigaiak bularrezurra eta toraxa zeharkatuko zituen aurretik atzera, ezkerretik eskuinera, eta beherantz, eta, seguru asko, bide horren kanala izango zen.

Ondorioz, bi lesio zituen, su-arma baten jaurtigaiak eraginda, eremu zefalikoa eta toraxean.

Identifikazio-prozesua

“Navarra. 1936” liburuan (Altaffaylla) jasotzen dena kontutan izanda, eta senide zuzenei jasotako testigantzen arabera, **José Urbizu Berasategi** nola hil zuten jakin da. Informazio hori bat dator leizean aurkitutako 10. gizabanakoaren ezaugarriekin, adina eta eskeletoko lesioak batik bat. Proba genetikoak egin ziren, eta orientazio hori berretsi zen.

Berriz ehorzteko prozesua

2015eko ekainaren 7an, Zegamako Udalean eta kanposantuan omenaldi-ekitaldi bat egin zen. Bertan, hezur-hondarrak familiari entregatu zitzaizkion, eta, ondoren, “Oroimenaren Txokoa” panteoian ehortzi ziren. Panteoi horretan, zehazki, frankisten errepresioaren biktima izan ziren Zegamako bizilagunei egiten zaie aitortza.

Ekitaldi formal hartan egon ziren, senide eta auzokideak ez ezik, Gipuzkoako Foru Aldundiko burua, Martín Garikano; Zegamako alkatea, Edurne Albizu; Gogora Institutuko zuzendaria, Aintzane Ezenarro; eta Gipuzkoako Aldundiko Bizikidetza eta Giza Eskubideen zuzendaria, Marina Bidasoro.

Lizarrustiko Hobia

Kokapena: Lizarrusti (Etxarri-Aranatz, Nafarroa)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2018ko irailaren 1a eta 2a



Marcelo Lasa Zeberio, erdian, arropa argiz jantzita, familiarekin.

Marcelo Lasa Zeberio (1919 Olaberria, Gipuzkoa- 1936 Etxarri-Aranatz, Nafarroa) 1936ko abuztuaren 25ean fusilatu zuten, 17 urte zituela, Lizarrusti gainean, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan. Lekuko baten testigantza esker, 2018ko irailean bere gorpuzkiak berreskuratu eta familiari eman zitzaizkion.



Aurrekariak

Informazio historiko eta dokumentala zegoen Olaberriako auzokide zen Marcelo Lasa Zeberiori buruz. 1936ko abuztuaren 25ean fusilatu zuten, 17 urte zituela, Lizarrustiko muinoan, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan. Lizarrustiko Isabelen Bentako auzokide batzuek zehazki non hil zen jakinarazi zioten familiari.

Lekukotzarik garrantzitsuena Patxi Lacunzak eman zuen. Gertaera horien lekuko izan zen, 1936ko abuztuan, 6 urte zituela. Izan ere, pertsona baten gorpua nola lurperatzen zuten ikusi

zuen, alpargata zuriak jantzita. Pertsona hori aurreko egunean hil zuten.

Marcelo Lasaren ilobekin batera, leku hura bisitatu zuen, 2016. urteko otsailean. Bigarren bisita batean, Patxi Lacunzarekin hura ere, errepideko 47. kilometroa adierazi zen erreferentzia-puntu gisa. Hobia, zehazki, hariztian bidean jarraituta aurkitu zitekeen.

Euskal Prospekzio Taldeko kideek bilaketa-lanak egin zituzten, detektagailu bat baliatuta, 2017ko urrian, munizioa aurkitzeko asmoz. Hala, zundaketa-lanak egiteko leku zehatz bat zehaztu ahal izan zen, eta, horri esker, hobia kokatu ahal izan zen.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko lanak 2018ko irailaren 1ean eta 2an egin ziren. Bertan egon ziren senideak, bai eta diziiplina anitzeko talde espezializatua ere. Agintariak ere bertaratu ziren: Ana Ollo, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko eta Institutioekiko Harremanetako sailburua; Josemi Gastón, Nafarroako Memoria Historikoko zuzendaria, eta Eneka Maiz, Etxarri-Aranatzeko Udaleko alkatea, bai eta Nafarroako Memoria Historikoko elkartearen ordezkariak eta bertako auzokideak ere.

3 metroko perimetroa zuen enberrari zegokion pago zaharraren parean, prospekzio-lanak hasi ziren, bitarteko mekanikoak erabilia, inguru horretan munizioa zegoela jakin baitzen. Enborretik 3,60 metrora aurkitu zen hobia. Hondarrak 50 zentimetroko sakoneran zeuden. Hobiak 1,90 metro luze bider 0,50 metro zabal neurtzen zituen. Barrualdean, eskeleto bat zegoen, ahoz gorako etzaneran, buztinezko sedimentu batez inguratua. Hezurretan narritadura tafonomikoa antzeman zitekeen, hezetasunaren korrosioaren eta landaretza-estalkiko sustraien ondorioz. In situ interpretatu ziren garezurra, eskuineko humeroa, bi femurrak, tibiai eta oinetako hezurak. Gainerako hezurak narriatuta zeuden.

Hondarren egoera eskasa zen arren, ezkerreko femurreko epifisi distalaren fusio-lerroa antzeman ahal izan zen. Horri esker jakin zen gorpua helduarora iristear zen pertsona batena zela, 17 eta 19 urte artekoa.

Lotutako objektuen artean berreskuratu ziren koi-lara bat, belarri laukizuzen bat, alkandorako 3 botoi (nakarrezkoak), 5 zentimoko txanpon bat, hiru bala eta fusil-zorro (Mauser), eta berunezko jaurti-gai esferiko bat.

Ondorioz, ezkutuan lurperatutako pertsonaren adina eta familiak eta lekuko zuzenak emandako datuak bat zetozen.

Identifikazio-prozesua

Lekukoek eta agiriei babestutako hipotesia berretsi nahi zen, hots, gorpua Marcelo Lasa Zeberioarena zela baieztatu. Azterketa genetiko konparatiboak egin ziren hezur-laginaren eta senide zuzen baten lagin ez-zalantzazkoaren artean. Emaizta positiboa izan zen.

Berriz ehorzteko prozesua

2019ko ekainaren 30ean, Olaberriako Udaleko osoko bilkuren aretoan, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako agintariek hezur-hondarrak entregatu zizkieten senideei. Bertan egon ziren Jonan Fernández, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lan-kidetzako idazkari nagusia; Álvaro Baraibar, Nafarroako Gobernuako Bake, Bizikidetza eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia; Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuko zuzendaria, eta Jokin Garmendia, Olaberriako alkatea, parte hartu nahi izan zuten senide eta auzokideekin batera.

BESTE KOKALEKU BATZUK

Talledo hobia

Kokapena: Talledoko kanposantua, Talledo (Kantabria)

Biktimak: 2

Data: 2005eko irailaren 1a



Aurrekariak

Ezaguna zen jatorri bizkaitarreko bi gudulari 1937an Talledora iritsi zirela eta bertan atxilotu eta erail zituztela. Horietako bat Soledad Agirre Garroren senidea ote zen jakin nahi zen, azken horrek gorpuzkiak hobitik ateratzeko eskaria egin baitzuen.

Talledoko (Kantabria) parrokoaren baimena jaso zen gorpuzkiak hobitik atera ahal izateko. Hala, udalerrri horretako kanposantuan bildu ziren 1937an gertatutako pasarte horien lekuko bat, Ángel García, Talledokoa; Antonio Ontañón Toca historialaria, "Héroes de la República y la Libertad" elkartekoa; senideak; eta Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikariak.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hobia kanposantuaren eskuineko aldean zegoen, lekukoak adierazitako tokian. Bertan, 40 zentimetroko sakoneran, bi eskeleto zeuden ehortzita, paraleloan eta ahoz gorako etzanera.

Hezur-hondarrak Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Auzitegi Antropologiako Laborategira eraman ziren, Donostiako Irakaskuntza Unitatean, eta, bertan, azterketa antropologikoa egin zen.

Bi gizonezkorenak ziren, biak heldu gazteak. **1. pertsonak** tiro baten ondoriozko lesioa zuen garezurrean. Haren barrualdean, zehazki, jaurtigaia-aren blindaje oxidatuko eta berunezko nukleoa aurkitu da. Goma beltzezko zola zuten zapatilak zituen jantzita.

2. pertsonak, 20 urte ingurukoak, metalezko tatxetak zituzten larruzko bota batzuk eta gerrikoko plaka zeramatzan. Halaber, jaurtigaia-aren irteera-zuloa zuen ezkerreko lokian.

Identifikazio-prozesua

Azterketa genetikoak egin ziren egiaztatzeko ea 2. pertsona Joaquín Garro Eizmendi, Urnietakoa jatorriz, eta Alderdi Komunistako Rosa Luxemburgo bataloiko milizianoa, izan zitekeen, baina hezur-hondarrek ez zuten profil genetiko baliagarria eman, identifikazio-lanak egin ahal izateko.

Berriz ehortzeko prozesua

Hezur-hondarrak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan gorde ziren, 2017ko urtarrilaren 30ean.

Areces hobia

Kokapena: Areces, Las Regueras, (Asturias)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2008ko martxoaren 8a



Cándido María Saseta Echeverría

Cándido María Saseta Echeverría (1904 Hondarribi, Gipuzkoa- 1937, Areces, Asturias) [1] Intendenzia Akademian ikasi zuen. Afrikako iparraldera bidali zuten, eta, bertan, teniente bihurtu zen. 1936ko martxoan, kapitain mailara igo zuten. Gerra hasitakoan, Saseta Loiolako Santutegira (Azpeitia) bidali zuten, euskal milizien (Euzkadiko Gudarostearen hazia) komandante izateko. Euzkadiko Gobernuak 1936ko urrian sortutako Gerra Batzordean, atal militarreko arduradun izendatu zen. Cándido Sasetak. Gerran parte hartu eta zauritu egin zuten. Euzkadiko Gobernuak 1937ko otsailean Asturiasera lekualdatu zituen bi brigadetako komandante buru izendatu zuten. Borrokan hil zen, Arecesen (Asturias), 1937ko otsailaren 23an.

[1] Cándido Sasetaren biografiako datuak. Egilea: Iñaki Egaña.

Aurrekariak

1937ko otsailean Asturiasera bidali ziren euskal batailoiek Oviedo eta Asturias berreskuratzeko lanetan lagundu behar zuten. Perezagua, Isaac

Puente, Largo Caballero, Prieto, Euzko Indarra, Olaberri, Ariztimuño, Amayur eta Rusia batailoiek lekualdatu ziren bertara. Nalón ibaiaren eta Arecesen arteko borroka otsailaren 21ean hasi ziren. Euzko Indarra eta Amayur batailoiek Areces-

ko posizioa hartzea lortu zuten, baina ezin izan zuten mantendu, altxatuek hainbat lekutatik egin baitzieten eraso. Euskal milizianoak modu desordenatuan erretiratu ziren. Asko hil egin ziren Arecestik jaistean, tartean Cándido Saseta.

Inguruko hainbat bizilaguni jasotako testigantzen arabera, bide ertz zehatz batean, arte baten epaitondo baten ondoan, euskal batailoietako ofizial bat lurperatu zuten.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

2008ko martxoaren 8an, Premoñotik Arecesera (Las Regueras) doan landa-bidean hezur hondarrak atera ziren. Inguruko auzokideek ehortzi zituzten hildako soldatuetako batzuk. Auzokide horiek adierazi zuten, hain zuzen ere, euskal batailoien ofiziala bidearen ertzean lurperatu zutela, arte baten ondoan (zuhaitzaren ipurdia baino ez zen geratzen).

Horrenbestez, haren ezkerraldean hobi bat aurkitu zen, 30 zentimetroko sakoneran, lurrez eta harritz estalita, ondoko larrea mugatzen duen hormaren eta bidearen artean. Gorpua ahoz beherako

etzanera ehortzi zen, besoak aurrerantz luzatuta. Garezuraren azpian, fusil baten jaurtigaiaaren zorroa berreskuratu zen. Hezur-hondarrak partzialki kontserbatu ziren.

Hobitik hurbil aurkitu ziren, era berean, britainiar jatorriko luma estilografiko bat, bi txiskero, eta disko metaliko bat. Azken horrek honako hauek zituena grabatuta: "Fábrica de Vagones de Beasain" eta "857" [2] zenbakia.

Identifikazio-prozesua

Arecesko hainbat bizilagunek lagundu zuten guda-riaren gorpuak aurkitzen. Bidearen ondoan, leku jakin batean, euskal batailoien ofizial bat zegoen hauek esan bezala. Ofizial hau Cándido Saseta zen, 1937ko otsailaren 23an zendua.

Berriz ehorzteko prozesua

2008ko apirilaren 28an, Hondarribian omenaldi-ekitaldia egin zitzaion Cándido Sasetari, eta, bertan, hondarrak familiari entregatu zitzairen. Ondoren, herriko kanposantuan ehortzi ziren.

[2].Langileek erabiltzen zuten "xafla" bat da. Beasaineko CAFeko artxiboak kontsultatuta egiaztatu ahal izan dugunez, Jesús Antolín Expósitoena da, Ordiziako bizilaguna bera. 1936an, herri horretako Izquierda Republicana taldeko burua zen. Urte hartako uztailaren 18an, zehazki, Bagoien Lantokian lan egiteari utzi zion. Gerra Kontseiluan epaitu zuten, Bilbon, 1938ko ekainaren 28an, eta urtebeteko kartzela-zigorra ezarri zitzaion. Hau da, ez zen hil Arecesko posizioan, 1937ko otsailean.

Rabanera del Pinar hobia

Kokapena: Picón de Valdeabejas. Rabanera del Pinar (Burgos)

Biktimak: 5

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2009ko irailaren 12a eta 13a



Miguel Varga Arnaiz



Miguel Varga Arnaiz (1872 San Millán de Lara, Burgos- 1936 Rabanera del Pinar, Burgos) Tolosan bizi izan zen (Gipuzkoa), Guardia zibil erretiratua zen, eta UGT sindikatura afiliatua. 1936ko udan, bere jaioterrira itzuli zen, bere lurrez arduratzera. Eskualdeko beste auzokide batzuekin batera atxilotu zuten, eta Salas de los Infantesko kartzelara eraman (Burgos). 1936ko irailaren 27an, kartzelatik atera eta Picón de Valdeabejaseko pinudira eraman zuten, Rabanera del Pinarren (Burgos). Bertan erail eta ehortzi zuten, hobi komun batean, beste lau pertsonarekin batera. 64 urte zituen.

Aurrekariak

Burgosko Probintzia Espetxeko presoan ateratzeei buruz jasotako dokumentazioaren arabera, Salas de los Infantes eta Hontoria del Pinarren artean

dagoen pinudi bateraino eraman ahal izan zen ateratze horietako bat, Rabanera del Pinarren. Ateratze horiek, zehazki, presoak beste leku batera eramateko eta bertan hiltzeko egiten ziren.

Udallerri horretako Pinar de Valdeabejas inguruan, gurutze bat dago grabatuta, zuhaitz baten enborrean, hobia non zegoen adierazteko.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Hobia lursail inklinatu batean zegoen, mendiaren hegalean, pinudi baten barruan eta bide zahar batetik hurbil (gaur egun ez da bide hori erabiltzen). Hobiak 2 metro luze eta metro zabal bat zituen (laukizuzena), eta inguruan lurrak kolorea aldatuta zuen. 90 zentimetroko batez besteko sakoneran zegoen. Hezur-hondarrak karezko geruza baten azpian aurkitu ziren. Izan ere, karea bota zen hitotzen gainean.

Bost gorpu ziren, guztiak gizonezkoenak eta adin desberdinetakoak.

5. gizabanakoa hobiaren lur gainean zegoen, ahoz gorako etzanera, haren albo baterantz apur bat biratuta. Eskuineko besoa abdominalen gainetik tolestuta zuen, eskua zabalik, eta ezkerreko besoa hobiaren erdirantz luzatuta. Eskuineko eskua luzatuta zuen, hobiaren ertza-ri jarraikiz, eta ezkerreko hanka erdi tolestuta. Lotutako objektuen artean, botoiak eta larruzko gerriko baten zatia berreskuratu ziren, metalezko krokadurak zituen.

Gizon heldu nagusi bat zela ondorioztatu zen, 50 urtetik gorakoa. Bizkarrezurrean endekapenezko gaixotasun baten zantzuak zituen. Heriotzaren arrazoiarekin lotuta, perimortem lesioak zituen eskuineko tibian, eskuineko kubituan eta ezkerre-

ko erradioan, lepoko ornoetan, garezurrean eta ezkerreko masailezur-adarrean.

Identifikazio-prozesua

Jesús Cámara historialariak Salas de los Infanteseko artxiboan egindako ikerketaren arabera, biktima-talde hori herriko kartzelatik ateratako presoena izan zitekeela uste zen. Bestalde, familiak hainbat urte zeramatzan Miguel Varga non zegoen jakin nahian, eta ikerketa historiko bati ekin zion. 2017an Gogorarekin harremanetan jarri ziren, Rabanera del Pinarren hobitik ateratako gorpuzkietako bat Miguel Varga Arnaizena izan zitekeelakoan. Hau egiaztatzeko, DNA lagina hartu zitzaizen, gorpuzkiekin alderatzeko. Horrek 5. gizabanakoaren gorpuzkiak Miguel Vargarenak zirela egiaztatzea ahalbidetu zuen.

Berriz ehorzteko prozesua

Hezur-hondarrak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan ehortzi ziren 2018ko apirilaren 17an, ekitaldi formal batean. Iñigo Urkullu lehendakariak gidatu zuen ekitaldian. Bertan, hainbat agintari egon ziren, besteak beste: Jonan Fernández, Eusko Jaurlaritzako Bizikidetza, Giza Eskubide eta Lankidetzako idazkaria; Mónica Hernando, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria; Ana Beitia, Elgoibarko alkatea; Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuko zuzendaria, bai eta Gaztela eta Leongo burutzako idazkari nagusiko burua ere, José Manuel Herrero. Horiek guztiek lagundu zieten senideei, hondarrak entregatzeko ekitaldian.

San Jose Hilerria

Kokapena: San José kanposantua (Cádiz)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2017ko apirilak 10 eta 11



Dionisio Anton Arechavala Ulacia



Dionisio Anton Arechavala Ulacia, (1896 Getxo, Bizkaia-1939 Cadiz, Cadiz). Ogibidez itsas makinista, ITA lurrun-makinen burua izan zen 1939ko apirilera arte. Cadizen preso hartu zuten ezagutzen ez diren arrazoiengatik. Udal Gordailuan atxilotuta zegoela hil zen, argi geratu ez diren arrazoiengatik. Cadizko San Jose hilerrian lurperatu zuten 1939ko apirilaren 20an [1]).

[1] Iturria: *Intervención arqueológica y antropológica de exhumación de los restos óseos de Dionisio Antón Arechavala Ulacia*, Jesús Román Román Juan Manuel Guijo Mauri, Diciembre 2017. En línea: http://www.todoslosnombres.org/sites/default/files/informe_dionisio_anton.pdf

Aurrekariak

Azken urteotan, Cadizeko San Jose hilerrian hilobitik ateratzeko lanak egin dira, Cadizeko Memoria Demokratikoaren Udal Ordezkaritzak bultzatuta.

Hilerriko dokumentazioan agertzen zenez (ehorzketen erregistro-liburua), Dionisio Anton Arechavala Ulacia 1939ko apirilaren 21ean lurperatu zuten, Cadizko San Jose hilerrian, Hegoaldeko Patio Zibilean (Hilerria 13, Fila 1, 46. lekua).

Hau jakinda, 2016ko ekainaren 6an eta 7an, ingurua garbitu eta aztertu zen, eta hamahirugarren hilobia induskatu zen, Dionisio Anton Arechavala Ulacia aurkitzeko asmoarekin.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

Esku-hartze arkeo-antropologikoa 2017ko apirilaren 10etik 11ra egin zen. Hilobiaren barruan hil-kutxa bat aurkitu zuten, eskeleto batekin. Eskeleto horrek nolabaiteko buzamendua zuen, ahoz gora etzanda zegoen eta autopsia bat egin zitzaiola ikus zitekeen.

Identifikazio-prozesua

Biktimaren familia bilatu zuten, eta gorpuzkia Dionisio Arechavala Ulaciarena zela egiaztatu zuten analisi genetikoek.

Berriz ehorzteko prozesua

Familiak Dionisio Anton Arechavala Ulaciaren gorpuzkiak jaso eta Getxoko hilerrian lurperatu zituzten, Imanol Landa alkatea, eta Aintzane Ezenarro, Gogora Institutuko zuzendaria, bertan zirelarik, 2019ko martxoaren 23an.

Alcala de Henaresko Hilerria

Kokapena: Alcala de Henaresko kanposantua, Alcala de Henares (Madril)

Biktimak: 1

Identifikatutako pertsona-kopurua: 1

Data: 2018ko ekainaren 15a



Jesus Carrera Olascoaga



Jesus Carrera Olascoaga (1918 Hondarribia, Gipuzkoa- 1945 Alcalá de Henares, Madril) PCEko afiliatua. Gazte Komunisten (Juventudes Comunistas) idazkari politikoa izan zen. Gerra amaitutakoan, atxilotuta egon zen Gurs-en eta beste ezparru batzuetan. Frantzian, PCEren sekzio desberdinak berantolatzeke zeregina eman zitzaion, eta helburu horrekin iritsi zen Madrilera 1942an, bere aurrekoa atxilotu eta fusilatu ondoren. 1943an atxilotu zuten, eta gerra-kontseiluan, zigor-heriotza ezarri zitzaion. Hala, fusilatuta hil zen 1945eko urtarrilaren 16an, Alcala de Henaresen (Madril). Hiri horretako kanposantuan lurperatu zuten.

Aurrekariak

Joserra Emparan eta Aitzol Arroyok egindako ikerketa-lanari esker, dokumentatuta geratu zen Jesús Carrera Olascoaga 1945eko urtarrilaren 16an Alcala de Henaresen fusilatu zutela, Madrilgo Lehen Lurralde Auzitegi Militarrek epai

irmoa ezarri ondoren. Bere gorpua hiri hartako kanposantuan ehortzi zen, 38. hilobian (2 zenbakiko gorpua).

2018ko apirilaren 13an, Javier Carrera jaunak eta María Carrera andreak, familiaren ordezkari-lanetan, Aranzadi Zientzia Elkarteari eska-

tu zioten esku-hartze aditua, hondarrak hobitik ateratzeko. Horretarako, "Kandido Saseta, Hondarribiko Memoria Historikoaren Elkartearen" laguntza izan zuten.

Gorpuzkiak hobitik ateratzeko prozesua

2018ko ekainaren 15ean, gorpuzkiak hobitik atera ziren. Bertan egon ziren Alcala de Henaresko alkateA, Javier Rodriguez, bertako Memoria Historikoeko elkarteko kideak, PCEko kideak, eta Jesus Carrera Olascoagaren senideak.

Kanposantuko arduradunen laguntzaz, 38. partzelako hobia ireki zuten. Bertako hilarrian, 1945eko urtarrilean hobi horretan lurperatu ziren lau pertsonen izenak agertzen ziren inskribatuta.

Kanposantuko erregistroaren arabera, Jesus Carrera Olascoaga izan zen leku horretan ehortzita-ko bigarren pertsona. Ondorioz, 1 eta 2 zenbaki-ko pertsonen hondarrak atera ziren. Hirugarrena, sekuentzia hartan, Jesus Carrera Olascoagaren gorpua zen. Ordena horretan atera zen hobitik eta kutxa batean sartu, ondoren Hondarribiko kanposantura eraman eta bertan ehorzteko (Gipuzkoa). Ekitaldi guztia grabatu zen bideoan, bai

eta bertaratuek emandako azalpenak ere. Hala-ber, omenaldi txiki bat egin zen, eta hainbat ereserki abestu ziren.

Hondarrak Aranzadi Zientzia Elkartearen laborategira eraman ziren, Donostiako egoitzan. Bertan, garbitu eta leheneratu egin ziren. Lehortu zirenean, plastikozko poltsetan eta zegokion kutxan sartu ziren, senideei entregatu arte.

Identifikazio-prozesua

Kanposantuko dokumentazioan eta hilarrian Jesus Carrera Olascoaga izena eta lurperatze-ordena agertzen ziren.

Berriz ehorzteko prozesua

2018ko uztailaren 28an egin zen omenaldi-ekitaldia, Hondarribiko kanposantuaren kanpoaldean. Bertan egon ziren hildakoaren senideak, udal-agintariak, Gogora Institutuko zuzendaria, Aintzane Ezenarro, eta PCko militanteak. Hezurren hondarrak entregatu eta kanposantuan bertan ehortzi ziren gero, ekitaldi pribatu batean.



3. Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioa

Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioa Olaso hilerriaren inguruan dago, eta Gerra Zibilean desagertu eta identifikatu ez diren pertsonen gorpuzkia daude bertan; baita ere identifikatutako pertsonen gorpuzkiak, senitartekoek bertan atseden hartzea nahi izan dutenen kasuan.

Duintasunaren Kolunbarioa Iñigo Urkullu Lehendakariak inauguratu zuen, 2017ko urtarrilaren 30ean, senideak, elkarte memorialistak eta Euskadiko ordezkari publikoak bertan zirela. Ekitaldi horretan 29 pertsonen gorpuzkiak berhobiratu ziren. 2018ko otsailaren 9an beste 25 pertsonen gorpuzkiak berhobiratu ziren bertan, Gogora Institutuak antolatutako ekitaldi instituzional betean. Ordutik beste lau pertsonen gorpuzkiak ere bertara eraman dira.

Egun, Elgoibarreko Duintasunaren Kolunbarioak 58 pertsonen gorpuzkiak gordetzen ditu, horietatik 9 identifikatuak.



Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



aranzadi
zientzia elkartea

